



*EAEn emakumeen aurkako indarkeria
matxistaren biktimei ematen zaien
arreta koordinatzeko erakundeen
arteko III. Akordioa*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 19an.

Sinatzaileek adierazten dute

I. Giza eskubideen urraketa bat eta erakunde publikoei esku hartzeko deialdia

Emakumeen aurkako indarkeria matxista nazioartean aitortzen da neska txikien, neska nerabeen eta emakume helduen oso kopuru handiari, beren seme-alabei eta ondorioz gizarte osoari eragiten dion giza eskubideen urraketatzat. Osasun publikoko lehen mailako gizarte-arazo kontsideratzen da eta horren aurrean erakunde publikoei ekiteko dei egiten zaie.

Ugaria da botere publikoen esku-hartzea galdatzen duen araudia nazioartean, estatu-mailan eta, noski, EAE mailan. Beste batzuen artean aipagarriak dira: Emakumearen kontrako Bereizkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena, CEDAW, 1979koa; Emakumeen kontrako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Borrokarako eta haiek Saihesteko Hitzarmena, 2011koa (Istanbuleko Hitzarmena); Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa; Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legea, apirilaren 27koa; Haurtzarorako eta Nerabesarorako Babes Sistema Aldatzeko 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa; Genero Indarkeriaren kontrako Estatu Itunetik aurrera sortutako araudia, 2017an sinatutakoa; Askatasun Sexual Osoa Bermatzeko 10/2022 Lege Organikoa, eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legea (2022ko martxoaren 3ko bigarren aldaketaren ondoren).

Hari horretatik jarraituz, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurreko erantzuna hobetzen saiatu da zenbait lege eta arau garatuz. Horien bidez neurriak bultzatu eta ezarri dira indarkeria mota hori saihestera eta deuseztatzea bideratuta, baita biktimak babestera eta indarkeria hori tolerantziarik gabe arbuizatzea eta horien erantzuleak zigortzea bideratuta ere.

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak ezartzen du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta osoa eskaintzea eta haien errekupezioa eta erreparazioa Euskadiko botere publikoentzako lehentasuna izatea.

II. Desberdinkeria jatorri duen arazo estrukturala

Erreferente den araudiak aitortzen du emakumeen aurkako indarkeria matxista botere-harreman desorekatuen eta emakumeen bereizkeriaren adierazpena dela, eta, gainera, indarkeria mota horrek generoaren arabera desberdinkeria estrukturalak betikotzeko funtzioa duela.

Horrez gain, indarkeria hori desberdinkeriaren eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoen ondorio da, hala nola, soldata-arrakala, txirotasunaren feminizazioa eta erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeen ordezkari falta. Indarkeria hori emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren adierazpenik muturrekoena da eta, beraz, berdintasunerantz egiten diren aurrerapauso orokorrak emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko bidean ere aurrerapenak dira.

Emakumeek gizarte-egitura matxistaren barnean, bizitzako hainbat esparrutan pairatzen duten indarkeria estruktural eta sistemiko gisa definitzen da. Hori dela eta, nahiz eta pertsona zehatzei harreman pribatuetan gertatu, gizarte-antolakuntzarekin lotuta dago eta gizartean eta familian sexuaren arabera betetzen diren eginkizunen eta arduren banaketa tradizionalen funtsatzen da, zeinetan emakumeak gizonen menpeko lekua duten.

Emakumeen aurkako indarkeriaren erroak emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria historikoan eta sektore publiko nahiz pribatuan emakumeen bereizkeria orokortuan daude. Botere desberdintasunek, bereizkeriazko gizarte-arauek eta desberdinkeria ekonomikoek emakumeen giza eskubideak ahultzen dituzte eta indarkeria betikotzen dute. Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa ez da erasoetara mugatzen, indarkeria pribilegioez baliatzen den harremanak izateko modu bat da, harremanetako asimetria hori mantentzeko eta emakumeak menderatzeko erabiltzen dena. Zentzu horretan, desberdinkeria hori mantentzeko, errepikatzeko eta betikotzeko balio duen gizarte-kontrolerako tresna ere bada, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoen ondorio eta sortzaile baita aldi berean.

Indarkeria mota hori ez da kultura, erlijio edo herrialde zehatz batera mugatzen, ezta gizarte baten barruko emakume-talde zehatzetara ere. Nahiz eta emakume batzuen eta besteen egoera oso ezberdina izan (neska txikiak, emakume afrikarrak, asiarrak, latinoamerikarrak, europarrak, gazteak, helduak, adinekoak, soldatapekoak, langabeak...) gizonen aldean gutxiagotasun- eta menpekotasun-egoera dute komunean, zeharo adierazpen ezberdinetan mamitzen dena.

Indarkeria hori emakume guztien ongizateko eta bizi-kalitateko maila askotan ondorio larriak dituen gizarte-arazo bat da. Alabaina, adinak, nazionalitateak, jatorri edo estratu kulturalak, desgaitasunak, emakume migratzaileen kasuan bizilekuaren administrazio-egoerak, txirotasunak edo autonomia ekonomiko faltak, elkarrekin gurutzatzen diren beste faktore batzuekin batera, eragina dute indarkeria-egoerak areagotzean eta emakume askok beren herritar-eskubideak eraginkortasunez baliatzeko desabantailak izatean.

III. Koordinazioarako aurreko akordioetako lorpenak

Emakumeen aurkako indarkeria matxistak botere publiko guztiek esfortzuak bateratzea eskatzen duen dimentsio anitzeko arazoa da eta horri erantzuteko erakunde-maila guztietako eragile anitzen arteko akordioak, konpromisoak eta koordinazioa behar dira. Azken 20 urteetan EAEn noranzko horretan pauso garrantzitsuak eman dira¹.

2001ean euskal administrazio publikoak berdintasun-politiketan hamarkada batean baino gehiagoan egindako lanean oinarritutako *"Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera egiteko erakundeen arteko I. Akordioa"* sinatu zen. EAEn eta erkidegotik kanpo ekimen aitzindaria izan zen. Emakumeen aurkako bereizkeriaren, desberdinkeriaren eta indarkeriaren arteko lotura zuzena azpimarratu zen bertan, artean gaur egun ditugun erreferentziatzko legeen oinarririk argitaratu ez zen garai batean. Akordioa sinatzeak lehen aldiz etxeko tratu txarretan eta eraso sexualetan esku hartzen zuten hainbat erakunde konprometitu zituen gai horretan eta, gainera, prozedurak edo jarduketak EAE osoan ekiteko pautak homogeneo batzuetara moldatzea adostu zuten dokumentuko esku-hartze esparru bakoitzerako (osasuna, gizarte-zerbitzuak, segurtasuna eta justizia). Era berean, akordioari esker emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko gai zehatzen inguruan elkarlana erraztu duten profesionalen arteko aldizkako harremanak ahalbideratzeko espazioak sortu ziren.

Akordioan jasotako pautek hurrengo akordioaren oinarria ezarri zuten eta EAE osoan zabaltu ziren tokiko protokolo guztietarako ezinbesteko erreferentzia eta inspirazio iturri ere izan ziren. Indarrean egon zen zortzi urteetan indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumeei eskaini beharreko zerbitzu eta baliabideetan funtsezko aldaketak eskatzen zituzten lege ugari promulgatu ziren. Testuinguru horretan ezinbestekoa zen akordioaren edukiak egokitzea eta horregatik *"Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa"* sinatu zen 2009an.

II. akordioa indarrean jarri zenetik erakundeen arteko koordinazio-eredua zabaltu, indartu eta garatu da. Akordio berriak eragin hauek izan zituen, beste batzuen artean: etxeko tratu txarrek eta indarkeria sexualak eragindako heriotzen aurrean erantzun instituzional koordinatua emateko prozedura moldatzea; haurrak genero-indarkeriaren biktima zuzen aitortzearen inguruko hausnarketa bultzatzea horri dagokion araudia onartu aurretik; emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamenduaren inguruko lan egitea, eta EDEKArekin elkarlanean desgaitasundun emakumeei ematen zaizkien erantzunak hobetzea bultzatzea onartutako printzipioak jarraituz. Nabarmenezkoa da indarkeria jasaten duten emakumeei egoera horren aurrean erantzuna ematen parte hartzen duten profesionalen formakuntzari dagokion diagnostiko-prozesua. Prozesu horretatik aurrera diseinatu eta bultzatu zen esparru eta sistema guztietako profesionalen formakuntza espezializaturako Jabetuz Programa.

¹ Zehaztasun gehiago dituen txosten bat kontsulta daiteke hemen: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/es_def/adjuntos/dossier_20_anos_camino_recorrido.pdf

Bai I. akordioa, bai II.a aurrerapauso ukalezina izan dira emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean euskal erakundeen erantzuna hobetzeko eta honen tamainako arazo batek eskatzen duen erakundeen arteko elkarlan biziagoa eta egonkorragoa izateko oinarria prestatu dute. Indarkeria jasaten duten emakumeei arreta emateko EAE osoan zabaltzen diren zerbitzu eta baliabideen sarea nolabait antolatzea ahalbideratu dute. Horrela, erakundeen arteko lana protokoloan jasotzeko erremintak izateak emakumeek sistema guztietara duten sarbidea hobetzen du. Formakuntzan egindako hobekuntzek hainbat esparrutatik emakumeen aurkako indarkeria-egoeren detekzio goiztiarra hobetzen lagundu dute eta zerbitzuen arteko bideraketarako mesedegarria izan da.

IV. Araudian aldaketak 2009tik

2009tik gai horretan esku-hartzearekin lotutako gertaera legegile garrantzitsuak egon direnez, II. Akordioko edukiak eguneratzeko beharra sortu da, baita protokoloak, elkarlanerako akordioak eta ordutik onartutako koordinaziorako beste tresna mota batzuk berrikusteko beharra ere.

Europako Kontseiluko Emakumeen kontrako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Borrokarako eta haiek Saihesteko Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen adostutakoa, 2014tik loteslea dena eta indarrean dagoena, Europan emakumeen kontrako indarkeriaren arloan derrigorrezkoa den lehenengo tresna da eta indarkeria saihesteko, biktimak babesteko eta erantzuleak epaitzeko orain arte ezarritako garrantzi handieneko konpromisoa. Emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa larria dela aitortzen du eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegian 1/2004 Lege Organikoak eskaintzen duen genero-indarkeriaren definizioa zabaltzeko beharra adierazten du. Hitzarmena sinatzean hartutako konpromisoen jarraipena egiteko Emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzeko adituen taldea (GREVIO) izenekoak sortu zen. Taldeak arlo horretako politiketarako oso interesgarriak diren gomendio orokorrak ematen ditu.

Estatu-mailan, zigor-kodea aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Legearen onarpena azpimarratu behar da, arauan genero kontzeptua bereizkeria larrigarri gisa gehitu, kondena urratze delitua erantsi eta ezkontza behartua tipifikatu zuena. Urte horretan bertan Biktimaren Estatutuko apirilaren 27ko 4/2015 Legeak prozesu penalean biktimen eskubideen aitortpena aurreratu zuen, baita babesa eta kalte-ordainketa jasotzeko eskubidea ere.

Era berean, Haurtzarorako eta Nerabezarorako Babes Sistema Aldatzeko 8/2015 Lege Organikoak, uztailaren 22koak, eta Haurtzarorako eta Nerabezarorako Babes Sistema Aldatzeko 26/2015 Legeak, uztailaren 22koak, genero-indarkeria edo etxeko indarkeria dagoen testuinguruetako adingabeak biktima aitortu zituzten laguntza eskaintzen duten zerbitzuetara sarbidea bermatzeko, baita babesteko neurri egokietara ere.

2017an sinatutako Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna ere aipagarria da. Horrek genero-indarkeriari erakundeek ematen dioten erantzuna hobetzeko konpromiso eta neurri zehatzak planteatu zituen 1/2004 Lege Organikoan definitzen den bezala, eta beste indarkeria era batzuk, esate baterako esplotazio sexualerako emakumeak salerostea, klitoriaren ablazioa eta ezkontza behartua, ikusaraztea eta artatzea hobetzeko ere bai. Itun horretatik aurrera Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna Garatzeko Presako Neurrien 9/2018 Errege Lege

Dekretua, abuztuaren 3koa, bezalako arau batzuk onartu dira. Lege horretan, beste neurri batzuen artean, indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzuek indarkeriaren biktima egoera era administratiboan egiaztatzeko erak zabaldu ziren (indarkeria-egoeren egiaztapenari buruzko 2021eko azaroaren 11ko Berdintasun Sektoreko Konferentziako Akordioa argitaratzen duen Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzaren abenduaren 2ko Ebazpena). Lege Dekretu horrek arau askotan aldaketak ekarri ditu, adibidez biktimentzako gizarte-laguntzei buruzko Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren, abenduaren 28koaren, 27. artikuluko 2. eta 5. atalean, eta datorren urteetan estatu-mailako arau-esparrua garatzen jarraitzea itun horrekin lotuta.

Bere aldetik, Genero Indarkeriaren arloan estatu itunean aplikatzen diren presazko neurriei buruzko Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, erreformatzen duen 5/2018 Lege Organikoa, abenduaren 28koak, beste aldaketa batzuen artean, hainbat esparrutan genero-indarkerian formakuntza gehitu zuen, adibidez sarbidea izateko karrera judizialera edo emakumearen aurkako indarkeriarako epaitegi espezializatuetara sartzeko espezializaziora.

Ezgaitze judizialdun desgaitasuna duten pertsonen esterilizazio indartua edo adostasunik gabekoa ezabatzeko zigor-kodea aldatzen duen 2/2020 Lege Organikoa, abenduaren 16koa, eta desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legedia zibila eta prozesala erreformatzen duen 8/2021 Legea, ekainaren 2koa. Horrek desgaitasuna duten haurrak eta nerabeak edo erabakiak hartzeko laguntza behar duten adin nagusikoak babesteko neurriak gehitzen ditu etxeko indarkeria edo genero-indarkeria testuinguruak duten banaketa- edo dibortzio-egoeretan.

Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak babesteko 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koak, 11. artikulua zuen adingabeak edozein biolentzia motaren aurrean babesteko — horien artean baterako familia-ingurunekoa, genero-indarkeria, pertsonen salerosketa eta trafikoa eta klitoriaren ablazioa— administrazio-jardunerako printzipio gidari gisa. Gainera, askatasun sexualaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua, pertsonen salerosketa edo adingabeen esplotazio delitua izan litekeen egintza baten jakitun diren pertsona guztiek Fiskaltzari jakinarazteko betebeharra ezarri zuen.

Askatasun sexuala bermatzeko 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koak, ezartzen du administrazio publikoek indarkeria sexualaren biktimei arreta osoa eskaintzen duten zerbitzuak eskaini behar dituztela egunean 24 orduz, zeinek barne hartzen dituen lagun egitea, arreta psikologikoa, juridikoa eta soziala.

EAEn esparruan, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak hori aldatzeko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bidez txertatutako aldaketen ondoren indarrean dagoen bertsio bateratuan, lege-esparrua testuinguru sozial eta legegile berrira moldatzen du, batez ere aipatutako Istanbulerako akordiora. Azpimarragarria da, euskal botere publikoen egintzan duen garrantziagatik, biolentziaren esparruan burututako aldaketa. Zehazki *"VII. kapitulua emakumeen aurkako indarkeria"* deiturikoa gai honetako legedian mugarri da.

Arau horrek, EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Planekin bat etorriz, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurreko erantzun instituzionala berdintasun politiketan kokatzen du. Berritasun adierazgarrienen artean nabarmentzen da: kontzeptualizazioan kontuan hartzen diren indarkeria erak eta motak zabaltzen ditu (1/2004 Lege Organikoan definitzen den genero-indarkeria baino haratago) eta zuzenbidearen subjektuaren esparrua era bai (emakumeez gain biktima kontsideratzen ditu haurrak, nerabeak eta indarkeria dagoen testuinguru batean dauden beste menpeko pertsonak haien egoera zaurgarriagatik indarkeria horrek zuzenean eragiten badie); interseksionalitateari eta arreta pertsonalizatzeari arreta handiagoa jarri behar zaiela azpimarratzen du; eta birbiktimizazioa ekidin behar dela eta biktimen eskubideak eta ahalduntzea hark prozedura judizialean duen inplikazio-maila kontuan hartu gabe, esku-hartzearen erdialdean jarri behar direla nabarmentzen du.

54.6. artikuluan detekzio goiztiarrak duen garrantziaz hitz egiten da eta aldarrikatzen da euskal administrazio publikoek, haien esparruko eskumenekin, ziurtatu behar dutela hezkuntza-, osasun- eta lan-esparruetako, esparru polizialeko, judizialeko eta sozialeko profesionalek era proaktiboan lan egiten dutela esplizitatu gabeko emakumeen aurkako indarkeria kasuak detektatzeko eta era egokian bideratzeko. Hori lortzeko, ziurtatu behar dute esku hartzen duten erakundeek era koordinatuan landutako adierazleak eta dagozkien ekintzarako pautak dituzten protokoloak existitzen direla eta aplikatzen direla.

Horrela, arazoa era integralago batean lantzen eta kalitate handiagoko erantzunak ematen saiatzeko, 62. artikuluan ezartzen du autonomia erkidegoko administrazioak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bidez, gaian eskumenak dituzten gainerako euskal administrazio publikoekin batera erakundeen arteko kolaborazio akordioak eguneratzea bultzatu behar dituztela, detekzio goiztiarrari eta emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuen aurrean era koordinatuan eta eraginkorrean ekiteari mesede egiteko eta indarkeria horren biktimei kalitatezko laguntza osoa bermatzeko. Era horretan, gaian eskumenak dituzten gainerako erakundeekin kolaboratzeko formulak bultzatu behar dira.

Hain zuzen 2009ko erakundeen arteko II. Akordioaren edukiak batez ere lehen aipatutako aldaketa legeetatik datozen inguruabar berrietara moldatzeko eta ordutik aurrera onartutako protokoloak, kolaboraziorako akordioak eta beste tresna juridiko mota batzuk osatzeko, erakundeen arteko III. Akordio hau sinatzea planteatzen da, garatu daitekeen esparru-akordio gisa, esku-hartzeko esparru bakoitzera zehazten eta moldatzen dena.

V. Azken urteetako aldaketa sozialak

Azken urteetan izandako aldaketa sozialek indarkeria era batzuek garrantzi handiagoa hartzea ekarri dute, baita emakumeen aurkako indarkeria matxista eragiteko era berriak sortzea ere. Testuinguru horretan garrantzi berezia du detekziora eta protokoloak berrikustera bideratutako esfortzua areagotzeak.

Gizarteak harremanak izateko eta komunikatzeko moduetan aldaketa iraultzailea izan du informazioaren teknologien erabilera eta Interneten, sare sozialen eta gailu mugikorren garapena dela eta. Teknologia horien erabileraren zabalkuntzak alde batetik, zenbait abusu-arrisku areagotu ditu, esate baterako sextingak (mugikor edo Internet bidez sexualak edo erotikoak diren irudiak edo bestelako edukiak zabaltzeak) dakartzanak eta bestalde, indarkeria era berriak sortu ditu, adibidez groominga (helduek adingabeei informazioa eta Internet bidez lortutako irudiak hertsatzeko erabiliz egiten dieten sexu-abusua), ziberkontrola, ziberjazarpen sexual sexista (sarean emakumeak iraintzen dituzten jarrera errepikatuak eta baimenik gabekoak, biktimaren bizitzan nahasiz), etab., izan ere, erreza da horietara sarbidea izatea eta haietan erasotzaileek pribatutasuna eta zigorgabetasuna izaten dute.

Indarkeriarako teknologia berriez baliatzeak emakumeen kontrako indarkeria larritzea dakar testuinguru batzuetan, hala nola bikoteen edo bikote ohien harremanetan, batez ere nerabeen eta gazteen kasuan. Ziberrindarkeria era horiek matxismoa errepikatzen badute ere ezkutuan daude eta askotan ez dira zalantzan jartzen eta ez zaie aurre egiten. GREVIOren 1. gomendio orokorra, hain zuzen, emakumeen aurkako indarkeriaren alderdi digitalari buruzkoa da.

Horrez gain, geroz eta ikusgarriago egin dira gizon-taldeek emakumeei egindako eraso sexualak eta "sumisio kimiko" deiturikoaren bidezkoak, biktimaren borondatea ezeztatzen duten sustantziak eta psikofarmakoak erabiliz burututakoak. Indarkeria mota horiek gizartean eragin handia izan dute eragin duten haserrea eta gizarte-salaketa kontuan hartuta.

Horrela, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartu behar da emakumeei min emateko beren gertuko ingurune edo ingurune afektiboko pertsonen kontra erabiltzen den indarkeria, batez ere seme-alaben kontra. Indarkeria mota hori "indarkeria bikario" izenez ezagutzen da.

Aldaketa sozialen artean aipagarriak dira migrazio-prozesuen hazkundearekin lotutako gizarte eta demografia aldaketak; batez ere emakumeei, gazteei eta migratzaileei eragiten dieten txirotasun eta gizarte-bazterketa tasen hazkundera; gizarte-inklusio lanaren eginkizunaren eboluzioa, biztanleriaren zahartzea eta adinekoen zaugarritasuna, etab. Erabakigarria da konplexu bihurtzen den emakume batzuen errekupeazio-prozesuan faktore guzti horien eragina kontuan hartzea.

Bestalde, berdintasun handiagoa lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista ezabatzeko aldarrikapenek eta erakunde feministek eragin soziopolitikorako ahalmena irabazi dute eta gizarteak botere publikoei esfortzu handiagoa egiteko eskatzen die.

Azaldutako guztia dela eta, parte hartzen duten alderdiek, daukaten ordezkartzan,

Hitzartzen dute

Lehenengoa

Akordio honen objektua EAEEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretan esku hartzen duten erakundeen artean ahal den koordinazio handiena eta hoberena lortzea da, azken helburua biktimei ematen zaien arreta hobetzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza on bat lortzen laguntzea izanik. Horretarako, behar diren pautak onartuko dira EAEEn jardun homogeneoa eta kalitatezko arreta integrala bermatzeko osasun-, hezkuntza-, etxebizitza- eta lan-esparruetan, gizarte-zerbitzuen esparruan, esparru polizialean eta judizialean.

Bigarrena

Dokumentua izenpetzen duten erakundeek *"emakumeen aurkako indarkeria matxista"* terminologia adosten dute otsailaren 18ko Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearekin bat etorriz.

Akordioaren ondoretarako emakumeen aurkako indarkeria matxista bezala ulertzen da aipatutako legean ezarritakoa: *"Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurritz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan"*.

"Indarkeria egitezkoa zein ez-egitezkoa izan daiteke, eta bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta horien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada".

"Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neska txikien salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideak urratzea, eta emakumeen edo neska txikien duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta eremu birtuala".

"Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzen jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkako, emakumea atsekabetzeko borondatez".

Arau horren arabera "generoagatiko indarkeria-jarrerak zuzenean pairatzen dituzten emakume, neska nerabe eta neska txikiez gainera, emakumearen kontrako indarkeriaren biktimatzen jotzen dira espresuki haurrak, nerabeak eta mendeko beste pertsona batzuk, baldin eta indarkeria hori gauzatzen den ingurune batean bizi badira eta, beren zaurgarritasun-egoera dela-eta, indarkeria horrek zuzenean eragin badiezaieke".

"Biktima" kontzeptuak errehabilitazio-prozesu bat hasi duten bizirik irteneko pertsonak ere barne hartzen ditu, nazioarteko itunetan eta gaiari buruzko testu legaletan ezartzen denarekin bat eginez.

Era berean, Askatasun sexuala bermatzeko 10/2022 Lege Organikoak, irailaren 6koak, ezartzen du indarkeria sexualak honela ulertu behar direla: *"izaera sexuala duen edozein ekimen, onartua ez dena edota bizi sexualaren garapen askea baldintzatzen duena, edozein eremutan, publiko zein pribatuan, baita eremu digitalean ere"*. Dena den, zigor-kodeko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoko II. liburuaren VIII. tituluaren aurrekustean diren delituak indarkeria sexualtzat hartzen dira.

Indarkeriaren kontzeptualizazio hori hartzeak esan nahi du Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko ekintza-esparrua zabaltzea, baita II. akordioa ere; izan ere, emakumeen kontrako indarkeriaren beste adierazpen eta era batzuk kontuan hartzen dira emakumeei zuzenduta bikoteak edo bikote izandakoak erabilitakoaz, familia-esparruan beste familiarterako batek erabilitakoaz eta esparru horretatik kanpoko indarkeria sexualaz gain. Indarkeria era horiek, aurreko koordinaziorako akordioetan landuz joan direnak, arretagune nagusi izaten jarraituko dute lortutako aurrerapausoak finkatzeko.

Akordio hau sinatzen duten alderdi guztiak, haien eskumenak zeharo errespetatuz, bereziki independentzia judiziala eta Arartekoarena, instituzioen arteko koordinaziorako eta elkarlanerako jarduketak emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptualizazio horrekin bateratzen joango dira eta akordioaren esparru subjektiboa aplikatuz, indarkeria matxista era guztietako biktimei erantzun egokia eman diezaieten.

Hirugarrena

Akordioa izenpetzen duten erakundeak emakumeen aurkako indarkeria matxista egoeretan jarduketa-printzipio gidariak eta akordio honetan gehitzen den Jarduketa Koordinaturako Protokoloa jarraituz moldatzeko konpromisoa hartzen dute; guzti hori beren eskumenak zeharo errespetatuz, bereziki independentzia judiziala eta Arartekoarena.

Laugarrena

Jarduketa Koordinaturako Protokoloan aurreikusitako printzipioak eta pautak eraginkortasunez aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lehendakaritzak horren edukiak emakumeen aurkako indarkeria matxista egoeretatik datozen arau-hauste penalak pertsegitzean esku-hartzen duten epaile guztien artean zabalduko ditu.

Bosgarrena

Jarduketa Koordinaturako Protokoloan aurreikusitako printzipioak eta pautak eraginkortasunez aplikatzeko, gainerako erakunde sinatzaileek, haien eskumenen esparruan eta independentzia judiziala eta Arartekoarena, zeharo errespetatuz, hurrengo jarduketak egingo dituzte:

- a) Jarduketa protokoloaren edukiak zabaltzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen esku-hartzen duten erakunde sinatzaileak osatzen dituzten edo haien menpe dauden profesional guztien artean. Horretarako kasu bakoitzean egoki irizten diren baliabideak erabiliko dira: akordio eta protokolo honetako edukien igorpena, jarraibideak, zirkularrak, gomendioak, gidak, jardunaldiak, sentsibilizazio tailerrak, formakuntza-ekintzak, etab.
- b) Espezializatutako derrigorrezko formakuntza plan eta programa jarraituak diseinatzea eta martxan jartzea, Jarduketa Koordinaturako Protokolo printzipioak eta pautak bereziki aipatuz, emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuen aurreko jarduketarako biktima horiei arreta ematean bakoitzak bere esparrutik esku hartzen duten profesionalen zuzendutakoak, bai langile propioei bai zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatuetako langileei. Formakuntza hori giza eskubideak, haurtzarora eta generoa kontuan hartzen dituen ikusmolde hirukoitz batekin garatuko da ikuspuntu intersektional batetik aurrera eta biktimen ahalduntzea esku-hartzeko aukera eta ardatz nagusi izanik.
- c) Jakintza garatzen laguntzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako baliabide eta zerbitzuen jardueraren inguruko despertsionalizatutako beren erabiltzaileen datuak eta informazioa jasoz eta bidaliz, beharrezkoa balitz beren informazio-sistemak moldatuz analisi estatistikoa eta informazioaren eta datuen ebaluazioari mesede egiteko.
- d) Akordio honetako edukiak eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzeko beharrezko giza baliabideak, materialak eta teknikariak prestatzea.

- e) Erreferentziarako araudiak, jarduteko prozedurak eta informazio-sistemak eguneratzea.
- f) Jarduketetan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzea horiek biktimen ongizatean duten eragin baikorra handitzeko.

Seigarrena

Akordio honetako konpromisoen gauzatzearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, I. akordioaren esparruan sortutako jarraipen-batzordea mantentzen da honako funtzio hauekin:

- a) Erakunde sinatzaileei egokitzat hartzen diren beste ekintza proposatzea koordinazioa hobetzeko eta akordio honetako Jarduketa Koordinaturako Protokoloan biltzen diren neurri eta pautak eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzeko.
- b) Erakunde sinatzaileen artean jarduketa proposamen bateratuak egitea, baita akordio honen objektuarekin lotutako hainbat erakunderi eragiten dieten esku-hartzeak eta ekintzak koordinatzea ere.
- c) Akordioaren objektuarekin lotutako txostenak egitea beren erabakiz edo arau juridiko baten babesean hala eskatuta.
- d) Akordioaren objektuarekin lotutako akordioak egitea.
- e) Jarduketa Koordinaturako Protokoloan ezarritako pautak ez betetzeari buruzko keaxak jasotzea eta, hala badagokio, hori zuzentzeko neurriak proposatzea.
- f) Jarraipen-batzordeari laguntza teknikoa emateko ardura duen Erakundeen Arteko Talde Teknikoak (EATTak) aurrekontu-ekitaldi bakoitzean landu beharko dituen lan-ildoak eta premiazko gaiak adostea.
- g) Akordio honetako edukien aplikazioa aztertzea eta, bereziki, ekitaldi bakoitzaren amaieran horien betetze-mailaren jarraipenaren eta ebaluazioaren txosten bat onartzea. Txostenean erakunde sinatzaile bakoitzak Jarduketa Koordinaturako Protokoloan aurreikusten diren neurriak eta pautak eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzeko eta biktimen arreta eta babesa hobetzeko garatutako ekintzei erreferentzia egingo zaie eta, horrez gain, erakunde bakoitzak bere esku-hartze esparruko Jarduketa Koordinaturako Protokoloak betetze-mailaren balorazio bat eta protokolo horrekin lotutako aurrerapausoen eta emaitzen ebaluazio bateratu bat gehituko dira. Horretarako, erakunde bakoitzak jarraipen-batzordearen idazkaritzan bere esku-hartze esparruari buruzko jarraipen- eta ebaluazio-txosten bat bidaliko du, EATTak horretarako ezarritako adierazleei jarraituz, dagokion batzordearen bilera baino hilabete bat lehenago.

- h) Hala badagokio, akordio honetan jasotako Jarduketa Koordinaturako Protokoloa eguneratzea adostea akordio hau indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen edo inguruabar berrietara egokitzen dela ziurtatzeko, betiere eguneraketak akordio berri bat sinatzea justifikatzen duten funtsezko alderdiei eragiten ez badie.
- i) Esplotazio sexualerako emakumeen eta neska txikien salerosketarekin lotutako auziek batzorde honen funtzioak gainditzeko dituzte, izan ere, Emakundek 2013tik emakumeen aurkako indarkeria matxista mota zehatz horrekin lotutako jarduketak koordinatzeko bultzatzen duen Sexu-esplotazioa Helburu duen Emakume eta Nesken Salerosketaren kontrako Mahaiaren esparruan kudeatuko dira.
- j) Bere ekintza-esparruan ematen zaion beste zeinahi funtzio.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria izango da jarraipen-batzordearen buru eta, gainera, kontseilariorde-maila edo antzekoren bat duten hurrengo erakunde sinatzaileetako ordezkarietara osatuta egongo da:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Osasun-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Herritarren segurtasunean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Justizia-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Gizarte-inklusioaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Lan-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Etxebizitza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Hezkuntza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saila.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarte.
- Botere Nagusiaren Kontseilu Judiziala.
- Ararteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia.
- Legelarien Euskal Kontseilua.
- Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Era berean, jarraipen-batzordea osatuko du Emakundeko Idazkaritza Nagusiko titularrak, zeinek idazkaritzako funtzioak eta batzordea kudeatzeko funtzioak izango dituen eta absentzia- edo gaixotasun-egoeretan, funtzio horiek batzordekide gazteenak beteko ditu.

Modu horretan, noizean behin jarraipen-batzordean parte ahalko dute, landu beharreko gaiak hori eskatzen dutenean, hitza bai baina botorik ez dutela, akordioaren objektuaren eraginpeko pertsonak elkartzen edo ordezkatzeko dituzten, edo emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen lan egiten duten erakundeetako eta elkarteetako aditu eta kideek.

Jarraipen-batzordeak osoko bilkuretan eta azpibatzerdeetan funtzionatu ahalko du gai zehatzak aztertzeko, horrela, osoko bilkurari dagokio bertako pertsonetatik azpibatzerde bakoitza osatuko duten pertsonak izendatzea. Batzordearen osoko bilkurak gutxienez urtean ohiko bilkura bat izango du. Gainera, lehendakariak erabakita edo parte-hartzaileen bi herrenek eskatuz gero, bilkura bereziak egin ahal izango ditu. Bigarren kasu horretan, eskaera idatziz egin behar da eta landu beharreko gaien proposamen arrazoitua izango du.

Lehendakariak bilera berezia eskaera egiten denetik hurrengo hamabost egunetako tartean deituko du bilera berezia eta gai-zerrendak derrigorrez eskatutako puntuak izango ditu, lehendakariak puntu gehiago gehi ditzakeelarik. Batzordeak, nahiz osoko bilkuran nahiz azpibatzerdeetan funtzionatuz, baliozko osaera izateko kideen gehiengo osoaren asistentzia izan beharko du eta horien artean derrigorrez egon behar dira lehendakaria, edo absente egonez gero haren ordezkaria, eta idazkaria, edo absente egonez gero haren ordezkaria. Batzordeak bertaratutako kideen gehiengo soilarekin lortuko ditu akordioak. Berdinketa gertatzen bada lehendakariaren botoak erabakiko du. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurkeztuko du jarraipen-batzordearen funtzionamendurako beharrezko laguntza tekniko eta administratiboa.

Zazpigarrena

Jarraipen-batzordeari bere funtzioak ondo betetzeko laguntza teknikoa emateko, I. akordioaren esparruan sortu zen Erakundeen Arteko Talde Teknikoa (EATT) mantenduko da. Talde hori akordio honetan parte hartzen duten erakundeen ordezkari diren eta erakundeek horretarako aukeratu dituzten teknikariek osatzen dute. Foru aldundien kasuan bi ordezkari aukeratu ziren, bata Berdintasun Organokoa eta bestea biktimei arreta emateko eskumena duen sailekoa.

Betetzen dituen funtzioen artean hauek azpimarra daitezke:

- a) Lan-ildoen eta jarraipen-batzordearen ardura diren gaien inguruan hausnartzea eta eztabaidatzea.
- b) Gai horien inguruko proposamenak, txosten teknikoak eta gomendioak egitea geroago aztertzeko eta, hala badagokio, jarraipen-batzordeak onartzeko.
- c) Jarduketa Koordinaturako Protokoloa eguneratzea bultzatzea, baita horren edukiak akordio hau indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen edo inguruabar berrietara egokitzea ere.
- d) Jarraipen-batzordeak kontuan hartzeko interes berezia duten eta agertuz doazen gai berriak identifikatzea eta proposatzea.
- e) Erakunde sinatzaileen koordinaziorako aldizka informazioa eskualdatzea.
- f) Erakunde sinatzaileen jardueraren eta koordinazioaren inguruan identifikatzen diren gorabehereri buruzko informazioa etengabe eta jaria kortasunez partekatzen saiatzea horien kudeaketa arintzeko.
- g) Hartu-emanetarako eta formakuntzarako hainbat esparru eta sistematako profesionalei zuzendutako urteroko topaketa bat antolatzea.
- h) Akordioaren edukien jarraipenerako eta ebaluaziorako urteroko txosten bat egitea, jarraipen-batzordeari onar dezan aurkeztuko zaiona. Txostenean erakunde sinatzaile bakoitzak Jarduketa Koordinaturako Protokoloan aurreikusten diren neurriak eta pautak eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzeko eta biktimen arreta eta babesa hobetzeko garatutako ekintzei erreferentzia egingo zaie eta, horrez gain, erakunde bakoitzak bere esku-hartze esparruko Jarduketa Koordinaturako Protokoloak betetze-mailaren balorazio bat eta protokolo horrekin lortutako aurrerapausoen eta emaitzen ebaluazio bateratu bat gehituko dira. Horretarako, erakunde bakoitzak jarraipen-batzordearen idazkaritzan bere esku-hartze esparruari buruzko jarraipen-eta ebaluazio-txosten bat bidaliko du dagokion batzordearen bilera baino hilabete bat lehenago. Era berean, txosten-eredu bat eta adierazle-sistema bat diseinatuko dira euskarria emateko.
- i) Bere ekintza-esparruan ematen zaion beste zeinahi funtzio.

Erakundeen Arteko Talde Teknikoak osoko bilkuran eta ad hoc osatzen diren lanerako azpitaldeetan lan egin ahalko du gehiago sakondu behar diren gai zehatzak lantzeko. Erakunde bakoitzari dagokio lanerako azpitalde bakoitza osatuko duten pertsonak izendatzea. Egokia dela irizten bada, alorrean adituak diren langileak parte hartzera gonbidatu ahalko dira.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arretari buruzko datuen bilketa eta hedapena hobetzeko lan egiten duen eta II. akordioaren esparruan finkatu zen Informazio Sistema Taldea (IST) mantenduko da.

EATTa gutxienez urtean bitan bilduko da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ordezkariak koordinatuta. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurkeztuko du EATTaren funtzionamendurako beharrezko laguntza tekniko eta administratiboa.

Zortzigarrena

Instituzioen arteko koordinaziorako talde bat sortuko da lurralde historiko bakoitzean foru aldundi bakoitzaren Organo eskudunak bultzatuta. Talde horren funtzioa batez ere konplexutasun berezia duten kasuetan erabakiak era bateratuan eta koordinatuan hartzea izango da, eta generoaren ikusmoldearekin, interseksionalitatearen ikuspegiarekin eta ahalduentzearen printzipioarekin bat datorren era oso eta koherente batean ekitea bermatuko du.

Bederatzigarrena

Akordio hau indarrean jartzeak 2009an sinatutako erakundeen arteko II. Akordioaren indarraldia bukatzea dakar.

Hamargarrena

Akordio hau sinatzen den egunaren hurrengoan sartzen da indarrean eta lau urte iraungo ditu; aho batez adostu ahalko da gehienez lau urte gehiago luzatzea edo iraungitzea.



*EAEn emakumeen aurkako indarkeria
matxistaren biktimei ematen zaien arreta
koordinatzeko erakundeen arteko III.
Akordioa*


**Printzipio gidariak.
Jarduketa Koordinaturako Protokoloa**

Aurkibidea

1. Printzipio gidariak	3
2. Jarduketa Koordinaturako Protokoloa	7
2.1. Helburuak	7
2.2. Jardun profesionala orientatu behar duten irizpideak	7
2.3. Esku-hartzen duten sistemak, erakundeak, operadoreak eta zerbitzu zehatzak	13
2.4. Ibilbidea indarkeriarik gabeko bizitza baterantz: lehentasunak eta koordinazio-jarraibideak ...	14
2.4.1. Koordinaziorako lehentasunak indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidean	14
2.4.2. Koordinaziorako jarraibideak indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidean	16
2.5. Sistema edo esparru bakoitzean jarduteko eta koordinatzeko pautak orokorrak	27
2.5.1. Gizarte-zerbitzuen esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	27
2.5.2. Osasunaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	41
2.5.3. Justiziaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	49
2.5.4. Poliziaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	60
2.5.5. Hezkuntzaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	69
2.5.6. Enpleguaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	77
2.5.7. Etxebizitzaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak	82
2.6. Arartekoaren erakundearen zeregina III. Akordioan	86

1. Printzipio gidariak

Printzipio gidariak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontrako akordio hau sinatzen duten erakunde publikoen edozein jarduketa gidatu beharko luketen oinarriak dira.



Giza eskubideen errespetua: segurtasuna, pribatutasuna eta adingabearen interes gorena

Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela aitortzen da nazioartean. **Indarkeriarik gabeko bizitza** baterako eskubideak bereziki galdatzen du euskal botere publikoek politika eta ekintzetan emakumeen aurkako indarkeria matxistak hartzen dituen formak saihesteko eta errotik kentzeko zeharkako ekintzak gehitzea.

Alde batetik, giza eskubideetan oinarritutako printzipioak berekin dakar biktimen **segurtasunari eta babesari** lehentasuna ematea haiei min handiagoa sortaraztea saihesteko. Haurrei, eta nerabeei ere edozein indarkeria motatik libre bizitzeko eskubidea berariaz aitortzen zaie. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen den egoerei aurre egiten dieten haurrez eta nerabeez gain, indarkeria matxista erabiltzen den ingurune batean egondako haur guztiak arreta, babes eta erreparazio egokia jasotzeko eskubidea dute. Behar bezalako erantzuna emateko eta biktimizazio sekundarioa sor dezaketen jarduketak saihesteko, operadore sinatzaileek ukitzen dituen indarkeria mota zehatz guztiak ezagutzen dituztela eta guztietarako arreta eskaintzen dutela bermatu behar dute eta akordio honen esparruan dauden jarduketak indarkeria horiei aurre egitean sortzen diren behar zehaztetara moldatzen dituztela.

Emakumeek eta beren seme-alabek aurre egiten dieten segurtasun arriskuak aldizka ebaluatu behar dira banan-banan kasu bakoitzerako arriskuak kudeatzeko neurriak proposenak zeintzuk diren ikusi eta horiek aplikatzeko. Ebaluazioa eta arriskuen kudeaketa aberatsagoa da hainbat esparrutako operadoreek parte hartzen dutenean (poliziala, soziala, judiziala, osasun-arlokoa...) eta erakundeak elkarlanean aritzen direnean ebaluazioaren ikuspegiak partekatzen. Era berean, garrantzitsua da emakumeek eta neska txikiak beren gaitasunetan oinarritutako banakako plan bat izan dezaten saiatzea, arriskuen kudeaketarako hainbat aukera dituen eta beren burua babesteko ahalmena bultzatzen duena.

Bestalde, akordio hau sinatzen duten erakundeek pertsona horien **konfidentzialtasuna, intimitatea eta pribatutasuna** mantentzen direla bermatzeko baldintza proposak ziurtatu behar dituzte. Biktimen berariazko baimen informatu librea dutenean bakarrik agerraraz dezakete informazio pertsonala¹ eta baimen hori bere borondatea eta autodeterminaziorako ahalmenarekiko errespetu osoa duen titulutzat hartu behar da (datuen lagapenaren bidez biktimen berebiziko interesen bat babestea bilatzen bada kenduta). Horrela, artatzeko erabiltzen diren espazio eta baliabide fisikoei arreta jarri behar zaie. Intimitate edo pribatutasun faltak biktimizazio sekundario prozesuak sor ditzake eta informazioaren tratamendu

¹ Datuak babesteko europar erregelamendu orokorrean eta 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan ezarritakoarekin bat etorri. Era berean, aipatu beharra dago Espainiako Auzitegi Gorenak ezartzen duela baimena izan behar dela laguntza emateko jarduketa guztietan, langile guztiei legez galdatzen zaien eskakizun etiko bat baita, eta duintasun pertsonalerako eta borondatearen autonomiarako oinarritzko eskubidetzat duela. Biktimak informatuta egoteaz gain, ingurune irisgarrietan baimena ulertu eta adierazi ahal izatea ahalbideratu behar da esku-hartze profesionaletan, behar izan ditzaken laguntzekin eta inongo oztoporik gabe. Horiek beharrezko baldintzak dira biktimek haien eskubideak zeharo baliatu ahal izateko eta askatasunez aukeratzeko eskubidea erabiltzea ziurtatzeko. Baimena baliozkoa izateko era librean eman behar da, inongo derrigortzerik gabe, borondatezkoa izan behar da, ezin du inongo eragin bidegaberik izan (pertsuasioa edo manipulazioa kasu) eta biktimaren borondatea eta lehentasunak lehenetsi behar ditu.

desegokiak ondorio larriak ekar ditzake biktimen segurtasunerako, baita artatzen dituzten pertsonenarentzako ere.

Era berean, **adingabearen interes gorena** gidalerro bat da ezartzen duena hurrei eta nerabeei eragiten dien erabaki bat hartu behar den guztietan, beren interesetan izan ditzakeen ondorio posibleak estimatu behar direla eta beren interesa beste edozeinenaren gainetik jarri behar dela, gurasoena barne. Puntu horri dagokionez, gogoratu behar da Haurren Eskubideen Hitzarmenak erabakiak hartzeko prozesu guztietan entzunak izateko eta beren iritzia adierazteko eskubidea aitortzen duela eta eskuragarri jartzen dituela hori egiteko modalitateak.

Genero-berdintasunaren sustapena:

Emakumeen aurkako indarkeria matxista **egiturazko genero-desberdinkerietan** oinarritzen den heinean, ezinbestekoa da gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren alde lan egitea, emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Desberdinkeria eta bereizkeria arazo horren erdigunean daude eta aldi berean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren funtsezko kausa eta ondorio dira. Horregatik genero-ikuspegia duten politika eta jardunbideak bermatzen dituen erantzun baten beharra dago.

Genero-ikuspegiaren integrazio gisa ulertzen da sistematikoki emakumeen eta gizonezkoen egoerak, baldintzak, asmoak eta beharrak kontuan hartzea; desberdinkeriak **saihestera** eta ezabatzea bideratutako helburu eta jarduketa zehatzak gehitzea, maila guztietan eta planifikazio, gauzatze eta ebaluazio fase guztietan berdintasuna bultzatuz.

Kontuan izan behar da askotan emakumeek ez dutela era esplizituan indarkeria jasaten dutela adierazten ez direlako horren jakitun edo ez direlako biktima gisa identifikatzen. Hori dela eta, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurreko erantzuna emateko —bereziki esplizituak ez diren **kasuak detektatzeko** era proaktiboan jarduteko— funtsezkoa da genero-estereotipo eta -hierarkiak, eta generoen arteko menpekotasun harremanak ulertzea, baita horien erroak eta ondorioak ere. Zentzu horretan, garrantzi berezia hartzen du hezkuntza-, osasun-, polizia-, lan- eta gizarte-arloko langileak era egokian **gaitzen** direla bermatzeak.

Horrela, genero-ikuspegiaren bidez, biktimekin egiten diren esku-hartzeak **generoen arteko harremanak** ulertzean eta emakumeen ahalduntzean oinarritzen dira; era horretan esku-hartzeak eraginkorrak izan daitezke bai emakumeak biolentzia zehatz batetik atera ahal izateko, bai eragiten dieten egiturazko indarkeriari eta indarkeria sinbolikoari buelta emateko.

Baliabideen irisgarritasuna eta bereizkeriarik eza:

Biktimei arreta ematen dieten zerbitzuen kopurua eta kalitatea nahikoa izan behar dira biktima-eskubidea duten guztiei sarbide unibertsala ziurtatzeko, horrek barne hartzen ditu emakumeak, beren seme-alabak eta beren menpeko beste pertsona batzuk.

Ziurtatu behar da arretarako sistemak **baliabideetarako sarbidean** ez duela bereizkeriarik egiten hauen arabera: egoera zibila, orientazio sexuala, genero identitatea, adina, osasun-egoera, sinesmenak edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, migratzaile-estatusa edo egoera administratiboa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala, edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial. Bereizkeria eza irisgarritasun fisikoaren, psikikoaren, ekonomikoaren eta linguistikoaren arloetan kontuan hartu behar da.

Bereziki kontuan hartzekoa da administrazio elektronikoa hobesten den testuinguru batean arrakala digitalak indarkeria matxisten biktimengan duen eragina.

Era berean, akordio honen esparruan garatzen diren jarduketa guztiak EAEren lurralde-aniztasuna kontuan hartuz diseinatuko dira, emakume guztiak eta beren seme-alabek horietara iritsi ahal izan daitezen, EAEko zein-nahi tokitan bizi direla ere.

Gainera, beharrezko neurriak hartuko dira emakume guztiak eta beren seme-alabek benetan eskubideak baliatu ahal izateko. Hori bete dadin arreta berezia jarriko zaie laguntzara sarbide osoa izatea zailtzen duten egoera pertsonal eta sozialei. Ildo horretatik, aipagarria da honako hauek izan dezaketena **egoera zail edo zaurgarriagoa**: ezgaitasun fisiko, sentsorial edo intelektualean bat edo gaixotasun mentalen bat duten emakumeek, migratu duten eta gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeek, horien artean etxerik gabekoek, eta beren seme-alabek.

Irisgarritasunerako eta diskriminazio ezerako garrantzitsua da halaber azpiegituren diseinuan haurtzaroko eta nerabezaroko behar zehatzak kontuan hartzea. Haurrentzako egokiak diren espazioak eskaintzea garrantzitsua da beti eta are gehiago indarkeria-egoerei heltzen zaienean. Horrek esan nahi du haurrak eta nerabeak komunikatzeko moldatutako erremintak dituzten leku seguru eta fidagarriak izatea, non eskubideak benetan baliatzen laguntzen den.

Gogoratu behar da autonomia baliatzen (komunikatzeko zailtasunarekin lotuta edo gizarte-sinesgarritasunarekin) zailtasun handienak dituzten pertsonen kasuan (ezgaitasun intelektualean bat edo gaixotasun mental larriren bat duten pertsonena, adingabeena, etab.) zaurgarritasuna larritu egiten dela eta egoera horiek ikusezin bihurtzen dituzten faktoreek gora egiten dutela eta, ondorioz, pairatutako indarkeria detektatzea eta egoera horretatik ateratzea zaildu egiten dela.

Kaltearen erreparazioa norbanakoarengan eta gizartean:

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa den aldetik, biktimeen eskubidea da kalte-erreparazioaren printzipioa akordio honen esparruan ezartzen diren jarduketa guztietan zeharka txertatuta egotea.

Erreparazioarako eskubideren oinarritzko elementuak (kalte-ordainketa, errekupeazio osoa, egiaren zabalkuntza eta errepikatuko ez den bermea) **indarkeriak norbanakoan eta gizartean uzten dituen sekuelak** kontuan hartuz bete daitezke. Norbanakoaren mailatik, eragin fisikoak, psikikoak, sexualak, sozialak, ekonomikoak, lanekoak, etxebizitzakoak... artatu behar dira emakumeek indarkeriatik irteteko prozesuari buru emateko. Maila estukturaletik, birbiktimizazioa eta estigmatizazioa saihestuz egin daiteke erreparazioaren alde bide hauetatik: egia zabaltzen dela ziurtatzeko biktimei aintzatespena eta ahotsa emanez, ahalduz bultzatuz bai beren buruarekin bai era kolektiboan, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatuz. Edonola, funtsezkoa da biktimei entzutea nolako erreparazioa nahi duten jakiteko.

Araoari osotasunean aurre egiteko garrantzitsua da indarkeriak sortzen dituen ondorioak eta gizarteko kalteak kontuan hartzea, emakume bakoitzak behar duen banakako laguntzarekin batera. Sekuelen maila sozialari dagokionez, garrantzia du gizarte osoaren inplikazioa bultzatzea eta horrekin batera, komunitatean emakumeen inklusio soziala erraztuko duen eta haien laguntza-sareak indartzen lagunduko duen komunitate-lana bultzatzea.

Printzipio horrek **kaltea errepikatzen ez dela** ziurtatzeko formulak esploratzea ere eskatzen du, emakume guztiak indarkeriarik gabeko bizitza bat dutela ziurtatzeko indarkeria hori sortzen duten pertsonetan arreta jarritz. Zentzu horretan, horretarako eskumena duten erakunde sinatzaileek indarkeria erabiltzen duten pertsonak ikertzeko eta erantzukizunak exijitzeko beharrezko mekanismoak dituztela ziurtatu behar dute.

Horrela, prebentzioarekin lotuta, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak, 2022ko martxoaren 3ko aldaketako prebentzioari eta sentsibilizazioari buruzko 52.4. artikuluan honako hau ezartzen du: "euskal administrazio publikoek bermatu behar dute badaudela programak, bai adingabeentzat, bai helduentzat, emakumeen kontrako indarkeria baliatzen dutenei pertsonen arteko harremanetan indarkeriarik gabe nola jokatu erakutsiko

dietenak, berriz ere indarkeriara ez jotzeko eta indarkeriazko jokabide-eskemak aldatzeko; eta bermatu behar dute badaudela berreziketa-programak delitu horien egileek ez dezaten berriz halakorik egin”.

Etengabeko hobekuntza eta kontuak ematea:

Erakunde publikoei, bereziki erantzukizun publikoko zerbitzuen arloan, gardentasuna eta kontu-ematea bermatzea galdatzen zaie. Horretarako garrantzitsua da eskaintzako zerbitzuei buruzko **datuak** etengabe eta zehaztasunez jasotzea, datu horiek aztertzea eta horien ezagutza publikoa bultzatzea.

Datuak jasotzeak eta kalitate-estandarretan oinarritutako adierazleen bitartez aztertzeak² ahalbideratzen du ziurtatzea noraino betetzen den **kalitatezko** zerbitzuak eskaintzeko betebeharra puntu hauen arabera: erabilgarritasuna, irisgarritasuna, moldagarritasuna, egokitasuna, segurtasunaren lehenespena, baimen libre eta informatua eta konfidentzialtasuna, komunikazio eta parte-hartze eraginkorra, datuen bilketa eta informazioaren kudeaketa, eta koordinazioa.

Indarkeria matxistaren biktimek kalitatezko arreta jasotzen dutela ziurtatzeko ezinbestekoa da sistema eta maila guztien funtzionamenduan etengabeko hobekuntza egotea. Etengabe hobetuz funtzionatzeak berekin dakar zerbitzuak, politikak eta koordinazioa etengabe berrikustea edo **ebaluatzea**, emaitzetara gehiago bideratutako orientazioarekin akats posibleak aurkitzeko, konponbideak bilatzeko, hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko, eta, lehentasunez, egitez edo ez-egitez kalitatea gutxitzen duten edo biktimizazio sekundarioa eragin dezaketen elementu guztiak saihesteko.

Era berean, erakunde sinatzaileek **berrikuntza** sustatu behar dute zerbitzuen hedadura zabaltzeko formula berriak bilatzearekin eta jarduketan eragina hobetzearekin harremana baitu.

² Nazio Batuen Indarkeria jasaten duten Emakume eta Neskatoentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko Baterako Programa Globala:
<https://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2015/12/essential-services-package-for-women-and-girls-subject-to-violence>.

2. Jarduketa Koordinaturako Protokoloa

Jarduketa Koordinaturako Protokolo honek bost atal ditu:

- Lehenengo protokoloaren helburuak zehaztuko dira.
- Gero, akordioa sinatzen duten erakundeen jarduketak orientatu behar dituzten irizpideen deskribapena egingo da.
- Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria matxista egoeretan esku-hartzen duten sistemak, erakundeak, operadoreak eta zerbitzuak aurkeztuko dira.
- Segidan sistema barruko eta sistemen arteko lankidetzarako pautak nagusiak zehaztuko dira biktimek indarkeriarik gabeko bizitza baterako ibilbidean pasa dezaketen momentu bakoitzarekin lotuta.
- Azkenik, akordioak ukitzen duen esparru edo sistema bakoitzerako jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorren deskribapena egingo da, horietako bakoitza zehaztasun handiagoz ezagutzeko: gizarte-zerbitzuak, osasuna, justizia, polizia, hezkuntza, gizarte- eta lan-esparrua eta etxebizitza.

2.1. Helburuak

Jarduketa Koordinaturako Protokoloaren helburu nagusia EAEko erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxista egoeren aurrean era eraginkor eta koordinatua esku-hartzea lortzea da, biktimei indarkeria matxistarik gabeko bizitza on bat lortzen laguntzea azken helburu izanik.

Zehatzago hauek dira Jarduketa Koordinaturako Protokoloaren berariazko helburuak:


- EAEEn biktimei eta biziraun duten pertsonen detekzioan, arretan, babesean, errehabilitazioan eta erreparazioan esku-hartzen duten erakundeetatik emakumeen aurkako indarkeria matxista egoerei era homogeneo, koordinatu eta unibokoan erantzutea.
- Hainbat erakundetako jarduketak indarkeria matxista ulertzeko ikuspegi partekatu bat bultzatzen duten ekiteko printzipio eta irizpide komun batzuekin bat etorraraztea.
- Biktimei behar anitzak era osoan artatzea esparru hauetatik: osasuna, polizia, epaitegiak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza eta laneratzea eta gizarteratzea.
- Hainbat esparrutatik detekzio goiztiarra eta beharren diagnostika egitea bultzatzea esplizitatu gabeko emakumeen aurkako indarkeria kasuak era proaktiboan identifikatzeko eta egoki bideratu ahal izateko.
- Erantzunen kalitatea hobetzea eta birbiktimizazioa ekiditea.
- Gabeziak identifikatzea jardun profesionalaren eta koordinazioaren disfuntzioak aztertzea arreta-prozesuak hobetzeko.

2.2. Jardun profesionala orientatu behar duten irizpideak

"Gizarte jardun guztien helburua lasaitzea, babestea, esperantza- eta proiektu-iturri diren gaitasunak eta loturak sortzea da"³. Biktima neurri guztien erdialdean kokatuko duen kalitatezko arreta oso bat lortzeko funtsezko elementua da hartzen den jarrera; jarrera horrek, hain zuzen, zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen, zerbitzuen horniduraz arduratzen diren egitura profesionalak sortzen dituztenen onurarako eta, orokorrean, herritarren onurarako esku-hartzerik egokiena zein den aztertu behar du. Maiz esku-hartzeak testuinguru konplexuetan gertatzen dira, ziurgabetasuna eta kontraesanak dituztenetan eta bereziki garrantzitsua da erabakiak hartzerakoan lehenago aurkeztutako printzipioak kontuan hartzea, baita ondoren aurkeztuko diren jardun profesionalerako irizpideak ere.

³ Román Maestre, Begoña. *Etika eta gizarte-zerbitzuak*. Herder, 2016.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek artatzen dituztenek indarkeria horren ezaugarri zehatzak kontuan hartuz, jardunbideak egokiak direla ziurtatzeko, bete beharko lituzketen **irizpideak** dira.



Birbiktimizazioaren prebentzioa:

Erakunde publiko guztietan bermatu behar da emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiten diotenenek horietara jotzean arreta osoa jasotzeko eta eskubideak zeharo baliatzeko aukera izango dutela. Hala ere, batzuetan erakundeetan biktimek esperientzia traumatikoei sufrimendu handiagoa gehitzen dieten jardunbide desegokiak ondorioz, erakundeetan birbiktimizazioa edo biktimizazio sekundarioa gerta daiteke.

Biktimizazio sekundarioa **indarkeria instituzional** mota bat da eta egitezkoa zein ez egitezkoa izan daiteke edo omisioz ere bai, eskubideen jakitun ez izateagatik, genero-ikuspegi faltagatik edo planteamenduan haurtzarora nahikoa kontuan ez hartzeagatik, formakuntza edo espezializazio egokiaren faltagatik, etab. Gainera, biktimizazio sekundario izan daitezke eskubideez baliatzea atzeratzen, zailtzen, eragozten, arriskuan jartzen edo urratzen dituzten **jardunbide desegoki edo urriak**. Edonola, ziurtatu behar da jarduketek ez dutela zuzenean edo zeharka nahi denaren kontrako eragina edo eragin kaltegarria sortzen.

Akordio honen esparruan egiten diren jarduketetan biktimizazio sekundario-prozesuak saihesti behar dira, jarduketa koordinatuak diseinatu, eginbide errepikakorrak saihestuz, gutxiengo esku-hartze arina eta espezializatua izateko irizpideak aplikatuz, estereotiporik gabeko eta zuzeneko eta zeharkako bereizkeriarik gabeko arreta eskainiz. Horrek suposatzen du zerbitzuak ematen dituztenek era aktiboan entzun behar dutela, biktimek kezka eta esperientziak baliozkotu behar dituztela (bai emakumeenak bai beren seme-alabenak), hori guztia haiei errua leporatu gabe eta epaitu gabe kontatzen dutena serio hartuta, eta enpatia adierazita, haien egoera ulergarria dela adierazita, duintasunez tratatuak izateko eskubidea errespetatuz. Era berean, gogoan izan behar da biktimek eta erasotzailearen arteko bitartekaritza berariaz debekatuta dagoela emakumeen aurkako indarkeria matxista-kasuetan, aplikatzen den araudian ageri denez.

Indarkeria horri aurre egiten diotenei eskubideak benetan baliatu ahal izatea ziurtatzeak berekin dakar emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan EAEko erakunde publiko guztietan arreta ematen dieten langile guztiei zuzendutako emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko **formakuntza**-programak martxan jartzea eta horiei jarraitasuna ematea.

Ahalduntzea: autonomia eta autodeterminazioa

Erakunde sinatzaileek esku-hartzeak moldatuko dituzte emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, dibertsitatea kontuan hartuz. Ahalduntzea ez da erreminta bat soilik, jardun profesionalaren jomuga ere bada.

Ahalduntze gisa ulertzen da emakume eta neska txikiak beren generoagatik pariatzen duten desberdinkeria-eta bereizkeria-egoera estrukturalaz banaka eta kolektiboan kontziente bihurtzeko prozesua. **Norbanakoaren mailan**, emakume bakoitzak egiten dituen prozesu pertsonalak dira, bere burua indartzeko eta erremintak garatzeko bizitzari buruzko erabaki estrategikoak hartzea ahalbidetzen dion gaitasuna, boterea eta kontrola lortzeko. Ikuspuntu **kolektibo** batetik, emakumeek elkarrekin lan egiten dute banaka lortuko zuketena baina eragin handiagoa lortzeko eta bizitzako esparruetan generoagatik desberdinkeria eta bereizkeria indartzen eta iraunarazten duten egitura eta erakundeak eraldatzeko. Zentzu horretan, emakumeen ahalduntze baldintza eta bermea da munduko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera bideratutako gizarte-erlaketan.

Berekin dakar indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei laguntzea genero desberdinkeria estrukturalaren esparruan bizi duten egoeraren kontzientzia hartzen; gaitasunak indartzen; eskura dituzten aukerak

aztertzen; erabakiak hatzen eta errespetatzen; autoestimarekin, autonomiarekin, askatasunarekin eta indarkeriarik gabe bizi ahal izateko bizitza hobetzeko dituzten aukeretan konfiantza garatzen.

Ahalduntzeak interpretazioa anitzak izan ditzake testuinguru historiko, sozial eta kulturalaren arabera. Gainera, ahalduntzeak esanahi desberdina du emakume bakoitzarentzat bizitzako momentu ezberdinetan eta esku-hartzea derrigorrez horretara egokitu behar da. Ahalduntzearen helburua, norbanakoaren mailan, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak beren prozesuetako protagonista izatea da eta, azken finean, bizitzen kontrola berreskuratzea. Neurrien antolaketa aproposa kasu bakoitzean autonomia pertsonala edo **emantzipazioa** bultzatzen ahalegindu beharko da, baita beren buruari laguntzeko eta laguntza eskatzeko gai sentitzea bultzatzen ere.

Zentzu horretan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimekin egiten den esku-hartzea erabakiak era aske eta informatuan hartzen laguntzera bideratu behar da. Biktimek eginkizun aktiboa izan behar dute erabakietan eta segurtasuna bermatzen dieten neurrien aplikazioan, eta horretarako informatuta egoteko eskubidea dute eta **era autonomoan erabakitzeko** eskubidea ere bai. Ezagutza handiagoan oinarritutako erabakiak hartzeko aukera izan dezaten garrantzitsua da testuingurua ezagutaraztea eta azalpen zehatz eta ulergarriak ematea esku-hartzen duen operadore bakoitzaren prozesuari, helburuari buruz; pauso bakoitzaren baliagarritasunari buruz, etab.

Horrekin guztiarekin, haiek izan behar dira beren bizitzako egitamuari buruz eta planteatzen zaizkien aukeren ondorioei buruz hausnartu behar dutenak eta hausnarketa horien ondorioz hartzen dituzten erabakiekiko **errespetua jasotzeko** eskubidea dute (autodeterminaziorako eskubidea), momentu zehatz batean atzera egitea edo zerbitzuak jasotzeari uko egitea berekin dakarten erabakiekiko barne. Planteamendu horrek derrigorrez biktimei enpatiarekin era aktiboan entzutea suposatzen du, haien testuingurua kontrolak eta beldurrak baldintzatzen duela ulertuz eta kontuan hartuz egoera horren ondorioz, batzuetan baieztapenetan eta jokoeretan koherentzia falta dutela eman dezakeela. Indarkeriatik irteteko prozesuen konplexutasuna ulertu behar da, lagunduz, emakumeen erabakiei balioa emanaz eta estereotipoek eta aurreiritziek baldintzatutako joerak saihestuz. Emakumea prozesuan zehar hartuz doan erabakiak epaitzea ekiditea funtsezkoa da, alde batetik, emakumearen autonomia eta autodeterminazioa bermatzeko eta bestetik, konfiantzazko espazioak sortzeko.

Autonomia (fisikoa, intelektuala, kognitiboa edo komunikatiboa) edo bere burua kudeatzeko gaitasuna murriztuta izateak ez du esan nahi emakume helduak erabakiak era autonomoan hartzeko gai ez direnik eta kasu horietan ere ez dira baimenik gabeko esku-hartzeak egin behar. Neurriak hartzen saiatu behar da ahalik eta autonomia handienerako eskubidea zain dadin eta bizi duten indarkeriari aurre egiteko prozesuan errealitatea itxuratzen eta ahalbidetzen dien guztian parte-hartze aktiboa izan dezaten.

Era horretan, zerbitzuak eskaintzea ezingo da biktimek egintza legalak hasteko borondatea izatearen edo delitugilearen kontra lekukotasuna egiteko borondatea izatearen menpe jarri, egintza judizialek bideratutako zerbitzuetan izan ezik, horrela aurreikusten baitute indarkeria matxistaren biktimei zerbitzuak eta baliabideak eskaintzen dizkioten administrazio eta erakunde guztientzako lotesle diren Istanbulko Hitzarmenaren 18. artikulua eta otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 50.5. artikulua.

Interseksionalitatea:

Emakumeen aurkako indarkeria matxistak emakume guztiei eragin diezaike, hala ere, indarkeriaren aurreko egoera desberdina izan daiteke arrazaren, kolorearen, jatorri etnikoaren, hizkuntzaren, erlijioaren, iritzi politikoaren edo beste iritzi batzuen, gutxiengo nazional bateko kide izatearen, ondarearen, jaiotzaren, desgaitasunaren, adinaren, orientazio sexualaren, identitate sexualaren, familia-konfigurazioaren edo eskubideak benetan baliatzeko desberdinkeria edo bereizkeria iturri izan daitekeen beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialen arabera. Elementu horietatik hainbatek elkar gurutzatzen dutenean emakumeek **bereizkeria-esperientzia konplexu eta paregabe** egiten diete aurre.

Ikuspegi interseksionalak dakar kontuan hartzea nola eragiten dioten elkarri —maila anitzetan eta askotan aldi berean— sexuak eta gainontzeko faktoreek eta nola sortzen diren identitate gainjarri eta interseksionalak, baita elkarrekin lotutako askotariko botere- eta zapalkuntza-ardatzak eta -egoerak ere. Identitatea zeharo ulertu eta kontuan hartu ahal izateko, faktoreek eta zapalkuntzek elkar gurutzatzen duten neurrian, faktoreak batera, aldi berean eta bat eginda aztertu behar dira banatutako kategoria independenteen batura gisa aztertu ordez.

Ikuspegi horrek hainbat desberdinkeriek elkar gurutzatzen duten puntu batean dauden pertsonen beharrezko arreta eskaintzen ez zaienean sortzen diren pribilegio-dinamikei eta bazterketei heltzen die. Horrek eskubideen eta aukeren irisgarritasunean eragina du bizitzako esparru guztietan.

Akordio honen esparruan martxan jartzen diren jarduketek emakumeek izan ditzaketen **egoera- eta bereizkeria-aniztasuna** kontuan hartzen duen ikuspegi interseksionala txertatu behar dute. Ikuspegi horrek berekin dakar emakumeen dibertsitatea aitortzea; bizi diren gizarte- eta kultura-testuinguruko desberdinkeria estrukturalak ezagutzea; eta haien identitateari aldi berean eragiten dioten faktore guztiak kontuan hartzea. Gainera, ikuspegi hori hartzeak zerbitzuak biktimen behar eta ikuspuntu anitzetara moldatzeko konpromezua izatea esan nahi du.

Pertsona erdialdean jartzen duen arreta: pertsonalizazioa, parte-hartzea eta arretaren jarraitasuna

Arreta pertsonalizatuaren alde apustu egiteak berekin dakar hartzailen eskubideak, beharrak, desirak edo lehentasunak erdialdean jartzea eta, ondorioz, zerbitzuak eta esku-hartzeak beharren dibertsitatera moldatzea. Zentzu horretan, garrantzi berezia du ikuspegi interseksional batetik kontuan hartzea bereziki zaurgarriak diren egoerak, baita adingabeei dagozkien **behar zehatzak** ere.

Arretak biktime bakoitzaren inguruabarrak eta beharrak kontuan hartu behar ditu, eta horiei erantzuteko eta laguntzeko aukera-sortak nahiko zabaltasun izan behar du biktimak haien inguruabar zehatzetara hoberen egokitzen dena iritsi ahal izateko.

Pertsonalizatutako arretarako ikuspegi pertsonalizatu batek kasu bakoitzeko beharrak, itxaropenak, arriskuak eta zaurgarritasunak ezagutzen eta kontsultatzen direla bermatu behar du. Horrela, esku-hartze prozesuak horietan hartzailak parte har dezan diseinatu behar dira. Gainera, prozesu horiek pertsona bakoitzak eskubideak baliatzeko eta bizi-kalitate eta gizarte-inklusio maila hobea lortzeko behar, lehentasun eta beharrezko intentsitate-mailara doitutako laguntza gisa ulertu behar dira. Zerbitzuek kasuan kasuko erantzuna emateak duintasuna errespetatzen laguntzen du eta biktimizazio sekundarioa murrizten.

Ikuspegi hori hartzeak esan nahi du hartzailak, emakumeak eta seme-alabak, **entzunak izateko** eta gaitasunen, adinaren, heldutasunaren eta garapen ebolutiboaren arabera kezak eta beharrak adierazteko aukera izan behar duten subjektu aktibotzat hartzea. Hori betetzen dela ziurtatzeko, zerbitzuak eskaintzen dituztenek trebakuntza egokia izan behar dute.

Erakunde sinatzaileek akordio honen esparruan gauzatutako jarduketan diseinuan eta ebaluazioan talde hauen parte-hartzea bultzatuko dute: emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimena, talde feministena eta emakume taldeena eta indarkeria honen aurrean zaurgarriagoak diren taldeena.

Laguntzarako beharrak aldakorrak diren heinean, esku-hartze prozesuek ere hala izan behar dute. Biktimen errekupeazio-ziklo osoan zehar ematen den arreta-prozesuan hainbat langilek esku-har dezakete, aldi berean edo momentu ezberdinetan. Langile horiek, arreta jarraitua dela ziurtatzeko, pertsonaren eta bizi-ziklo osoan zehar izango dituen beharren ikuspegi oso eta partekatua hartu behar dute. Hori lortzeko ezinbestekoa da koordinazioa eta lankidetzak, ez erakundeen artekoa bakarrik, baita komunitatearen esparruan lan egiten duten operadore eta elkarteena ere; gainera, funtsezkoa da horien artean **ikuspegiak, printzipioak eta politikak bat etorraraztea**.

Arreta osoak berekin dakar biktimizazio sekundariorako arriskua txikituko duten eta biktimen errekupeazio-prozesuaren bizipenean eta ondorioetan eragin positiboa izango duten informazio-trukaketarako eta bideraketarako prozesu eta erreminten homogeneizatorako esfortzu bateratua egitea.

Lan komunitarioa: prebentzioa eta elkartasunak

Ikuspegia komunitarioak hartzeko ezinbestekoa da pertsonetan oinarritutako lan-esparruak ezartzea komunitate-, talde-, familia- edo norbanako-mailan. Lan-esparru horien helburu izan behar da pertsonak ahalik eta autonomia handiena izatea, zailtasunak gainditzea, ongizatea lortzea eta testuinguru zehatz bakoitzean desberdinkeriak baldintzatzen dituzten kausak eraldatzea. Ikuspegi horren xedea ardurak bideratzea baina haratago doa eta esku-hartzean parte hartzen duten operadore guztien koherentzia eta koordinazioa bultzatzea da, baita tokiko pertsonak eta erakundeek parte-hartzea ere, ahal bada pertsonen ohiko ingurunean gertuko arreta ahalbidetzeko eta jarraitasuna bermatzen duten arreta-plan oso eta pertsonalizatuak eskaintzeko.

Horrela, ikuspegi komunitarioan **ikuspegi prebentiboarekin** lan egitearen garrantzia azpimarratzen da, egoerak azaldu baino lehen ekinez edo antzematen direnean berriz gerta daitezen saihestuz. Erakunde sinatzaile guztiei, eta bereziki ekintza lurraldean zehar sakabanatuagoa dutenek eta herritarrekin hurbilagoak direnei (eskolei, lehen arretako osasun-zentroei, polizia-etxeei, Lanbideren bulegoiei...) indarkeria-egoeren sentsibilizazioan eta detekzio goiztiarrean inplikatzeko galdatzen zaie.

Zerbitzu publikoen esku-hartzeak biktimen ahalmenak indartzea helburu badu ere, kontuan hartu behar da aldi baterako laguntza dela. Gainera, ikuspegi komunitarioa hartzeak esan nahi du **beste erakunde batzuekin eta** emakumeen ahalduzaren alde lan egiten duten **inguruneke beste gizarte-eragile batzuekin elkartasunak** bultzatzea eta ehuntzea: berdintasun sailak, emakumeen etxeak, ahalduz-eskolak, emakume-elkarteak, biktimen elkarteak, etab. Gizarte-eragile horiek erakundeetan egiten den lana indartzen duten eta horri jarraitasuna ematen dioten laguntza-sare informalak eraikitzen lagun dezakete, indarkeria-egoerei aurre egin dietenen errekupeazioari eta gizarteratzeari mesede egin diezaioke, eta azkenik haien erreparazioan ere lagun dezakete.

Lehentasunezko arreta, eraginkortasuna eta arintasuna:

Indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, euskal administrazio publikoetan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak artatzeko prozesuan egokitzat jotzen diren plazen eta zerbitzu publiko eta kontzertatuen sarbidean **lehentasunezko arreta** jaso behar duen kolektibotzat hartu behar dira.

Akordio honen esparruan egiten diren jarduketetan antolaketa eraginkorra eta arina dela bermatu behar da agora horien urgentziak eskatzen duen berehalakotasunarekin ekiteko.

Administrazioen arteko barne-koordinazioa lehenetsiko da prozedurak arintzeko, esku-hartzeetan bikoiztasunak edo hutsunean saihesteko. Adierazgarria den **informazioa transmititzea** ahalbideratuko da maiz erabiltzen den dokumentazioa barne (NANA, epai judizialak, mediku- eta gizarte-txostenak, poliziaren aurreko salaketak...), betiere biktimen baimenarekin eta Datuen Babeserako Lege Organikoan aurreikusitako tratamendu- eta zaintza-prozesu bereziekin bat etorritik⁴.

Erantzukidetasuna eta erantzunaren osotasuna:

Akordio honek aipatzen duen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arretak indarkeria egoeratik eratorritako behar anitzak aseko ditu. Horretarako indarkeria agertzen den era anitzak kontuan

⁴ 2016ko apirilaren 27ko datuak babesteko europar erregelamendu orokorrean eta 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan ezarritakoarekin bat etorritik. Halaber, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 54.2. artikuluan aipatzen dira espedienteen kudeaketa integratua, biktimen baimen informatu osoa koordinakuntza eta bermea.


hartuko ditu, baita norbanakoaren eta gizartearen inguruabarrak, eta kasu bakoitzean bat egiten duten behar zehatzak ere. Indarkeria-egoeren konplexutasuna eta horrek zeharkatzen eta eragiten dituen bizitzako alderdien ugaritasunak hainbat sistemen eta erakunde-mailaren parte-hartzea eskatzen duen erantzun holistikoa galdatzen du.

Giltzarri da erantzukidetasunean oinarritutako ikuspegia hartzea eta arretaren osotasuna ziurtatuko duen operadoreen, sistemen edo esparruen arteko (osasunarena, poliziala, hezkuntzarena, judiziala, gizarte-zerbitzuena...) eta zenbait administrazio-mailen arteko (autonomikoa, forala eta tokikoa) **jarduketa koordinatuak eta lankidetzak** sustatzea. Gainera, koordinazio hori funtsezkoa da erantzunak eraginkorrago bihurtzeko eta baliabideen erabilera arrazionalera gehiago egokitzeko.

Akordio hau sinatzen duten erakundeak eskaintzen dituzten baliabide eta zerbitzuen kudeaketaren koordinazioa pixkanaka indartzera konprometitzen dira biktimen beharrak eta eskubideak erdialdean jarriko dituen, eskaintzen duen arreta gehiago pertsonalizatzen duen eta birbiktimizazioa saihesten duen **erantzun osoagoa** eskaintzea lortzeko.

2.3. Esku-hartzen duten sistemak, erakundeak, operadoreak eta zerbitzu zehatzak

Indarkeriatik ateratzeko ibilbidean zehar biktima bakoitzak izan ditzakeen beharrak ezberdinak eta aldakorak dira testuinguruaren eta faktore sozial eta pertsonalen arabera, era berean, indarkeriak haien bizitzan izan ditzakeen eraginak ere ezberdinak izan daitezke.



Aurrekoaren harira, behar horiek asetzeko zerbitzu eta programetan (berariazkoak izan edo ez) hainbat operadorek esku hartzen dute eta horien ardurak hainbat sistema edo esparrutako erakundeek dute: gizarte-zerbitzuek, justiziak, poliziak, osasunak, hezkuntzak, etxebizitzak, enpleguak.

Hurrengo eskema honek esku-hartzen duten operadore guztien ikuspegia eskaintzen du akordioaren erakunde sinatzaileak kontuan hartuz.

ERANTZUNETAN NAGUSIKI ESKU-HARTZEN DUTEN SISTEMAK, ERAKUNDEAK, OPERADOREAK ETA BERARIAZKO ZERBITZUAK

Sistema	GIZARTE-ZERBITZUAK	POLIZIA	JUSTIZIA	OSASUNA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA	ETXEBIZITZA
Erakundeak	Eusko Jaurlaritzza (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, udal txekak	Eusko Jaurlaritzza (Segurtasun Saila)	Eusko Jaurlaritzza (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), BJKN, Fiskaltza, Legelarien Euskal Kontseilua	Eusko Jaurlaritzza (Osasun Saila), Euskadiko Sendagileen Kontseilua	Eusko Jaurlaritzza (Hezkuntza Saila)	Eusko Jaurlaritzza (Lan eta Enplegu Saila)	Eusko Jaurlaritzza (Etxebizitza Saila)
Operadoreak	Udalen gizarte-zerbitzuak, indarkeria matxistaren biktimei artatzeko foru-aldundien gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak koordinatzeko zerbitzuak	Ertzaintza eta Udaltzaingoa	Epaitegiak, Fiskaltza, BLZ, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua, familia-elkargunak, abokatutzak elkaragoak...	ESlak, lehen-arretako osasun-zentroak, ginecologia, osasun mentala, ospitalizazioa, larrialdiak...	Ikastetxeak (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, hezkuntza berezikoak, hezkuntza ez-arautukoak, hezkuntza ikuskaritza, laguntza-zerbitzuak; UPV-EHU...)	Lanbide eta zentro laguntzaileak	Etxebide eta Alokabide
Berariazko zerbitzuak	Egoitza-harrera; arreta soziojuridikoa, arreta psikosoziala, esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala, sexu-indarkeriaren krisi-zentroa, ordainketa bakarreko laguntza, biktima-izaeraren egiaztapena, 24 orduko telefono bidezko arreta (SATEVI)	EI/GI taldeak; Atempio/Berria; Violen, EI/GIak baloratze erreminta, eskolta-zerbitzuak	Zurekin-BZL programa, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia, genero-indarkeria kasuetarako Fiskaltza, ofiziozko txanda espezializatua, Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroa	Lesioen parteak	Genero-indarkeriaren biktimentzako beka espezifikokoak, ikastetxe-aldaketa, matrikulen ordainketaren salbuespena	Lanbideko tutore espezializatuak: LEA, DSBE, BGD	Gietarako ekintza positiborako neurriak Etxebide eta Alokabiden

Gainera, garrantzitsua da gogoan mantentzea behar horiek asetzeko ezinbesteko eginkizuna dutela prebentzioarekin eta detekzioarekin lotutako jarduketak egiten dituzten **gizarte-eragileek eta bestelako operadore** batzuek: berdintasun sailak, emakumeen etxeak, ahalduntze-eskolak, emakume-elkartek, gazteen eta kulturaren arloko hornikuntzak eta elkarteak, etab. Operadore horien jarduna funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeria matxistari eta horren biktimei ematen zaien erantzun orokorrean, askotan aurreko eskemako erakundeen jarduketa osatzen edo indartzen baitute.

Biktimei eskaintzen zaien erantzunaren kalitatea handiagoa izango da operadore horien arteko lankidetzaren bat eta egokiagoa izan. Momentu batean biktimen beharretako batzuei erantzuteko operadore horietako hainbat ekiten ari direnean, ezinbestekoa da ondo koordinatzen direla bermatzea eta horietakoren batek beste batek ekitea egokia dela deritzon biderapena egokia egiten dela bermatzea.

2.4. Ibilbidea indarkeriarik gabeko bizitza baterantz: lehenetsunak eta koordinazio-jarraibideak

Printzipio gidariekin bat etorritik, biktimen eskubideak eta beharrak erdialdean jarri behar dira arreta pertsonalizatuagoa eskaintzen duen eta birbiktimizazioa ekiditen duen erantzun osoago bat lortzeko.


Indarkeriarik gabeko bizitzaranzko ibilbidean biktimek behar eta lehenetsun zehatz batzuekin lotutako hainbat momentutik pasa daitezke. Une horietako bakoitzean beharren erantzunak operadore batzuk galdatzen dituzte beste batzuk baino neurri handiagoan.

Lehen atal honetan, indarkeriarik gabeko ibilbideko momentu eta lehenetsun horiek aurkezten dira kasu bakoitzean esku-hartzen duten operadore nagusiekin batera eta ondoren, koordinaziorako momentu eta lehenetsun horietako bakoitzarekin lotuta operadoreen arteko koordinaziorako jarraibideak deskribatzen dira.

2.4.1. Koordinaziorako lehenetsunak indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidean

Hemen aipatzen diren momentu eta agertokiak ez dute zertan denbora-sekuentzia lineala jarraitu eta biktima guztiak ez dira beti guzti horietatik pasatzen. Haien artean bereizten dira horietako bakoitza **koordinazio-lehenetsun** zehatz batzuekin lotuta dagoelako eta bakoitzean operadore eta sistema zehatzak nagusitzen direlako.

Indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidea bereziki 6 momenturen bidez gara daiteke:




- **Larrialdi-egoera:** berehalako edo larrialdi egoerako arreta behar duen agertokia da (gizarte-zerbitzuen esparruan gizarte-larrialdi prozedura aktibatzen den egoera baten baliokidea da)⁵. Momentu horri lau koordinazio-lehenetsun dagozkie: sorospena eta babesia; larrialdietako osasun-arreta; larrialdietako bizitokia; eta larrialdietako laguntza psikosoziala / lehen sorospen psikologikoak.
- **Krisialdi-egoera:** berehalako edo larrialdi egoerako arretaren beharrik ez duen, baina presazko esku-hartzea edo ahalik eta erantzun bizkorrena behar duen agertokia da. Momentu horri lau lehenetsun dagozkie: eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa; gizarte-laguntza; laguntza psikologikoa; eta salaketa, babesia eta arriskuaren lehenengo estimazioa.

⁵ Gizarte-larrialdia naturak edo gizakiak eragindako aurreikusitako gabeko gertaera batengatik sortutakoa da, gaitasun pertsonalak, bitartekoak eta biziraupenerako baliabideak, harremanak edo gizarte- eta familia-sareak eta segurtasuna arriskuan jartzen dituen ukitutako pertsona edo pertsonak larriki babesgabe utziz, gertaera horien ondoriozko beharrei heltzeko edo egoera larritzea eta kalte handiagoa sortzea saihesteko GZESren saihestu ezinezko berehalako larrialdietako lehen-arretaren beharrea.

- **Beharren detekzioa eta diagnosis:** indarkeria identifikatu eta antzeman ondoren, biktimen beharrak eta behar duten laguntzen intentsitate-maila baloratzen den agertokia da. Momentu horri hiru lehentasun dagozkie: indarkeria antzematea; beharren diagnosis; eta arriskuaren estimazioa.
- **Aurre egitea:** bat dator biktimak erabakiak hartzen eta errekupeziarako bidea eginez doazen momentuarekin. Momentu horri zazpi lehentasun dagozkie: baliabideetara sarbidea eta horien kudeaketa; gizarte-laguntza eta ahalduntzea; prozesu judiziala; bizitokia; enplegua; eta osasun-arreta eta arreta soziosanitarioa.
- **Errekupeziarioa:** bat dator zerbitzu publikoen arretaren esparruan aurreikusten den ibilbidearen amaierarekin. Momentu horri bi lehentasun dagozkie: gizarte-laguntza; eta esku-hartzeen itxiera.
- **Zeharkako beste alderdi batzuk:** aurretik aurkeztutako momentu edo agertokiei koordinaziorako zeharkako jarraibideak gehitzen zaizkie. Jarraibide horiek ia operadore guztietan dute eragina eta koordinaziorako lehentasun hauekin lotuta daude: zerbitzuen eta erakundeen arteko kasuen informazio-trukaketa; irisgarritasuna eta bereizkeria eza; indarkeria-egoeretan ofiziozko jakinarazpena; biktimaren egiaztapena, eta errekupeziarioa.

INDARKERIATIK IRTETEKO IBILBIDEAREN MOMENTUAK, KOORDINAZIORAKO LEHENTASUNAK ETA ESKU-HARTZEN DUTEN SISTEMA NAGUSIAK




2.4.2. Koordinaziorako jarraibideak indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidean

Atal honen helburua operadoreen arteko koordinazioari dagozkion ekintzarako pautak deskribatzea da, zehazki aurreko atalean aurkeztutako ibilbidearen momentu bakoitzean lehentasuneko jotzen direnak. Prozedurei eta pautei buruzko ikuspegi osoago bat lortzeko, 6.6. atala ikus daiteke. Bertan informazioa sistemen edo esparruen funtzionamenduaren arabera antolatzen da.

Era berean, kontuan izan behar da Jarduketa Koordinaturako Protokoloan jasotzen diren pautak eguneratzen eta osatzen joango direla identifikatzen diren hobekuntza-esparruei buruzko akordio berriak ezartzen diren neurrian.

Jarraian, indarkeriatik irteteko ibilbidearekin lotutako momentu edo agertoki bakoitzarekin lotutako hurrengo galdera hauei erantzuna ematen saiatuko da: Zeintzuk dira koordinazioaren lehentasunak agertoki bakoitzean? Nork esku-hartzen du bereziki? Zeintzuk dira operadore horiek jarraitu behar dituzten koordinaziorako pautak eta zergatik?



LARRIALDI-EGOERA:

Hauek dira larrialdi-egoeretan esku-hartzen duten operadore nagusiak:

- **Gizarte-zerbitzuak:** Gizarte Larrialdien Koordinazioko Zerbitzuak eta Berehalako Harrera Zerbitzua.
- **Polizia:** Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren patruilak edo komisaldegia.
- **Osasuna:** Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuak edo Ospitalez Kanpokoak.
- **Justizia:** Epaitegiak, Fiskaltza, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua - Osoko Balorazio Forentseko Unitatea (OBFU) eta Biktimari Laguntzako Zerbitzua (BLZ).

Sorospenarekin eta babesarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Edozein operadorek emakume, haur edo nerabe baten osotasuna arrisku larrian dagoela baderitza egoera SOS-Deiak Euskadiko Larrialdi Koordinatzeko Zentroari jakinaraziko dio bertatik kudeaketa egokiak egin daitezten (anbulantzia bidaltzea, polizia bertaratzea eskatzea...).
- Telefono-bidez edo aurrez aurre egindako abisu batetik aurrera, polizia-etxeetatik⁶ gorabehera geldiarazteko beharrezko patruilak izendatu eta bidaliko dira eta ezagutzen diren inguruabar guztiei buruz dagoen informazio guztia bidaliko zaie.
- Polizia-etxeetatik eskuragarri dauden datu-baseetako (JALEASko eta EBAko) informazioa kontsultatuko da, jakinarazitako gorabeherak lehenago irekitako espedienteren batekin bat etorritz gero, esanguratsua den informazioa jarduketan kontuan izan dadin, esate baterako, ebazpen judizialak edo arriskuaren estimazioa.
- Ordurako EBAREN txosten bat irekita badago, larrialdi-jarduketaren ardura duen poliziak jarduketa horren berri emango dio kasuaren titularra den polizia kidegoari, datuak bilduko ditu eta larrialdi-jarduketa bukatutakoan txosten bat bidaliko du.
- Osasun-zentroek zentroko segurtasun-zerbitzuei edo Ertzaintzari abisatuko diote arrisku hori dagoenean zentroan erasotzailearen presentzia ekiditeko.
- Poliziak ofizios irekitako eginbideen berri emango dio dagokion epaitegiari, eta atestatua igorriko du.
- Justiziaren esparruan, berehalako babesa, larrialdietako bizitokia edo larrialdietako laguntza psikosoziala behar duen indarkeria matxistaren biktime bat gerturatzen denean, Biktimari

⁶ Hemendik aurrera, "Polizia" terminoa erabiltzen den bakoitzean, Ertzaintzak eta udaltzaingoei osatutako euskal Poliziari egingo zaio erreferentzia.

Laguntzeko Zerbitzuak esku-hartuko du beste operadore batzuekin koordinatuta (Polizia, Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Zerbitzua, etab.) behar horri erantzuna emateko.

Larrialdietako osasun-arretarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Lesioak edo eraso sexualak izan badira, baina ez badira gertatu berriak izan, biktima ospitale hurbilenera bidaliko da azterketa fisiko eta psikologiko bat egiteko (lehen-arretako osasun-zentro batetik sartu bada kenduta) eta bertatik kontsulta egokiak martxan jarriko dira, osasun-arloko barne-koordinazio egokia bermatuz, batez ere pediatriarekin eta familiako medikuntzarekin (adingabeak daudenean), osasun-mentalararekin edo, eragina izan dezakeela uste bada, artatzen duen beste edozein dispositibo edo langilerekin.
- Larrialdi-egoera batean esku-hartzen duen operadore batek azken 240 orduetan (10 egunetan) gertatutako sexu-indarkeria kasu bat identifikatzen duenean, edo interes legala duten laginak lor daitezkeelako susmoa badu, biktimari ospitalera laguntzeko aukera eskainiko dio eta biktimak baimena ematen badio, baimena lortu ondoren Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuari abisatuko dio horretarako aurreikusten den berariazko prozedura aktiba dadin.
- Eraso sexual bat gertatu berri dela jakiten duenean (azken 240 orduetan gertatutakoa), Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuak aurreikusten den prozedura aktibatuko du eta, egokia bada, epaitegiari egoeraren berri emango dio epailearen baimena lortu ondoren guardian dagoen auzitegiko medikuarengana joan dadin eta biktimari osasun-azterketa bat egin diezaion delitu mota horietako ikerketarako baliagarriak izan daitezkeen laginak jasotzeko. Ofizios hasten diren prozedurak biktimari jakinarazi behar zaizkio.
- Osasun-zentroak epaitegiari (salaketa batetik aurrera edo ofizios) gertatu berri den eraso-sexual kasu bat (azken 240 orduetan gertatutakoa) jakinarazten badio, auzitegi-mediku bat bertaratzea eskatuz, berehala epailetza edo Fiskaltza prozedura (eginbideak hastekoa) irekitzen hasiko da. Epaitegiak auzitegiko medikuari prozedura-zenbakia emango dio medikua ospitalera joan dadin eta, biktimaren baimenarekin, auzitegiko osasun-azterketari ekin diezaion, lagin biologikoak har ditzan eta Toxikologia Institutura bidal ditzan, horiek jaso, ikertu eta biltegitatzeko, biktimak momentu horretan salaketarik ez jartzea erabakitzen badu ere. Ondoren, jarduketak artxibatuko dira.

Larrialdietako bizitokiarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:


- Poliziak larrialdietako bizitokiaren beharra ikusten duenean, Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzuarekin harremanetan jarriko da, biktimaren alde aurreko baimenarekin, zerbitzuak sarbidea kudeatu ahal izateko.
- Larrialdietako bizitokirako beharra ikusten denean Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzuak Berehalako Harrera Zerbitzuarekin batera, biktimaren alde aurreko baimenarekin, biktimaren eta bere seme-alaben edo menpeko beste pertsona batzuen harrera-baliabidearen sarbidea kudeatuko du.
- Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzuak kasuaren behin-behineko balorazioa partekatuko du Berehalako Harrera Zerbitzuarekin, biktimaren alde aurreko baimenarekin.
- Biktimen segurtasuna arriskuan dagoenean Ertzaintza arduratuko da Berehalako Harrera Zerbitzuaren zentroaren ardurapean dauden biktima eta bere seme-alabek edo menpeko beste pertsona batzuk lekualdatzeaz, haien segurtasuna bermatuz.

Larrialdietako laguntza psikosozialarekin edo lehen sorospen psikologikoekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Sistema guztietako operadore guztiek Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzuaren berariazko eginkizuna ezagutzen dutela ziurtatuko da, euste emozionalarekin eta informazioarekin lotutakoari dagokionez, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbidea izateko modua ezagutzen dutela ere.
- Larrialdi-sozial egoera batean esku-hartzen duten operadoreek (bereziki poliziaren eta osasunaren esparrukoek), biktimari laguntza psikosozialaren balioa jakinaraziko dute eta Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko aukera emango diote. Horrela, zerbitzua

bertaratuko da laguntza emateko eta emozionalki eusteko bai biktima eta, egotekotan, bai seme-alabak eta beste menpeko pertsona batzuk. Biktimak berariaz ezezkoa ematen ez badu, ahalik eta azkarren abisatuko zaie zerbitzu horiei.

- Biktimak menpeko pertsonak baditu eta ezin badira biktimak behin-behinean horien zaintzaz arduratzeko izendatutako pertsonarik aurkitu, larrialdi-egoeran esku hartu duten operadoreek dagozkien gizarte-zerbitzu espezializatuei abisatzeko aukera balioetsiko dute.



KRISIALDI-EGOERA:

Hauek dira krisialdi-egoeretan esku-hartzen duten operadore nagusiak:

- **Gizarte-zerbitzuak:** udalen gizarte-zerbitzuak, foru-aldundien gizarte-zerbitzuak (arreta psikologiko espezializatua emateko zerbitzuak, arreta soziojuridiko espezializatua emateko zerbitzuak, arreta psikosozial eta sozioedukatibo espezializatua emateko zerbitzuak, egoitza-zerbitzu espezializatuak), SATEVI telefono-zerbitzu espezializatua.
- **Polizia:** Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren komisaldegia.
- **Justizia:** Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), ofiziozko txanda - abokatutza elkargoak, epaitegiak, Fiskaltza.
- **Hezkuntza:** Hezkuntza Saila, laguntza-zerbitzuak, ikastetxeak.

Eskubideei eta baliabideei buruzko informazioari buruzko koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Sistema guztietako operadoreek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen eskubideei buruzko eguneratutako nahikoa informazio dutela ziurtatuko da eta EAEn haiei bideratutako zerbitzuen eta baliabideen katalogoa dutela.
- Ziurtatuko da sistema guztietako operadore guztiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara sarbidea izateko modua ezagutzen dutela eta oinarrizko gizarte-zerbitzuaren berariazko eginkizunaren jakitun direla, euste emozionalarekin eta informazioarekin lotutakoari dagokionez.
- Hezkuntza Sailak, laguntza-zerbitzuek eta ikastetxeek komunikazio arina izango dute haien artean ikastetxeek biktimei zuzendutako hezkuntza-sistemaren baliabideei buruzko nahikoa informazio dutela bermatzeko.

Gizarte-laguntzarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Indarkeria-kasu baten aurrean edo indarkeriaren susmoa dutenean, operadoreek biktimari oinarrizko gizarte-zerbitzuak eskain diezaiokeen gizarte-laguntzaren balioa adieraziko diote eta, berak baimena eman ondoren, zerbitzu horretara bideratu ahal izango dute dauden baliabide eta laguntza guztiei buruzko informazio oso eta zehatza jaso dezan.

Laguntza psikologikoarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak arreta psikologikoaren beharra ikusten duenean, biktimaren eta seme-alaben edo menpeko beste pertsona batzuen arreta psikologiko espezializatuko zerbitzurako sarbidea kudeatuko du, biktimak baimena eman ondoren, zerbitzu horrekin koordinatuta, sarbidea ahalik eta gehien arintzeko asmoarekin.

Salaketarekin, babesarekin eta arriskuaren lehen estimazioarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Edozein operadorek ertzain-etxera edo epaitegi batera, ahal bada lehenengora, bidali beharko ditu salatzen nahia adierazten duten biktimak.

- Biktima bat epaitegi batera salaketa bat jartzera joaten denean BLZari abisatuko zaio, biktimak baimena eman ondoren, salatu aurretik informazio egokia jaso dezan. BLZaren arretarako ordutegitik kanpo gertatzen bada, Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuari abisatuko zaio.
- Salaketa jarri nahi duen biktimak mugikortasun-arazoak baditu, edozein operadorek abisa diezaioke Ertzaintzari biktima dagoen osasun-zentrorra edo etxebizitzara joan dadin.
- Biktimak salaketa jarri nahi duenean, biktimak baimena eman ondoren, Ertzaintzak, BLZak edo epaitegiak abokatuen elkargoen telefono zentralizatuaren bidez, abokatu baten laguntza eskatuko du ofiziozko txanda espezializatua aktibatze eta abokatuari komisaldegira, epaitegira edo antzeko beste edozein lekura joateko eskatzeko⁷, deklarazioa hartu eta salaketa jarri baino lehen biktima aholkatu dezan. Era berean, biktimari alde aurreko laguntza hori izatearen garrantziaren berri emango zaio.
- Ustekozko biktima krisi-egoera batean polizia-etxe batera joaten denean, Poliziak larrialdietako laguntza psikosozialaren eta Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Zerbitzuek eskaintzen duten euste emozionalaren onurak estimatuko ditu biktimarekin, egokia bada haiekin harremanetan jartzeko eta biktimarekin, seme-alabekin edo lehen-sorospen psikologikoen beharra izan dezaketen menpeko beste pertsona batzuekin esku-hartzea aktibatze (larrialdietako bizitokiaren beharra izan ala ez izan), biktimak baimena eman ondoren.
- Ertzaintzak dagokion epaitegiari jakinaraziko dizkio ertzain-etxeetan jarritako salaketak.
- Poliziak eskuragarri dauden datu-baseetako (JALEASko eta EBAko) informazioa kontsultatuko du, artatutako gorabeherak lehenago irekitako espedienteren batekin bat etorri gero, esanguratsua den informazioa kontuan har dadin (ebazpen judizialak, arriskuaren estimazioa...).
- Biktimaren bikotekideak, bikotekide ohiak edo beste senide batek indarkeria matxista erabili duen kasuetan, Ertzaintzak epaitegiari bidaliko dio irekitako EBA txosten bakoitzean poliziak egin duen arriskuaren estimazioa.



BEHARREN DETEKZIOA ETA DIAGNOSIA:

Hauek dira esku-hartzen duten operadore nagusiak:

- **Gizarte-zerbitzuak:** udalen gizarte-zerbitzuak, foru-aldundien gizarte-zerbitzuak (arreta psikologiko espezializatua emateko zerbitzuak, arreta soziojuridiko espezializatua emateko zerbitzuak, arreta psikosozial eta sozioedukatibo espezializatua emateko zerbitzuak, egoitza-zerbitzu espezializatuak), SATEVI telefono-zerbitzu espezializatu, haurrei arreta emateko gizarte-zerbitzu espezializatuak, eta beste gizarte-zerbitzu espezializatu batzuk.
- **Polizia:** Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren komisaldegiak.
- **Osasuna:** lehen-arretako osasun-zentroak eta zerbitzu espezializatuak (beste batzuen artean, ginekologia edo osasun mentaleko sarea).
- **Hezkuntza:** ikastetxeak.
- **Justizia:** Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ).

Biktima detektatzearekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Esku-hartzen duten operadore guztietako langileek arrisku-adierazleei buruzko ezagutzak partekatzea ziurtatuko da indarkeria-kasuak detektatzeari buruzko zalantzak argitu ahal izateko.
- Gizarte-zerbitzuetako operadoreek eta lehen-arretako osasun-zentroek inguruneko baliabide soziokomunitarioekin harremanak ehunduko dituzte (erakundeak, emakumeen etxeak, ahalduntze

⁷ Salbuespenezko egoeretan, biktimak mugikortasun-arazoak dituenen eta ezin denean etxebizitzatik irten, gaur egun ofiziozko txandako abokatuaren aholkularitza telefonoz eman daiteke.

eskolak...), indarkeriaren susmoa dagoenean eta emakumeak oraindik indarkeria-egoeraz jabetu ez direnean baliabide horiei buruzko informazioa eskaintzeko. Hala ere, ez diete baliabide horiei pertsonari buruzko informaziorik emango, aldez aurretik informazio argia jaso ondoren hark berariaz horretarako baimena ematen ez badu.

- Ikastetxe batean emakumeen aurkako indarkeria matxista-kasu bat ezagutzen denean edo horren susmoa dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzak hezkuntzako ikuskaritzari jakinaraziko dio eta laguntza-zerbitzuari aholkua eskatzeko aukera izango du. Era berean, bidezkoa denean, ofizioz egingo dira egokiak diren jakinarazpenak (Poliziar, epaitegiari, Fiskaltzari edo gizarte-zerbitzuei).
- Alokabidek oinarritzko gizarte-zerbitzura bideratuko ditu bizikidetza arazoak edo ez ordaintzeak izandako pertsonak, horien baimena lortu ondoren, indarkeria kasuak goiz detektatu ahal izateko.

Beharren diagnosiarekin lotutako koordinazio eta lankidetzaren paletak:

- Erreferentziako gizarte-zerbitzuek edo BLZak kasuari buruzko informazio baliagarria izan dezaketen operadoreei (ikastetxeak, osasun-zentroak, BLZ, gizarte-zerbitzuak...) eskatuko diete beharren gizarte-diagnosia eta Arreta Pertsonalizatuko Plana edo antzekoa aberasteko erabilgarria izan daitekeen informazioa eta gerora koordinazioa bultzatu.
- Erreferentziako gizarte-zerbitzuek, egokia denean, mendekotasunaren, desgaitasunaren, bazterketaren eta babesgabetasunaren balorazio eta diagnosi espezializatua eskatuko diete dagokien gizarte-zerbitzu espezializatuari (foru-aldundietakoak) diagnosia osatzeko.
- Haurrak artatzeko gizarte-zerbitzuen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa landuko da emakumearen, haurren eta nerabeen beharrez arduratuko den eta kasu bakoitzerako erantzunak orientatuko dituen diagnosiak egingo direla bermatzeko.
- Ikastetxeetako zuzendaritzak antzematen dituen genero-indarkeria kasuak edo horien susmoak hezkuntzako ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuari jakinaraziko dizkio aholkularitza jasotzeko esku-hartze plan bat egiteko beharrezko datuak aztertzeko.

Arriskuaren estimazioarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paletak:

- Gizarte-zerbitzuetako eta Ertzaintzako operadoreek arriskuaren estimazioari buruzko informazioa⁸ (soziala eta poliziala) partekatu ahal izango dute operadoreen baten informazioa beste baten balorazioa osatzeko baliagarria izan daitekeenean, betiere biktimak horretarako baimena ematen badu.
- Erasotzailea biktimarekin bizi daitekeela susmatzen den kasuetan Alokabidek biktimaren erreferentziako gizarte-zerbitzuei abisatuko die neurri egokiak martxan jar ditzaten.

⁸ Ez dira nahastu behar arrisku-mailaren estimazioari buruzko informazioa partekatzea eta kasu bakoitzean martxan jartzen diren segurtasun-neurriei buruzko informazioa partekatzea. Azken informazio hori ez da partekatzen segurtasun arrazoiengatik.



AURRE EGITEA:

Hauek dira esku-hartzen duten operadore nagusiak:

- **Gizarte-zerbitzuak:** udalen gizarte-zerbitzuak, foru-aldundien gizarte-zerbitzuak (arreta psikologiko espezializatua emateko zerbitzuak, arreta soziojuridiko espezializatua emateko zerbitzuak, arreta psikosozial eta sozioedukatibo espezializatua emateko zerbitzuak, egoitza-zerbitzu espezializatuak), eta ordainketa bakarreko laguntza-zerbitzua.
- **Polizia:** ertzain-etxeak eta Udaltzaingoa.
- **Justizia:** Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), Zurekin, ofiziozko txanda - abokatutza elkargoak, epaitegiak, Fiskaltza, - OBFU, Lantalde psikosozial judizialak.
- **Osasuna:** Lehen-arretako osasun-zentroak eta osasun-sistemaren beste zerbitzu batzuk.
- **Enplegua:** Lanbideren bulego-sarea eta zentro laguntzaileak.
- **Hezkuntza:** ikastetxeak, hezkuntzako ikuskaritza...
- **Etxebizitza:** Alokabide eta Etxebide.

Baliabideen kudeaketarekin lotutako koordinaziorako eta elkarlanerako pautak:

- Bermatuko da bereziki biktimari informazioa emateko eginkizuna duten operadoreek EAEn eskuragarri dauden laguntza eta baliabide guztien (sistema guztiak barne) informazio zehatza eta eguneratua izatea, biktima horietarako izapidearekin eta sarbidearekin orientatzeko.
- Udalen gizarte-zerbitzuek eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako foru-aldundien gizarte-zerbitzuek baliabideak erabiltzeko balorazio-irizpideei eta sarbiderako betekizunei buruzko informazio eguneratua trukatzan dutela bermatuko da.
- Erreferentziako gizarte-zerbitzuek edo BLZak biktima beste zerbitzu eta sistema batzuetara bideratuko dute eta egokia denean izapideekin eta eskaerarekin lagunduko zaio, betiere biktimak horretarako baimena eman badu.
- Udalen gizarte-zerbitzuen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako foru-aldundien gizarte-zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruko beste zerbitzu batzuen (bazterketaren, haurtzaroaren, mendekotasunaren, etab. esparruetako) arteko koordinazio-ildoak izapidetuko dira biktimaren behar anitzetara hoberen egokitzen diren arreta-plana eta baliabideak zehazteko eta indarkeria matxistaren arloko berariazko ikuspegi bat bultzatzeko eta txertatzeko, batez ere bizitegi-bazterketari buruzko estrategietan.
- Instituzioen arteko koordinaziorako lurraldeko taldeak aktibatuko dira, batez ere konplexuen jotzen diren kasuetan lan egiteko (emakumeen aurkako indarkeria matxistaz gain beste bazterketa-faktore batzuk, gaixotasun mentala, adikzioak, desgaitasuna, etab. daudenetan), beharrak asetzeko esku-hartzen duten erakundeek erabakiak adostasunez har ditzaten. Instituzioen arteko koordinaziorako lurraldeko taldeak hausnarketa bateratuak erraztu ahalko ditu aipatutako kasuei era oso eta koherentean heltzeko genero-ikuspegia, interseksionalitatearen ikuspegia eta ahalduentzearen printzipioa aplikatuz eta, egokia denean, kasu horietako batzuk era misto edo partekatuan kudeatzeko.

Laguntza psikosozialarekin edota ahalduentzearekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Esku-hartze prozesu osoan zehar lehen-arretaren eta gizarte-zerbitzuen bigarren-arretaren arteko koordinazio eraginkorra bermatuko da, bereziki arreta mailen arteko bideraketa-kasuetan partekatu beharreko informazioari dagokionean.
- Esku-hartzea elkarrekin egiten dutenean, bereziki garrantzitsua da erreferentziako udal gizarte-zerbitzuko langilearen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako foru-aldundietako zerbitzukoaren arteko komunikazioa eta koordinazioa arina izatea.

- Biktimek seme-alaba adingabeen ardura badute, emakumeekin eta adingabeekin egiten diren esku-hartzea koordinatu beharko dira, adingabeak indarkeria matxista-egoeraren eraginpean egoteagatik biktima izan zein erasoen biktima zuzenak izan. Horretarako, haurrak artatzeko zerbitzuak eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako zerbitzuak aldi berean ekiten ari badira, emakumeen errekupeazio-prozesu osoa uztartzen duen esku-hartze plan koordinatu bat diseinatu behar da, adingabeei buruzko esku-hartzea barne hartzen duena eta prozesu osoan zehar haien arteko lotura eta eskubideak babesten dituena.
- Haurrak artatzeko zerbitzuen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzaz bultzatuko da amatasun positiboa garatzeko hainbat laguntzaren beharra duten kasuetan (gabeziadun emakumeenetan edo babes emateko joera handiagoa edo txikiagoa duten emakume kaltetuetan) esku-hartzeko ikuspegiak bateratzeko.
- Gizarte-zerbitzuen esparruan, Arreta Pertsonalizatuko Planeko erreferentziako langilearen (APP) eta Banakako Arreta Planeko edo antzeko baten langileen arteko koordinazioa egokia dela ziurtatuko da jarraipen egokia egin ahal izateko.

Prozesu judizialarekin (penala eta zibila) lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Salaketa bat jartzen denean eta horrekin batera prozesu judizial bati ekin zaionean, operadoreek biktimari BLZak eskain diezaiokeen laguntzaren balioa adieraziko diote eta, biktimaren baimena lortu ondoren, ezarritako protokoloekin bat etorriz, zerbitzu horretara bideratu ahal izango dute prozesuan laguntza jasotzeko (egokia bada, Zurekin programaren esparruan).
- Biktima artatzen duten gizarte-zerbitzuak Ertzaintzarekin lankidetzan arituko dira ikerketarekin eta ez-zilegi penala argitzearekin lotutako informazioa partekatuz. Informazioaren bat partekatu behar bada biktimak horretarako berariaz baimenik eman gabe, berarekin lotura mantentzeko komenigarria da jakinaraziko denaren eta izan ditzakeen ondorioen berri ematea.
- Epaitegiek gizarte-zerbitzuetako operadoreei ikerketarako erabilgarriak izan daitezkeen txosten sozialak galda diezazkiekete.
- Ertzaintzaren eta epaitegien artean beharrezko koordinazioa dagoela bermatuko da agenda judiziala kudeatzeko eta judizio azkarretarako zitazioak bermatzeko.
- Epaitegiek era telematikoan jakinaraziko dizkiote Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroari, 1/2004 Lege Organikoaren arabera, genero-indarkeriaren esparruko neurriren bat duten prozesu judizialeko ebazpenak (babes-aginduak, kautelazko urrutze-neurriak, epaiak eta espetxe-neurriak) zentroak biktimari informazioa eman diezaion (gutun bidez) eta BLZaren arreta jasotzeko (behar duenerako aholkuak eta laguntza jasotzeko) duen eskubidearen berri eman diezaion.
- BLZak Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuarengandik erasotzailea espetxetik ateratzeari buruzko informazioa jaso eta hori biktimari adierazteko unean ez badu biktimarekin harremanetan jartzea lortzen, Ertzaintzari laguntza eska diezaioke biktima lokalizatzen.
- Judizio azkarraren autoan (babes-aginduren agerraldian) baliabide honen erabilera galdatzen duten adingabeekin lotutako neurri zibilak badaude, epaitegiek familia-elkargune zerbitzuari abisatuko diote.
- Epaitegiek Poliziari ebazpen judizialak jakinaraziko dizkiote inputatuaren egoera prozesala kontuan har dezan, baita babes-neurrietako kautela-neurrien irispidea eta indarraldia ere.

Bizitokiarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Udalen gizarte-zerbitzuek espezializatutako egoitza-zerbitzuekin baliabidera beharrera egokitzeko balorazioa partekatuko dute. Laguntzaren beharrezko intentsitate-maila eta segurtasun-mailaren arabera, kasua udalaren eskumeneko harrera-pisu batean (intentsitate txikiko laguntza) edo foru-aldundiaren eskumeneko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentro batean artatuko da.
- Biktimaren erreferentziako gizarte-zerbitzuak gizarte-aholkairuko edozein etxebizitza zuzenean esleitzea eskatzeko aukera izango du eskumen hori duen Eusko Jaurlaritzaren sailari (frogatzeko txosten tekniko bat igorritik). Sail horrek betekizunak konplitzen diren egiaztatuko du eta hala bada,

etxebizitza esleituko du (Alokabideri bilaketari ekiteko eskatuko dio) biktimei komunitatean txertatutako eta normalizatutako irteera-ibilbideak bermatzeko.

- Alokabidek biktimaren erreferentziazko zerbitzu-sozialekin behar zehatzak erkatuko ditu etxebizitza-bilaketa moldatzea egokia dela baloratzen denean. Horrela, egokia denean, elkarrekin balioetsiko dute biktima kokalekuz aldatzea aproposa den.
- Alokabide biktimaren erreferentziazko gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarriko da bizikidetzaz arazoak edo utzarazpen batera eraman dezaketen ez-ordaintzeak antzematen direnean, horien iturri den arazoari buruzko ahalik eta informazioa gehien lortzeko eta, kasuaren arabera, zorren ordainketarako hainbat aukera eskaintzeko.

Enpleguarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Diru-sarbideak bermatzeko errenta (DSBE) izapidetzeko ardura duten Lanbideko operadoreek Lanbiden indarkeria matxistan espezializatutako tutoreari jakinarazi beharko dizkiote etete- edo iraungitze-proposamenak, dauden neuri onuragarri guztiak aplikatzen direla ziurtatzeko.
- Indarkeria matxistan espezializatutako Lanbideko tutoreen eta Lanbiderekin lankidetzan aritzen diren zentroen arteko komunikazio arina bermatuko da emakumea zentro horietan artatzen dutenean.

Hezkuntzarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Amak ez duenean indarrean dagoen genero-indarkeria egiaztatiririk eta ez duenean bere egoera justifikatzeko gizarte-txostenik jasotzen, Hezkuntza Sailbururdetzak dagokion epaitegiari eskatuko dio aitaren baimenik gabe haurra ikastetxetz aldatzeko baimena.

Osasun-arretarekin edo arreta soziosanitarioarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Biktima eta seme-alabak artatzen dituzten osasun-zerbitzuen artean koordinazio arina bermatuko da, bereziki pediatrian, familia-medikuntzan eta osasun mentalean.
- Bermatuko da bai udalen gizarte-zerbitzuek bai foru-aldundietako emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako gizarte-zerbitzuek osasun-esparruko koordinazio guneetan parte hartzen dutela lehen-arretako eta osasun-mental sareko osasun-esparruko langileekin batera, indarkeria matxista-egoerei aurre egiteaz gain, adikzioekin, osasun-mentaleko arazoekin, etab. lotutako kontingentziak dituzten haur eta nerabeekin egiten diren esku-hartzeen eraginkortasuna handitzeko.
- Tokiko koordinazio soziosanitarioa bultzatuko da osasun-arloko lehen-arretako eta udalen gizarte-zerbitzuetako langileek osatutako taldeekin detekzio goiztiarrarekin lotutako ekintzak garatzeko.



ERREKUPERAZIOA

Hauek dira esku-hartzen duten operadore nagusiak:


- **Gizarte-zerbitzuak:** udalen gizarte-zerbitzuak, foru-aldundien gizarte-zerbitzuak.
- **Beste gizarte-eragile batzuk:** emakumeen etxeak, ahalduntze eskolak, emakumeen erakundeak, etab.
- **Osasuna:** lehen-arretako osasun-zentroak eta osasun-sistemaren beste zerbitzu batzuk.
- **Enplegua:** Lanbideren bulego-sarea eta zentro laguntzaileak.
- **Hezkuntza:** ikastetxeak eta hezkuntzako ikuskaritza.
- **Etxebizitza:** Alokabide eta Etxebide.

Gizarte-laguntzarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Gizarte-zerbitzuetako esparruko operadoreek detekzioan, prebentzioan, artatzean, orientazioan eta esparru komunitarioko erreparazioan lan garrantzitsua egiten duten operadoreekin elkartasunak ehunduko dituzte (emakumeen etxeak, ahalduntze eskolak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek elkarri laguntzeko tokiko taldeak, elkarteak...) esku-hartzea indartzeko eta biktimek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik ateratakoan errekupeziarantz eta ahalduntzerantz egiten dituzten ibilbideetan laguntza jasotzen jarraitzea errazteko.

Esku-hartzeen itxierarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Bigarren-arretako (forua aldundiaren esparruko) gizarte-zerbitzuetan esku-hartzearekin bukatutakoan, komenigarria izaten da, orokorrean, kasuak berriz lehen-arretara (udalaren esparrura) bideratzea sistematik behin betiko atera aurretik horren beharra duten prozesuen jarraipenari jarraitasuna emateko. Kasu horietan, idatziz egingo dira udalen gizarte-zerbitzuetarako bideraketak emakumearen egoera ezagutzea errazteko.
- Biktimaren erreferentziatzko langileak beste baliabide batzuetara egindako bideraketen emaitzen jarraipena egingo du esku-hartzea bukatutzat eman aurretik.



ZEHARKAKO BESTE ALDERDI BATZUK

Alderdi hauek operadore guztiak ukitzen dituzte.

Informazio-trukaketarekin eta baimenarekin ⁹ lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako pautak:

- Akordio hau sinatzen duten erakundeek egiten dituzten esku-hartzeetan datu pertsonalen tratamenduaren konfidentziasuna, intimitatea eta pribatutasuna bermatzeko baldintza egokiak ziurtatu behar dituzte.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 54.2. artikularekin bat etorritik, euskal administrazio publikoek, haien eskumenen esparruan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima orok kalitatezko lehentasunezko doako arreta oso eta eskuragarria jasotzeko duen eskubidea bermatu behar dute. Arreta hori berariazko prestakuntza duten langileek eskaini behar dute eta biktimek bizitako indarkeria-egoerek sortutako edo egoera horiekin lotutako beharretara moldatu behar da, bereizkeriarik gabe, egoera pertsonala, soziala edo administratiboa zeinahi delarik eta prozedura judizialean duten parte-hartze maila edozein dela ere. Horretarako, araudiak zehaztutako baldintzetan, arreta horri dagozkion **txostenen kudeaketa integratu eta koordinatua** izan dadila zainduko da, **biktimen baimen informatu aktiboa** bermatuz eta, aldi berean, datu-pertsonalak tratatzeko **prozedurak behar duen arintasuna** bermatuz.

Hargatik eragotzi gabe unean-unean, larrialdi-egoeretan, era murriztuan eta balioetsi ondoren, pertsonaren edo beste pertsona fisiko baten berebiziko interesera jotzea tratamendua gaitzeko legezko oinarri gisa, eta, datuen kategoria bereziak bidaliz gero, pertsona hori ez bada era fisiko edo juridikoan baimena emateko gai bakarrik.

⁹ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakundeek 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

Era berean, artatzeko erabiltzen diren baliabide fisikoei arreta eskaini behar zaie. Intimitate edo pribatutasun faltak biktimizazio sekundario prozesuak sor ditzake eta informazioaren tratamendu desegokiak ondorio larriak ekar ditzake biktimen segurtasunerako, baita artatzen dituzten pertsonenarentzako ere.

- Biribiktimizazio-arriskua murrizteko eta esku-hartze osoagoak errazteko, esku-hartzen duten operadore guztiek biktimaren baimen libre eta informatua eskuratuko dute berarekin lan egingo dutela aurreikusten den operadore guztiekin informazioa trukatu ahal izateko. Beste operadore batzuekin informazioa trukatu ahalko dute, trukaketa horri buruzko informazio argia jaso ondoren, biktimak berariaz baimena ematen badu, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 54.2. artikulua aplikatuz.

Irisgarritasunarekin eta bereizkeria-ezarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Esku-hartzen duten operadore guztiek eskatuko dituzte itzulpengintza-zerbitzuak, zeinu-hizkuntzara interpretazio-zerbitzua edo bestelako batzuk komunikazioan oztopoak daudenean horiek gainditzen laguntzeko, biktimak horretarako baimena eman ondoren.
- Esku-hartzen duten operadore guztiek biktimaren behar zehatzak kontuan hartuko dituzte espazioen eta azpiegituren diseinuan bereziki haurtzarokoak eta nerabezarokoak. Horrela, ahaleginak egingo dira leku horiek egokiak, seguruak eta konfiantzazkoak izateko, haurrekin eta hainbat adinetako nerabeekin komunikatzeko erremintez hornituta egoteko, eta haiek dituzten eskubideez baliatzea bultzatzeko.

Indarkeria-egoera baten berri ematearekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Edozein esparrutik esku-hartzen duten operadore guztiek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorritik, Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezken. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbulen Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).
Horren harira, emakumeen aurkako indarkeria matxista-kasuetako arriskua estimatzeko disziplinalor anitzeko berariazko erreminta bat diseinatuko da (Poliziaren babesarekin lotutako arrisku fisikoaren balorazioa baino haratago joanda).

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzen den operadore orok Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

Biktima-izaera egiaztatzearekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Genero-indarkeriaren biktima-izaeraren egiaztagiria horretarako homologatutako zerbitzu publikoek kudeatuko dute, emakumea joaten den sare publikoko oinarrizko edo espezializatutako gizarte-zerbitzuko esku-hartze taldeak edo laguntza-taldeak balorazio-txoten bat egin ondoren.
- Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroak biktima-ziurtagiri judizialarekin lotutako informazioa ematen die eskatzen duten operadoreei.

Zerbitzuen eta prestazioen diseinuarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeko 50. artikuluan 6. puntuan ezarritakoarekin bat etorritik, berdintasun-organoen eta biktimekin egiten den esku-hartzearen ardura duten organoen arteko lankidetzaren bultzatuko da zerbitzu horien diseinua eta ebaluazioa emakumeen aurkako indarkeria matxista saihestera, errotik kentzera, indarkeria horri aurre egitera eta sortzen dituen kalteak konpontzera bideratutako politikekin bat etorrarazteko.

Erreparazioarekin lotutako koordinaziorako eta lankidetzarako paetak:

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 61. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, euskal botere publikoak egia aitortzera eta zabaltzera bideratutako neurriak garatzeko koordinatuko dira, indarkeria arbuia duten ekintza publikoen bidez.
- Emakumeak edo seme-alabak emakumeen aurkako indarkeria matxista tarteko dela hiltzen dituztenean, erakundeek gaitzespena adieraziko dute eta familiari edo biktimei elkartzaren instituzional publikoa adieraziko diete Ettxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzaren aurrean jarduteko prozedurarekin bat etorritik.
- Erakunde publikoak elkarren artean koordinatuko dira eta lankidetzaren arituko dira emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimei seme-alaba umezurtzek birbiktimitzatzen ez dituen arreta osoa jasotzen dutela bermatzeko. Horren harira, orientabideen gida bat diseinatuko da.

2.5. Sistema edo esparru bakoitzean jarduteko eta koordinatzeko pautak orokorrak

Akordioak ukitutako esparru edo sistema bakoitzari berariazko atal bat eman zaio (gizarte-zerbitzuak, osasuna, justizia, polizia, hezkuntza, enplegua eta etxebizitza). Hurrengo atal bakoitzak eduki hauek ditu:

- Esparruaren barneko indarkeria matxistaren biktimei araudiari aipamen laburra eta prozedurak zehazten dituzten eta EAEn aplikatzen diren protokoloak, lankidetzarako hitzarmenak eta erreferentziatzeko beste antzeko dokumentu batzuk.
- Esparruan edo sisteman ekiten duten operadore esanguratsuenen aurkezpena.
- Esparruko edo sistemako prozedura orokor esanguratsuenen maparen deskribapena, jarraitu beharreko pautak nagusien deskribapena eta esparruaren edo sistemaren barneko eta kanpoko beste operadore batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko ekintzen deskribapena.

Jarraibide hauez gain, azken atal bat eskaintzen da (2.6) III. Akordio honetan Arartekoak duen zereginari buruz. Pertsonen eskubideak sustatzeko eta defendatzeko eta euskal administrazio publikoen eta haien mendeko erakundeen jarduerak gainbegiratzeko eginkizun bereziarekin lotuta dago, batez ere: herritarren kezak eta kontsultak jaso eta kudeatzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen dieten zerbitzu publikoen inguruan, baita ofiziotako jarduerak aurrera eramatea, txostenak egitea eta gomendio orokorrak ematea ere indarkeria matxistaren biktimei eskubideak sustatzeko.

Bere izaera independentea eta administrazioaren jarduerak gainbegiratzeko, eta erakunde honetako pertsonen eskubideak bultzatzeko eginkizuna kontuan hartuta, atal espezifiko bat (2.6) sortu da, gainerako erakunde sinatzaileen jardura-jarraibideei buruzko ataletik (2.5) bereizia. Atal horretan xehetasun handiagoaz azaltzen da nola artikulatuko den Arartekoaren izaera eta eginkizun bereziaren integrazioa III. Akordio honen eta gainerako erakunde sinatzaileekin duen lankidetzaren esparruan.

2.5.1. Gizarte-zerbitzuen esparruko jarduketa- eta koordinazio-pautak orokorrak

Araudia:

EAEko gizarte-zerbitzuak **Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak** arautzen ditu. Eskaintzen dituzten zerbitzu eta prestazioak zehaztasunez azaltzen dira **185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan**. Dekretu horren helburua biztanleria osoaren gizarte-ongizatea bultzatzea da, beste sistema eta politika publiko batzuekin batera koordinatuta lan eginez. Bi arau horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara (hemendik aurrera GZES) ohiko sarbiderako eta larrialdietako sarbiderako prozedura jasotzen dute, baita sistemaren prestazioetara eta zerbitzuetara eskubide subjektiboa ere. Gainera, kontuan hartu behar da, testuan zehar aipatzen diren beste batzuekin batera, **64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea**.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistari lotuta, aplikatzen da **Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa**, gizarte-arreta osoa izateko eskubidea garatzen duena eta horrekin bat dator 2021eko abenduaren 2ko Ebazpena, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasuneko Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Erabakia argitaratzen duena, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzei buruzkoa.

Adingabeei dagokienez, aintzakotzat hartu behar da Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteari buruzkoa, zeinen VII. atalean gizarte-zerbitzuen esparruko eskuhartzea garatzen den. Desgaitasunen bat duten biktima adingabeei edo adin-nagusidunei dagokienez, kontuan hartzekoa da 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, legedia zibil eta prozesala erreformatzen duena, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzekoa.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak VII. kapituluko 56. artikuluan ezartzen duenez, "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten administrazio publikoek, bat eginez gizarte-zerbitzuei buruzko legerian ezartzen den eskumen-araubidearekin, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima guztiei bermatu behar diete sistema horretako katalogoan eta prestazio- eta zerbitzu-zorroan sartzen diren zerbitzuak emango zaizkiela, dituzten beharren arabera eta berehala".

Zehazki, ezartzen da bermatuko dituztela "urruneko informazio- eta arreta-zerbitzuak, bai telefonozkoak bai telematikoak, urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan¹⁰; urgentziatzko arreta¹¹; epe laburreko, ertaineko eta luzeko harrera¹²; aholkularitza soziojuridikoa¹³; arreta psikosoziala eta psikologikoa; eskuhartze sozioedukatiboa¹⁴, eta akonpainamendu soziala. Era berean, beharrezko neurriak hartuko dituzte emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei lehentasunezko arreta eman dakien Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio- eta zerbitzu-zorroko gainerako zerbitzuetan".

Gainera, bermatu beharko dute badaudela "arreta espezializatuko zerbitzuak, bai emakumeen kontrako indarkeria matxista zuzenean pairatzen duten neska txiki eta neska nerabeentzat, bai indarkeria hori gauzatzen den ingurune batean bizi diren haur eta nerabeentzat eta emakumeen kargura dagoen beste edonorentzat" eta "hildako biktimen seme-alabentzako babes eta laguntza indartuko dira, haien zaugarritasun-egoera berezia dela-eta, eta protokoloak ezarriko dira kasu horietan". Horrez gain, hartuko dira "emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen ingurune intimoko senide eta lagunei segurtasuna eta babes sozial eta psikologikoa emateko neurriak, hala eskatzen badute".

Prestazio ekonomikoari buruzko 57. artikuluan ezartzen da "gizarte-zerbitzuek aurrekontu-partida bat izango dute urgentziako prestazio ekonomikoetarako, hain zuzen ere, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek bizirik irauteko dituzten oinarrizko beharrezkoak berehala erantzuteko helburua duten prestazio ekonomikoetarako, biktima horiek eskubidez jaso ditzaketen gainerako prestazio ekonomikoak ematea tramitatzen den bitartean". Gainera, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei hauetarako sarbidea bermatu behar zaie: nahikoa baliabide ekonomikorik ez dutela eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen duten biktimentzat ordainketa bakarreko laguntzak, aplikatzen den estatu-mailako oinarrizko legediaren esparruan; emakumeen aurkako indarkeria matxistaren hildako biktimen seme-alabentzako laguntza ekonomikoa; ebaluagarriak eta frogagarriak izan daitezkeen premia pertsonaleko egoerak arintzeko aparteko laguntzak, betiere horretarako eskumena duten organoek ikusten badute ez dagoela aurreikusitako ohiko laguntzarik edo horien zenbatekoa ez dela nahikoa.

Gainera, beste batzuen artean kontuan hartu behar dira, 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa (aldatzeko prozesuan); 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa. Hiru lege horiek genero-indarkeria edo etxeko indarkeria dagoen ingurune bateko adingabeei biktima-izaera aitortzen diete laguntza eskaintzen duten zerbitzuetara jotzeko aukera izan dezaten eta babeserako neurri egokiak izan ditzaten. Beste lege aipagarri batzuk dira 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko

¹⁰ 2.7.1.2. fitxa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan.

¹¹ 2.6. fitxa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan.

¹² 2.4.6. fitxa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan.

¹³ 2.7.5. fitxa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan.

¹⁴ 2.7.3.1. fitxa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan.

udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena; 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteari buruzkoa; eta 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, Legedia zibil eta prozesala erreformatzen duena, desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko.

Gaur egun eguneratzeke dagoen esparru honetako azken erreferentzia protokoloa da 2006ko Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida. Horrez gain, berdintasun lege berriaren mandatuetara egokitzeko berrikusteke daude Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroko Dekretua, Zentro eta Tresna Elkartuen Dekretua.

Esku-hartzen duten operadoreak¹⁵:

- **Udalen gizarte-zerbitzuak:** udalek, zerbitzu horien bidez, GZESri esleitzen zaizkion eskumenak erabiltzeko ardura dute haien lurraldeko esparruan. **Oinarrizko gizarte-zerbitzua** herritarrentzako GZESra lehenengo sarbide gisa funtzionatzen duen udalen gizarte-zerbitzuen arreta osoa eskaintzen duen disziplina anitzeko unitate balioaniztuna da. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen funtsezko eginkizunen artean daude gizarte-zerbitzuek arta ditzaketen beharrak antzematea, baloratzea, diagnostikatzea, orientatzea, antolatzea, horiei buruzko informazioa ematea, baita GZESra sarbidea koordinatzea eta kudeatzea ere.

Udalen gizarte-zerbitzuen funtzioa GZESren lehen-arretako gizarte-zerbitzuak ematea da. Zerbitzu horien artean aipagarriak dira informatzea, baloratzea, diagnostikatzea eta orientatzea (gizarte-larrialdietan ere bai); esparru sozioedukati boan eta psikosozialean esku-hartzea eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **harrera-pisuak** eskaintzea¹⁶ (egonaldi laburrekoak).

- **Foru-aldundien gizarte-zerbitzuak:** foru-aldundiek, foru-aldundien gizarte-zerbitzuen bidez, GZESri esleitzen zaizkion eskumenak erabiltzeko ardura dute haien lurraldeko esparruan. Balorazio eta diagnosi espezializatu a egiteko duten funtzioa gauzatzeko, foru-aldundiak koordinatu behar dira eta lan egin behar dute oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin eta, hala badagokie, ordurarte erabiltzailea edota bere familia orientatu duen langilearekin GZESkoa izan edo ez.

Foru-aldundien gizarte-zerbitzuek GZESko bigarren-arretako gizarte-zerbitzuen zati handi bat eskaintzeko funtzioa dute. Zerbitzu horien artean aipagarriak dira balorazio eta diagnosi espezializatuak egiten dituztenak (mendekotasunarena, desgaitasunarena, bazterketarena eta babesgabetasunarena); **Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua**; etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **egoitza-zentroak**¹⁷ (berehalako harrera zerbitzuak eta tarteko egonaldietarako harrera-zentrok); **Familiekin arlo sozioedukati boan eta psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak**; tratu txarren edo sexu-erasoen egoeretan **laguntza soziojuridikoa** eta psikosoziala emateko zerbitzuak¹⁸.

Aldundira bideratzen diren kasuek, irizpide orokor gisa, esku-hartzean intentsitate maila handia eskatzen duen osotasun fisikoaren babes-maila altua eta etengabeko laguntza sozioedukati boa behar izaten dute.

- **Autonomia erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuak:** Eusko Jaurlaritzak, Autonomia erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuak, EAE osoan GZESari esleitzen zaizkion eskumenak erabiltzearen ardura du.

Eusko Jaurlaritzako gizarte-zerbitzuek GZESko bigarren-arretako gizarte-zerbitzuen zati bat eskaintzeko funtzioa izango dute, zerbitzu horien artean aipagarriak dira Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua¹⁹ (hemendik aurrera **SATEVI**) eta 1/2004 Lege Organikoak jasotzen duen genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa**.

¹⁵ Erreferentziako araudia dagoen kasuetan, hango izendapena erabili da zerbitzuak izendatzeko.

¹⁶ Gaur egun zerbitzu horiek emakumeen aurkako edozein indarkeria matxista motaren biktimak artatzen dituzte.

¹⁷ Gaur egun zerbitzu horiek emakumeen aurkako edozein indarkeria matxista motaren biktimak artatzen dituzte.


¹⁸ Gaur egun zerbitzu horiek emakumeen aurkako edozein indarkeria matxista motaren biktimak artatzen dituzte.

¹⁹ Gaur egun zerbitzu horiek emakumeen aurkako edozein indarkeria matxista motaren biktimak artatzen dituzte.

Prozedurak eta pautak:

Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatu izanaren zantzuak dituzten emakumeen laguntza eskaeren aurrean, EAEko gizarte-zerbitzuetako langileek hurrengo prozedura eta pauta orokor hauek jarraituko dituzte, gizarte-larrialdi egoerak (larrialdiko sarbide-prozedura) eta berehalako esku-hartzea behar ez duten egoeren (prozedura arrunta) artean bereiziz²⁰.

GIZARTE-LARRIALDI KASUETARAKO PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA:



ABISUA: Berehalako arreta galdatzen duten gizarte-larrialdi kasuetako artapena egitea lehen-arretako gizarte-zerbitzuei dagokie (haien arreta-ordutegian) eta gizarte-larrialdietako zerbitzuei (lehenengoen arreta-ordutegitik kanpo). Bi kasuetan abisua egiten den momentuan emango da arreta.

Gizarte-larrialdi kasuen abisua hainbat bidetatik iris daiteke: biktimaren beraren ekimenez; biktimaren senide edo hurbileko sareko pertsonaren baten bidez, beste arreta-sistema batzuen zerbitzuen bidez (batez ere Ertzaintza, osasun-zentroak edo larrialdiak), edo gizarte-zerbitzuen sistemaren beraren zerbitzuen bidez. Azken horien artean aipagarria da SATEVI telefono-zerbitzu espezializatua. Operadoreen eta erakundeen artan komeni da ezagutaraztea GZESra sarbidea izateko larrialdi-prozedura eta gizarte-larrialdien zerbitzuaren lana. Horrez gain, komeni da koordinaziorako berriazko prozedurak ezartzea polizia- eta osasun-esparruko operadoreekin.

LHENENENGO ARRETA ETA HASIERAKO BAOLORAZIOA:

Lehenengo arretak barne hartuko ditu:

- gizarte-larrialdia gertatu den lekura lekualdaketa larrialdiak ukitutako pertsonak bertan artatzeko;
- beharren hasierako balorazioa, geroagoko balorazio baten menpe.

²⁰ Gizarte-larrialdia naturak edo gizakiak eragindako aurreikusitako gertaera batengatik sortutakoa da, gaitasun pertsonalak, bitartekoak eta biziraupenerako baliabideak, harremanak edo gizarte- eta familia-sareak eta segurtasuna arriskuan jartzen dituen ukitutako pertsona edo pertsonak larriki babesgabe utziz, saihestu ezinezko berehalako larrialdietako lehen-arretaren beharrean, GZEStik gertaera horien ondoriozko beharrei heltzeko eta egoera larritzea eta kalte handiagoa sortzea saihesteko.

Hizkuntza-oztopoak, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk daudenean, itzulpengintza-zerbitzura, zeinu-hizkuntzara interpretazio-zerbitzura edo oztopo horiek gainditzeko lagun dezaketen beste zerbitzu batzuetara joko da.

Biktimak seme-alaba adingabeak edo menpeko beste pertsona batzuk baditu eta bera komisaldegira, ospitalera edo laguntza emateko guneren batera eramatea beharrezkoa bada eta, noski, emakumea hiltzen badute, aldi baterako menpeko pertsonak zain ditzakeen konfiantzazko ingurune pertsonak aurkitzen saiatuko da (biktimak aukeratutakoak) amaren adierazpenak eta kontakizunak entzuteak sor dezakeen biktimizazio sekundarioa ekiditeko. Ez bada posible, dagokien gizarte-zerbitzu espezializatuei abisatuko zaie artapenerako eta babeserako neurri egokiak har ditzaten.

Dena den, komenigarria da kontuan izatea adingabe horiei ere biktima-izaera aitortzen zaiela²¹ eta haiek babestean, haiei testigantza hartzean, etab. kontuan hartu behar diren eskubideek babesten dituztela eta hori dela eta, ireki beharreko prozeduretan txertatu behar direla.

Gizarte-zerbitzuek SOS-Deiak zerbitzuari jakinaraziko dizkiote emakumearen, neska txikiaren edo neska nerabearen segurtasuna edo osotasuna arrisku handian dagoela deritzoten egoerak kudeaketa egokiak egin ditzan (anbulantzia bidaltzea, poliziaren bertaratzea eskatzea...).

INFORMAZIOA: Biktima guztiek dituzten eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazioa jaso beharko dute. Hau da, hain zuzen:

- Estatuko eta autonomia erkidegoko legediak ematen dizkien eskubideei buruzko informazioa emango zaie.
- EAEn eskuragarri dituzten baliabideei, zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa emango zaie, bereziki haiek bizi diren udalerrikoena.
- Emakumeak adingabeekin bizi badira, indarkeriak adingabeen bizitzan duen eraginari buruzko informazioa emango zaie eta administrazio publikoek haiek babesteko dituzten betebeharrak buruzkoa.
- Bizi duten egoera justiziarik jakinarazteko duten eskubideari buruzko informazioa emango zaie. Horretarako, pairatu dituzten indarkeria-egoerak **salatzeko** eskubideari buruzko informazioa emango zaie, baita salatzeak dakartzan prozedurei, izapideei eta ondorioei buruzkoa. Era berean, jakinaraziko zaie ez dela beharrezkoa salaketa jartzea baliabideetara sarbidea izateko. Horrela, haien egoera berriazko zerbitzu batera bideratzeko aukera eskainiko zaie beharrezko laguntza juridikoa jasotzeko.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeria-kasuetan edo familia-indarkeria kasuetan babes-agindua²² eskatzeak dituen ondorioei buruzko informazioa emango zaie eta egoera justiziarik jakinarazita agindu hori eskatzeko duten eskubideari buruzkoa.
- Babes-aginduaren eskaera formalizatu aurretik edo salaketa jarri aurretik doako justiziarako eskubideari buruzko informazioa emango zaie eta doan etxeko indarkerian eta eraso sexualen biktimentzako ofiziozko txandako berriazko abokatu baten aholkuak aurrez aurre jasotzeko eskubideari buruzkoa.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuetan jakinaraziko zaie eskubide, baliabide eta prestazio batzuek baliatzeko genero-indarkeria biktima-izaeraren egiaztagiria behar dela. Horien artean bereizketa egiten da sarbidea izateko egiaztagiri judiziala (kondena-epaiaren, babes-

²¹ Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko 8/2015 Lege Organikoan, uztailaren 22koan, legalki biktima-izaera aitortu zitzairen.

²² Babes-agindua eskumena duen organo judizialak ematen duen ebazpen judizial bat da. Ematen da delitu bat izan dela ondorioztatzeko behar bezala oinarritutako zantzuak egonda, organo judizial horrek biktima arrisku-egoera objektibo batean dagoela hautematen duen kasuetan, zeintzuetan zigor-arloko prozesuaren izapidetzean zehar babes-neurriak hartzeko beharra dagoen. Babes-aginduak ebazpen judizial bakar batean emakumearen alde eta, hala badagokio, seme-alaben alde kautela-neurri penal eta zibilak hartzea eta hartzea dakar. Gainera, agindu horrekin haien alde administrazio-publikoek beharrezko laguntza eta babes-soziala eskaintzeko neurriak aktibatzen dira. Informazio gehiago lortzeko ikusi berriazko protokolo hau: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/1ai.protocolo.corrdinacion.servicios.sociales.2004.cas.pdf.

aginduaren edo biktimaren alde kautela-neurri bat jartzen duen beste edozein ebazpen judizialen bidez, edo salbuespenez, Fiskaltzaren txosten baten bidez) behar denen eta gizarte-zerbitzuen, espezializatutako zerbitzuen, edo eskumena duen administrazio publikoaren genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako harrera-zerbitzuen txosten bat, edo egiaztatzea administratiboa bezalako beste titulu bat behar denen artean.

- Administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeen kasuetan, jakinaraziko zaie salatzeak ez duela era irregularrean egoteagatik zeharpen prozedurarik irekiko edo, lehendik irekita egonez gero, zeharpen prozedura hori bertan behera utziko dela. Gainera, jakinaraziko zaie emakumea genero-indarkeriaren biktima dela ondorioztatzen den kondena-epai edo ebazpen judizial batekin, emakumeari salbuespenezko bizileku- eta lan-baimena emango zaiola, eta horrela egoera administratiboa erregular bihurtzeko aukera izango duela. Era berean, esango zaie zein baliabidetarako eta zerbitzutarako den ezinbestekoa errolatuta egotea. Jakinaraziko zaie, halaber, sententzia absoluziozkoa izanez gero, zeharpen administrazio-prozedura irekiko dela.
- Horrela, jasoko diren datuei buruzko informazio ulergarria emango zaie eta esango zaie zertarako bilduko diren, nola gordeko diren eta zein den horien erabilera egokiaren arduraduna. Datuak emateak izan ditzakeen onurei eta ez emateak izan ditzakeen ondorioei buruzko informazioa ere emango zaie, baita datu horiek zuzentzeko edo ezerezatzeko duten eskubideari buruzkoa ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla esango zaie eta jaso diren helburuarekin lotutakoek bakarrik tratatuko dituztela.

Biktima adingabeen kasuan, haiekin konfiantza osoa duten erreferentziazko pertsona heldua identifikatuko da eta informazioa emango zaio jarraitu beharreko prozedurari buruz eta eskubide juridikoei eta laguntza jasotzeko eskubideei buruz. Zaindu behar da adingabearen eta heldu arduradunaren artean ez dagoela interes-gatazkarik ikerketaren gaiari dagokionez, eta egotekotan, banatu egin beharko dira eta adingabearen eskubideak bermatzen dituen hirugarren pertsona bat edo erakunde bat aurkitu.

BAIMENA: biktimen baimen informatua lortzea beharrezkoa izango da, idatziz edo beste zerbitzu batzuetako langileei informazioa bidaltzeko frogatuta geratzen den modu batean²³.

LAGUNTZA SOZIALA EDO PSIKOSOZIALA: beharrezkoa bada biktimari fisikoki edo emozionalki osasun-zentroetara, gune polizial edo judizialen batera edo beste erakunde batzuetara laguntzea eskainiko zaio. Laguntza hori giltzarria da ukitutako emakumeei, haurrei eta nerabeei dagokienez.

- o **Lesioen edo eraso sexualaren aurrean:** biktima batek osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu edo izan ditzakeela susmatzen bada, nahiz eta begi-bistakoak ez izan, telefonoz jarriko da harremanetan dagokion mediku-zerbitzuarekin egokia den arretarako sarbidea koordinatzeko, emakumeak berariaz baimena eman ondoren. Beharrezkoa bada, biktimari lagunduko zaio eta lesioen parte ofizialari buruz informazioa emango zaio.

Indarkeria sexual gertatu berriaren kasuan (azken 240 orduetan gertatutakoa, 10 egunetan) biktimari ospitale hurbilenerako larrialdi-zerbitzura lagunduko zaio. Biktimari esan behar zaio egon daitezkeen frogak ezabatzea ekiditeko helburuarekin ahal den neurrian garbitzea edo arropaz aldatzea saihesteko, baita jatea eta edatea ere aho bidezko erasorik izan bada. Abisua emango da osasun-sistemak dagokion prozedura aktiba dezan eta auzitegiko medikua (sistema judizialekoa) bertaratzeko beharrezko kudeaketak egin ditzaten.

- o **Salaketa jartzeko edo segurtasunerako arriskua badago:** Emakumearen edo menpeko pertsonen osotasun fisikoa arriskuan dagoela balioesten bada, poliziaren arreta eskatuko da SOS-Deiak zerbitzuaren bidez, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren komisaldegietan. Biktimak salaketa jarri nahi

²³ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakunde 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

duela adierazten badu, polizia-etxe batera laguntzea eskainiko zaio, edo mugikortasun-arazoak baditu edo ospitalean edo etxebizitzan ezindua badago (esate baterako, ezgaitasuna duten emakumeen kasuan) Polizia bertaratzea eska daiteke.

OFIZIOZKO JAKINARAZPENA: langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorri, Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsoneri lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezten. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera (15. artikulua), umeen edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoera baten zantzuez jabetzen den operadore orok Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio eta ustezko babesgabetasun kasu bat antzematen denean haurrak artatzen espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.


Dena den, ofizioz hasten diren prozedura guztiak jakinarazi behar zaizkio biktimari.

BIDERAKETA: beharrezkoa denean eta ahal bezain laster, dagokion zerbitzuetara bideratuko da kasua, biktimak horretarako baimena eman ondoren. Bereziki, bizitokirako beharra dagoela balioesten bada, berehalako harrera-baliabidearekin harremanetan jarriko da eta biktima eta ardurapeko seme-alaba adingabeak zentrorra lekualdatzeko prozesua kudeatuko da segurtasuna bermatuz. Emakumeak erabakiko du ardurapean dituen pertsonen zentrorra laguntzea nahi duen (adingabeen kasuan) edo bere ingurune konfiantzazko norbaitekin geratzea nahiago duen edo hobe deritzon adingabeentzako edo menpeko pertsonentzako berariazko baliabide batera eramatea. Hargatik eragotzi gabe adingabeek eragiten dien gai guztietan entzunak izatera duten eskubidea baliatzea. Baliabide horrekin partekatuko da kasuaren behin-behineko balioespena, betiere biktimak baimena eman badu.

Biktimaren segurtasuna arriskuan badago, Poliziari laguntza eskatuko zaio biktima eta bere ardurapean dauden seme-alaba adingabeak edo beste menpeko pertsona batzuk harrera-zentrorra lekualdatzea kudeatzeko, segurtasuna bermatuz.

Gizarte larrialdietako zerbitzuek kasua artatu dutenean, zerbitzu horiek oinarritzko gizarte-zerbitzuei kasuaren sarreraren berri eman beharko diete eta behin-behineko balorazioa eman beharko diete. Garrantzitsua da, halaber, behin-behineko balorazioari dagokionez, kasu horiek jakinarazten dituzten operadoreei erantzuna ematen saiatzea.

BEREHALAKO ESKU-HARTZERIK BEHAR EZ DUTEN KASUETARAKO PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA:



SARBIDEA: GZESra sartzeko bide nagusia lehen-arretako edo udalen oinarrizko gizarte-zerbitzuak dira. Emakumeen aurkako indarkeria matxista-kasu bat hainbat bidetatik iris daiteke zerbitzu horietara: biktimaren beraren ekimenez; GZESren beste zerbitzu batzuen bidez —horien artean nabarmentzekoak dira gizarte-larrialdietako zerbitzuak, SATEVI telefono-zerbitzu espezializatu eta haurrei edo nerabeei arreta ematean, edo bazterketa- edo mendekotasun-kasuetan arreta ematean espezializatutako beste zerbitzu batzuk—; beste arreta-sistema batzuen zerbitzuen bidez (Ertzaintza, BLZ, ikastetxeak, Lanbideren bulegoak, osasun-zentroak...); edo komunitate-esparruan lan egiten duten beste gizarte-eragile batzuen eskutik, askotan berdintasun sailekin lotutakoak (elkartek, emakumeen etxeak, ahalduntze-eskolak...).

Bereziki garrantzitsua da beste arlo batzuetako operadorea eta erakundeen artean GZESra sartzeko prozedura eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen funtzioa ezagutaraztea. Eskaera esplizituei erantzuteaz gain, indarkeria matxista susmatzen den kasuetan detekzio goiztiarra ere bultzatu behar da, nahiz eta emakumeak edo neska txikiak hala dela ez antzeman. Garrantzitsua da sistema horretako langileek (batez ere, haurrak artatzeko zerbitzu espezializatuak) eta beste batzuetakoek (batez ere, ikastetxeak, osasun-zentroak...) arrisku-adierazleei buruzko ezagutzak partekatu ahal izatea.

Biktima horiek lehentasunezko arreta jasotzeko eskubidea dute, hori dela eta, ahalik eta azkarren emango zaie arreta (hasierako balorazioa egiteko hitzordu bat hartuta). Aldez aurreko hitzordurik gabe artatuko dira gizarte-larrialdietako prozedura ez badagokie ere, presazko esku-hartzea edo ahalik eta erantzun bizkorrena

behar duten kasuak. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako arreta ordutegitik kanpo, presazko arreta-eskaerak gizarte-larrialdietarako zerbitzuen bitartez bideratuko dira gizarte-larrialdien prozedura jarraituz.

Sarbidean azpimarratu beharra dago SATEVI telefono-zerbitzu espezializatuaren papera lehenengo harremanerako baliabide gisa (24 orduko arreta urteko 365 egunetan), baita biktimei eta horien senideei eta langileei (kasuarekin edo kasurik gabe) informazioa eta aholkuak emateko zerbitzu gisa ere. Zerbitzu horretatik, egokia bada, biktima udalen gizarte-zerbitzuetara bideratuko da, intentsitate handiagoko aurrez aurreko laguntza jasotzeko aukera izan dezan.

HASIERAKO HARRERA ETA BALORAZIOA: Elkarrizketa bat egingo da pertsonari harrera egiteko, entzuteko, pertsonak gizarte-zerbitzuetara jotzeko duen arazoia ezagutzeko eta indarkeria-egoeraren, beharren eta gizarte-gaitasunen balorazioa egiteko (fitxa sozial bat beteko da). Gizarte-larrialdi zerbitzuetatik bideratuta iristen diren kasuek berretsi eta osatu beharko den behin-behineko balorazioa izango dute.

Emakumearen eta seme-alaben kontra erabili ahal izan diren askotariko indarkeria-moten adierazleak antzemateari arreta eskaini behar zaio, biktimak ahoz adierazten dituztenetatik hasita, zeintzuk agerikoenak izan daitezkeen, naturalizatuenera, ezkutukoenera edo oraindik gure gizartean tabu direnetera, familia-esparruko indarkeria sexuala esate baterako.

Hizkuntza-oztopoak, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk daudenean, itzulpengintza-zerbitzua, zeinu-hizkuntzara interpretazio-zerbitzua edo oztopo horiek gainditzen lagun dezaketen beste zerbitzu batzuk erabiliko dira.

Hasierako balorazioaren ondoren, GZESren esku-hartzearen premia egiaztatu ahalko da eta posible da horrek jarraipena behar izatea edo behar ez izatea:

- **Dauden indarkeria matxista mota askotarikoren bat pairatzen ari delako susmoa badago, baina biktimak ez badu bere burua biktimatzat,** baliabide soziokomunitarioei buruzko informazioa eskainiko zaio, zeintzuk isolamendua apurtzen eta kontzientzia hartzen lagun dezaketen (emakumeen etxeak, elkarteak, etab.). Ez da biktimaren baimen informaturik gabe esku-hartzerik antolatuko.
- **Kasuak GZESren esku-hartze puntuala behar** duela balioesten bada (adibidez, pertsonak dauden indarkeria matxista askotarikoren bat pairatu badu, baina momentuan ez badago egoera horretan eta laguntza puntuala bakarrik behar badu, eta diagnosiaren eta esku-hartze planaren beharrik ez dagoela balioesten bada), laguntza eskainiko da laguntzak, izapide juridikoak, etab. izapidetzeko eta kudeatzeko. Era berean, interesdunari jarraipendun esku-hartze bat egiteko aukera eskainiko zaio bere egoera aldatzen bada edo bideratzen den baliabideetako langileek horretarako beharra ikusten badute.
- **GZESen jarraipendun esku-hartzearen beharra dagoenean,** GZESk eskaini diezazkioken laguntzak orienta ditzakeen gizarte-diagnosi bat egin ahalko da.

Hasierako balorazioaren berri emango zaio kasua bideratu duen operadoreari.

INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA: Biktima guztiek jaso behar dute dituzten eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazioa kapitulu honetako aurreko atalean "informazioa" izenburupean zehazten denaren arabera.

Era berean, indarkeriatik irteteko prozesua planifikatzeko eta prestatzeko laguntza emango zaie, haien errealitatea eta behar zehatzak kontuan hartuz eta agertoki eta ondorio posibleak aurreikusiz, horretarako behar duten denbora emanaz eta erabakiak hartzeko autonomia erraztuz.

Biktimak salaketa bat jarri nahi badu gertuen dagoen ertzain-etxera lagunduko zaio, edo mugikortasun-arazoak baditu edo ospitalean edo etxebizitzan ezindua badago (esate baterako, ezgaitasuna duten

emakumeen kasuan) Polizia bertaratzea eska daiteke. Egokia denean, biktima-izaeraren administrazio-egiaztagiria²⁴ eta erroldatzea izapidetuko dira dagozkien baliabideen bidez.

BAIMENA:

Biktimen baimen informatua lortzea beharrezkoa da²⁵, hurrengo prozedura hauek gauzatzeko:

- Beste zerbitzu bateko langileei informazioa igortzea (hainbat erakunde edo sistematakoak).
- Ordezkaritzarako prozedurak edo izapideak hastea.
- Esku-hartze plana onartzea.

ESKU-HARTZEA ETA GIZARTE-DIAGNOSIA: Gizarte-diagnosi²⁶ pertsonaren egoeraren balorazio profesionala egitean datza hainbat adierazletik aurrera eta esku-hartzearekin jarraitzeko modua erabakitzean behar dituen laguntzen intentsitatea identifikatuz.

Momentu horretan erreferentziatzeko pertsona aukeratuko da eta horretarako, izan badago, aurreko lotura mantentzen saiatuko da. Pertsona hori izango da gizarte-diagnosi hori egitearen arduraduna eta aurrerago arreta-ibilbidearen koherentzia eta esku-hartzeen koordinazioa bermatzearena.

Oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik hasierako gizarte-diagnosi bat edo gizarte-diagnosi bat egin daiteke edo gizarte-diagnosi sakon bat udalen gizarte-zerbitzuek intentsitate handiagoko esku-hartze baten beharra ikusten dutenean edo bigarren-arretako gizarte-zerbitzuetara bideraketa bat egiteko.

Kasuaren esku-hartzerako ikuspegi egokia izateko komenigarria da alde batetik, kasua bideratu duten operadoreei informazio baliagarria eskatzea eta bestetik, egokia denean partekatutako diagnosi bat egitea haurrak, nerabeak, baztertutako pertsonak edo mendekotasuna dutenak artatzeko beste zerbitzu batzuekin (ikastetxeekin, lehen-arretako osasun-zentroekin...), eta horrek bide ematen dezake aurrerago ere koordinatzeko.

Era berean, gizarte-diagnosiaren emaitzetatik mendekotasun-balorazio eta -diagnosiaren beharra ondorioztatzen denean, foru-aldundien gizarte-zerbitzuei edo bigarren-arretako gizarte-zerbitzuei eskatuko zaie helburu horretarako ezartzen diren ohiko tresna teknikoak erabiliz diagnosi hori egiteko.

Bereziki garrantzitsua izango da haurrak artatzeko zerbitzuak eta indarkeria matxistan espezializatutakoak koordinatzea biktima guztien behar eta eskubideei era egokian erantzungo duten diagnosiak egiteko.

Larrialdizko esku-hartzeren bat behar den kasuetan zerbitzuaren esleipena egingo da oraindik gizarte-diagnosia egin ez bada ere. Diagnosia larrialdizko esku-hartzea hasita dagoenean egingo da eta behin betiko arreta pertsonalizatuko plana berrestea ahalbidetuko du.

Beharrezkoa da zehaztasunez pertsona helduen indarkeria matxistarekin lotutako babesgabetasuna berariaz balioesteko diagnosi-tresna espezifiko bat izatea, ahalbidetzen duena indarkeriaren eraginaren-maila eta alderdiak balioestea eta hainbat profesionalen arteko esku-hartze bateraturako plana orientatzea.

Momentu horretan baloratzen da biktimaren edo hirugarren pertsonen osotasun fisiko eta emozionalerako arrisku-maila, baita biktimaren baldintzak, gaitasun pertsonalak eta izan ditzakeen beharrak. Horrez gain, bere kontra indarkeria erabiltzen ari den testuingurutik irteteko biktimak beste bizitoki baterako duen beharra baloratuko da (erasotzailearekin bizi delako, pertsonen sal-erosketa sare batean dagoelako, senide baten sexu-abusuak pairatzen dituelako, enplegu-emailearen etxean bizi bada hark erasotzen duelako,

²⁴ 2021eko abenduaren 2ko Ebazpena, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasuneko Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Erabakia argitaratzen duena, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzkoa.

²⁵ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakundek 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

²⁶ Informazio gehiago izateko ikusi 353/2013 DEKRETUA, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

auzokide batek jazartzen duelako...). Biktimak berariazko baimen libre eta informatua ematen duenean gizarte-zerbitzuek egindako gizarte-arriskuaren balorazioa partekatu ahalko da.

Era berean, komenigarria da egoitza-baliabidearen arduradunak baliabide horien erantzukizuna duen administrazio publikoan nahastea baliabidearen balorazioa eta moldaketa eta hartara sarbidea izateko aukerak berresteko²⁷ eta sarbide horren beharra berresteko, lehenengo elkarrizketan behar hori ikusten bada.

Gizarte-diagnosiak ahalbidetzen du zehaztea behar den GZESren jarraipendun esku-hartzea lehen-arretako gizarte-zerbitzuen, bigarren-arretakoen edo bien erantzukizuntzat (partekatutako esku-hartzea) jotzen den.

- **Lehen-arretako esku-hartzea bakarrik behar da:** lehenengo-arretaren arduratzat hartuko dira biktimek babes-maila handiaren beharrik edo etengabeko laguntza sozioedukatiboaren beharrik ez dutela balioesten den kasuak.
- **Lehen- eta bigarren-arretaren arteko partekatutako esku hartzea behar da:** Esate baterako, babesgabetasun-egoeran egonda udalaren pisuetan bizi diren eta haurren eta nerabeen ardura duten emakumeen kasuan izan daiteke, udal-mailan ez dauden zerbitzu espezializatuak behar dituzten biktimen kasua, etab. Egoera horietan intentsitate handieneko esku-hartzea izango duela aurreikusten den langilea aukeratuko da erreferentziatzeko pertsona gisa.
- **Bigarren-arretako esku-hartzea bakarrik behar da:** Biktimak babesgabe daudela eta haien osotasun fisikoa edo emozionala arriskuan dagoela balioesten den kasuak. Kasu horietan lehen-arretatik bigarren-arretara bideraketa egingo da (gizarte-diagnosia eta gizarte-txostena bidalita) eta orokorrean, beste erreferentziatzeko pertsona bat esleituko zaio biktimari (lehen-arretakoa mantentzea komenigarria dela ikusten den kasuetan, esate baterako, arreta-psikosozial anbulatorioa erabiltzen duten pertsonen kasuetan).

OFIZIOZKO JAKINARAZPENA: Langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoarekin) bat etorritik, Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezken. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzen den operadore orok Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaio.

ESKU-HARTZEA, PLANA: Momentu horretan, gizarte-diagnostikoak hori gomendatzen badu, erreferentziatzeko profesionalak biktimaren parte-hartzearekin Arreta Pertsonalizatuko Plan bat (APP) diseinatuko du. Plan horretan biktimaren ahalik eta inplikazio handiena izatea eta bere beharretarako balibide egokienak esleitzea bilatuko da. Emakumeek gain, haurrek eta nerabeek ere haien APP propioa izan behar dute. Haurren eta nerabeen kasuan, komunikazioa haien adinera moldatzea ahalbideratzen duten gaitasunak eta baliabideak izatea garrantzitsua da. Plan horretan esku-hartzearen funtsa eta helburu nagusiak ezarri behar dira, baita esku-hartzea garatuko duten baliabideak eta zerbitzuak ere.

²⁷ Informazio gehiago izateko kontsultatu 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituenak.

Planaren lanketarako komenigarria da beste baliabide eta zerbitzu batzuetako langileen parte-hartzea izatea ere eta *a priori* egokienak diren udalen eta foru-aldundien baliabideetara sartzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea. Dena den, biktimekin berretsi eta negoziatu beharko da APPa (bai emakumeekin, bai haur eta nerabeekin) eta esku-hartzean zehar planaren jarraipenean haren partaidetza izan moldaketarik behar den ikusteko.

Partekatutako esku-hartzeen kasuetan koordinazioa funtsezkoa da. Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) esku-hartzean intentsitate handiena duen langileak egingo du, nahiz eta beste langilearekin partekatu kasuan-kasuan dagozkion udalaren baliabideen (GZESak biktime horientzako eskuragarri dauden zerbitzuen eta prestazioen aukera zabala du) esleipenaren zehaztapen teknikoak berresteko. APPa biktimek berresteko saio horietan eta jarraipenean komenigarria litzateke lehen-arretako langileak eta bigarren-arretakoak parte hartzea.

Beste laguntza batzuk behar badira GZESaren esku-hartzean (lehenengo-arretakoan eta bigarren-arretakoan), erreferentziazko langileak biktime beste sistema publiko batzuetan eskuragarri dauden baliabide eta laguntzetara (hezkuntza, etxebizitza, enplegua, justizia, polizia, osasuna...) sarbidea izateko izapideekin eta kudeaketekin orientatuko du, baita erakunde pribatuetara sartzekoekin ere. Horretarako komenigarria da langileek sartzeko baldintzei buruzko informazio eguneratu eta zehatza izatea.

Biktimek seme-alaba adingabeen ardua badute, emakumeekin eta adingabeekin egiten diren esku-hartzeak koordinatu beharko dira, adingabeak indarkeria matxista-egoeraren eraginpean egoteagatik biktime izan zein erasoen biktime zuzenak izan. Horretarako, haurrak artatzeko zerbitzuak eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako zerbitzuak aldi berean ekiten ari badira, emakumeen errehabilitazio-prozesu osoa uztartzen duen esku-hartze plan koordinatu bat diseinatu behar da, adingabeei buruzko esku-hartzea barne hartzen duena eta prozesu osoan zehar haien arteko lotura babesten duena.

Biktima adingabeen kasuan bereziki garrantzitsua izango da haien interes gorena zaintzea. Beharrezkoa dela ikusten denean, haiekin esku-hartzea posible izango da, nahiz eta aitak horretarako baimenik ez eman, ama sare publikoko programa edo zerbitzuren bateko laguntza jasotzen ari denean, nahiz eta emakumeak tratatu txarregatik salaketarik jarri ez izan eta bikote-harremana hausteko prozedura zibilik hasi ez izan, betiere emakumea artatu duen administrazioko agintari eskudunak igorritako indarkeria-egoeren egiaztatzea badu. Aitari alde aurretik abisatu beharko zaio.

Emakumeek amatasun positiboa garatzeko hainbat laguntzaren beharra duten kasuetan (gabeziadun emakumeen etan edo babes emateko joera handiagoa edo txikiagoa duten emakume kaltearen etan), haurrak artatzeko zerbitzuen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako zerbitzuen arteko lankidetzak bultzatuko da. Lan horren barnean emakumearen, haurren eta nerabeen beharrak eta eskubideak artatzen direla bermatzeko ikuspegiak bateratu behar dira.

Biktimek indarkeria matxistaz gain, beste kontingentzia batzuk dituztenean eta gizarte-bazterketa larria bizi dutenean; kontsumoekin, osasun mentalekin, ezgaitasunarekin edo mendekotasunarekin lotutako arazoak dituztenean, beharrezkoa izango da GZES barnean beste zerbitzu batzuekin koordinazio-ildoak ehuntzea arreta-plana eta bere askotariko beharretara hoberen egokitzen diren baliabideak eta ekintza-plana zehazteko. Bizitegi-bazterketa estrategietan indarkeria matxista-arloko berriazko ikuspegi bat txertatzea bultzatuko da eta bultzatuko da, halaber, hainbat sistemaren parte-hartzea duten koordinazio-eta sortzea bereziki zailak diren kasuetako esku-hartzerako.

Berdintasun sailen koordinakuntzaren eta agintaritzaren menpe dauden tokiko koordinazio- eta lidergo-protokoloek kasuen erantzunaren inguruko ikuspegi osoa izatea errazten dute eta parte-hartzen duten operadore eta sistema guztiek neurri bateratuak hartzea ere bai.

Nabarmendu beharra dago esparru soziosanitarioan indarkeria matxistari aurre egiteaz gain, adikzioekin, osasun mentaleko arazoekin, etab. lotutako kontingentziak dituzten emakumeekin, haurrekin eta nerabeekin

egiten diren esku-hartzeen eraginkortasuna handitzeko koordinazioak duen garrantzia. Gizarte-zerbitzuetako langileen parte-hartzea bultzatu beharko da ESlen eskualdeko koordinaziorako mahaietan.

APPen garapena errazteko, beharrezkoa bada, helburu espezifikoak eta garatu beharreko ekintza espezifikoak ezartzen dituen Banakako Arreta Plan bat (BAP) diseinatu ahalko da. Adingabeek haien BAP propioa izan behar dute, amenaren desberdina, eta haien behar zehatzak behar bezala entzuten direla eta kontuan hartzen direla ziurtatzeko baliabideak bideratu behar dira. BAParen diseinua eta aurreikusitako helburuak bete diren neurtzeko jarraipena, biktimaren parte-hartzearekin, esleitutako baliabide edo zerbitzu guztietatik egin daiteke, horregatik garrantzitsua da zerbitzu bakoitzeko langileen eta APParen ardura duen erreferentziatzko langilearen artean koordinazio arina dagoela bermatzea.

Bereziki garrantzitsua da erkidegoaren eremuan detekzioan, prebentzioan, artatzean, orientazioan eta esparru komunitarioko erreparazioan lan garrantzitsua egiten duten operadoreekin elkartzunak ehuntzea (emakumeen etxeak, ahalduntze eskolak, indarkeria matxistaren biktime diren emakumeek elkarri laguntzeko tokiko taldeak, elkarteak...) sistema horretako zerbitzuek egiten den esku-hartzea operadore horiek egin dezaketenarekin indartzeko eta biktimek GZEstik ateratakoan errekupeziarantz eta ahalduntzerantz egiten dituzten ibilbideetan laguntza jasotzen jarraitzea errazteko. Espazio komunitarioak biktimen erreparaziorako egokiak dira eta bertan biktimen arteko topaketak bultzatzen dira elkarri laguntzeko.

Garrantzi handia du esku-hartze prozesu osoan zehar lehen-arretaren eta gizarte-zerbitzuen bigarren-arretaren artean koordinazioa izateak, bereziki arreta mailen arteko bideraketa-kasuetan partekatu beharreko informazioari dagokionean.

Birbiktimizaziorako arriskua murrizteko sistema horretako edo horren kanpoko sistemetak beste zerbitzu batzuei kasuari buruzko informazio pertsonala partekatuko zaie biktimek horretarako idatziz berariazko baimen libre eta informatua ematen badu.

IRTEERA, BIDERAKETAK: Bigarren-arretaren esku-hartzea bukatutakoan, orokorrean, komenigarria izaten da kasuak berriz lehen-arretara bideratzea sistematik behin betiko atera aurretik horren beharra duten prozesuen jarraipenari jarraitasuna emateko. Kasu horietan, idatziz egingo dira udalen gizarte-zerbitzuetarako bideraketak emakumearen egoera ezagutzea errazteko.

GZESren esku-hartzearen beharra bukatzen denean garatutako prozesuei amaiera emango zaie bide tekniko eta administratiboetatik eta espedientea itxiko da. Irteera batzuk bat etor daitezke beste sistema batzuetako baliabideetarako (enpleguaren, etxebizitzaren, osasunaren, eta abarren arloetakoak) bideraketekin. Kasu horietan komenigarria da horien eboluzioaren jarraipena egitea.

2.5.2. Osasunaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pauta orokorrak

Araudia:

8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena euskal aginte publikoek hiritarrekin oso garrantzi handia duen eskubide baten, hain zuzen, osasunaren babesaren eta zaintzaren eskubidearen, garapenaren eta aplikazioaren inguruan duen konpromezua antolatzeko funtsezko tresna da.

Osasun Sailari dagokio autonomia erkidegoko pertsona guztien osasunaren zaintza eta Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoari esleitzen zaio bere menpeko zerbitzuen erakunde publikoen bidez osasun-zerbitzuak eskaintzeko helburura betetzeko ahalmen osoa.

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunen zorroa eta bera eguneratzeko prozedura ezartzen dituenak II. eranskineko 6.6.3. atalean eta IV. eranskineko 2.8. atalean lehen-arretako, ospitaleko arretako eta larrialdietako langileen funtzioen artean biltzuen du eskumena duten agintariei jakinarazi beharreko egoeren berri ematea, batez ere genero-indarkeriaren kasuan.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak VII. kapituluan ezartzen du "Euskadiko Osasun Sistemak emakumeen aurkako edozein indarkeria motaren biktimei bermatu behar die osasuna babesteko eta osasun-arreta izateko duten eskubidea, araz aitortua; barnean sartzen da indarkeria-egoerak detektatzea eta biktimen egoerari jarraipena egitea, guztiz oneratzeko den arte, jasandako indarkeriatik datozen ondorioei edo sintomatologiari dagokienez, edozein dela ere biktimaren administrazio-egoera". Indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeei ere berariazko arreta espezializatua bermatzen die, bereziki indarkeriaren biktimei izateaz gain, gaixotasun mentalak, izaera nahasmenduak edo adikzioak dituztenei.

Zehazki azpimarratzen da indarkeria matxistaren biktimei ekiteko moduan esparru soziosanitarioa eta genero-ikuspegia abiapuntu dituen berariazko arreta psikologikoa eskaintzea.

Gainera, sistemak "bitartekoak jarriko ditu ospitaleko larrialdi-zerbitzu guztietan langile espezializatuak egon daitezkeen, bortxaketen edo beste sexu-indarkeria batzuen biktimei azterketa mediko eta mediko-forentse egokia egiteko, traumatismoarekin lotutako laguntza emateko, orientatzeko eta dagozkien baliabideetara bideratzeko. Forentseek ospitale-zerbitzu horietara joan beharko dute, kontuan izan gabe biktimek delituaren egilearen aurkako legezko ekintzak abiarazteko hasierako borondatea izan duen. Horretarako, beharrezkoa bada, dauden protokoloak egokituko dira 62. artikuluan aipatutako erakundearteko hitzarmenen esparruan".

Bestalde, **147/2015 Dekretuak, uztailaren 21ekoak, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duenak**, 7. artikuluan ezartzen du emakumeen aurkako indarkeriaren biktimek osasun-politika berezietarako eskubidea duten talde zaugarri bat osatzen dutela. Zehazki, eskubidea dute sistema soziosanitariora berdintasun-baldintzetan sarbidea izatea bermatzeko neurri bereziak behar dituzten talde zaugarrietako pertsonen berariazko babesa eskaintzen dieten protokoloak edo programak jarraitzeko.

Gaur egun, Osakidetzan hau da erreferentziarako protokoloa: 2019ko Jarduketa gida osasun arloko profesionalentzat, genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko.

Esku-hartzen duten operadoreak:

Erakunde Sanitario Integratuak (ESIk) eskaintzen dituen zerbitzuetan arreta-protokoloak aplikatzearen ardura du eta tokiko beste erakunde batzuekin akordioak egiten ditu indarkeria-egoera duten emakumeen eta bere seme-alaben artapena eraginkortasunez koordinatzeko.


- **Lehen-arretako zentroak:** Lehen-arreta erkidegoko pertsonen osasun-arazo gehienak konpontzera bideratutako laguntza ematen duen laguntza-maila da, arreta denboran zehar luzatzea, langileen balio-aniztasuna, talde-lana eta irisgarritasuna oinarri dituena. Guzti hori ospitale-mailarekin, osasun mentalaren sarearekin, gizarte-zerbitzuekin eta osasun publikoaren sarearekin.
Lehen-arretak funtsezko funtzioa du euskal osasun-sisteman, osasuna sustatzeko eta gaixotasunak ekiditeko zerbitzuen sistemaren operadore nagusia baita. Gainera, sistemara sartzeko sarbidea da eta bertan paziente bakoitzak zuzenean artatzen duen edo bere beharretara hoberen egokitzen den baliabidera orientatzen duen erreferentziazko langile bat du.
- **Etxez etxeko laguntza:** Lehen-arretaren esparruko laguntza hau arrazoi fisiko edota klinikoengatik osasun-zentrora mugitu ezin diren eta laguntzarako behar larria ez dutela balioesten den pertsoneri etxean osasun-laguntza emateko diseinatuta dago. Pazienteen tratamendua haien ingurunean egitea bultzatzen da eta ospitaleetara behar ez diren joan-etorriak egitea saihesten da. Etxez etxeko laguntza eman dezakete lehen arretako erizainek, familiako medikuntzako langileek, larrialdietako etxez etxeko laguntza-taldeek osasun zentroaren ohiko ordutegitik kanpo, larrialdietako mediku-zerbitzuek egoera larriagoetan edo etxez etxeko ospitalizaziorako taldeek.
- **Ospitaleko arreta:** Ospitaleko arreta osasun-sistema publikoaren antolaketako bigarren laguntza-maila da. Ospitale-zerbitzu batean ospitaleratzen diren pazienteei ematen zaien arreta da eta kanpoko kontsulta, larrialdiak etab. izan daitezke. Hainbat espezialitateko zerbitzuak eskaintzen dira, proba osagarri zehatzak, laguntza ospitalariorako zerbitzuak eta orokorrean ospitalizaziorako zerbitzuak (etxez etxeko ospitalizazioa eta tarteko egonaldiak barne). Arretan horren esparruan daude egonaldiak, kanpoko kontsultak, analisiak, radiografiak, etab.
- **Larrialdiak:** Larrialdiak bi testuingurutan artatu daitezke: lehen-arreta etengabeko arretarako guneen (EAGen) bidez eta ospitaleko arreta Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuen bidez. EAGak ospitalekoak ez diren larrialdietako arreta-puntuak dira, horien bidez osasun-zentroaren arreta ordutegitik kanpo eta jaiegunetan hil ala bizikoak ez diren larrialdiak artatzen dira. Gaixotasun akuatuak eta kronikoak dituzten pertsoneri ere arreta eskaintzen zaie dituzten osasun-beharren arabera osasun-zentroko ordutegitik kanpo bada. Puntu horiek familia-medikuntzako langileek, erizainek eta administrariak osatzen dituzte. Bestalde, Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuek larritzat hartzen diren larrialdiak artatzen dituzte eguneko 24 ordutan.
- **Larrialdiak:** Euskadin larrialdien eta larrialdietako osasun-arretaren koordinazioaz arduratzen den erakundea da (anbulantziak, medikalizatutako helikopteroa, etab.). Esparru horretan dago Osasun Aholkua, erizaintzako profesionalek urteko 365 egunetan 24 orduz ematen duten aurrez aurrekoa ez den arreta zerbitzua. Osasun-arloko langileen aurrez aurreko esku-hartzeen beharrik ez duten ohiko osasun-arazoak artatzeko erreferentzia-puntu bat da. Telefono bidezko osasun-aholkua, paziente kronikoen jarraipena, osasun-arloan interesa duten gaiei buruzko informazioa, Emergentziak Osakidetzarekin koordinazioa, abisuen bilketa eta momentuan egokiak diren baliabideen esleipena, etab. eskaintzen du.
- **Pediatria eta familia-medikuntza:** Sistemak haurrentzako eta nerabeentzako pediatriako eta familia-medikuntzako zerbitzuak eskaintzen ditu, bai lehen-arretaren esparruan bai ospitaleko arretarenean. Laguntza eskaintzen duten testuinguruaren arteko koordinazioa giltzarri da, bereziki pediatriarekin eta familia-medikuntzarekin eraginpeko haurrak dauden indarkeria matxistako kasuetan.
- **Osasun mentaleko zerbitzuak:** Osasun mentaleko sareak ospitalez kanpoko arretaren eta ospitaleko arretaren bidez gaixotasun mentalak dituzten pertsonak artatzen ditu. Sare horrek zerbitzu-sorta zabala eskaintzen du: ospitaleak, osasun-mentaleko zentroak, eguneko ospitaleak, etab.
- **Ospitaleko edo osasun-zentroko gizarte-zerbitzuak:** Ospitaleek eta osasun-zentroek pazienteei laguntza behar duten gizarte-arretako testuinguruetan lagun diezaieketen gizarte-langileak dituzte.

Prozedurak eta pautak:

Osasun-langileak indarkeria-ekintzen zantzuak eta ondorioak identifikatzeko gaituta egon behar dira. Hasiera betean ez direnean adierazte agerian jarri behar dituzte. Eta beste erakunde batzuekin koordinatzeko estrategia orokorra behar duen erantzun egoki eta bateratua erraztu.

Emakumeen kontrako indarkeria matxista-egoera baten edo haren susmoaren aurrean, EAEko osasun-langileek jarraian deskribatuko diren esku-hartze prozedurak jarraituko dituzte, zeintzuek osatzen duten Jarduketa gida osasun arloko profesionalentzat, genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean Euskadin izeneko.

PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA: LEHEN ARRETA, ARRETA ESPEZIALIZATUA ETA LARRIALDIETAKO ARRETA



PREBENTZIOA ETA DETEKZIO GOIZTIARRA: Osasun-zerbitzuak biztanleria osoarentzat ohiko balibidea dira eta indarkeria ekiditen funtsezko papera izan dezakete eta, bereziki, antzematen. Lehen-arretako zentroetako, arreta espezializatuko zentroetako, larrialdi-zerbitzuetako, etxez etxeko arretako, ospitalizazioko eta abarreko langileak indarkeria mota hori era aktiboan bilatzen inplikatu behar dira.

Hori lortzeko, osasun-arazoaren diagnostikoa eta tratamenduan genero-ikuspegia txertatu behar dute. Gainera, genero-indarkeria bizi izan duten emakumeei egiten zaizkien esku-hartzeek ez dute estereotipo sexistarik izan behar, edozein emakumeri gerta dakiok, ez dago tratatu txar egoera bizi duen emakumearen profirik. Hala ere, kontuan hartu behar da egoera batzuk zaurgarriagoak direla eta osasun-zerbitzuetara iristeko zailtasun handiagoak dituzten emakumeak daudela: zentzu horretan arreta berezia eskaini behar zaie bizitzako fase-aldaketekin lotutako egoerei: ezkongai-aldia, haurdunaldi-prozesua, erditzea eta erdiberriaroa, banaketa- eta jubilazio-prozesua; mendekotasunarekin lotutako egoerak, aniztasun

funtzionala, migrazioa, laneko zailtasunak eta langabezia, gizarte-isolamendua, mendekotasun ekonomikoa eta azken finean, esplotaziorako babesgabetasun-egoerak eta gizarte-bazterketa.

Emakumearen eta seme-alaben kontra erabili ahal izan diren askotariko indarkeria-moten adierazleak kontuan hartu behar dira, biktimek ahoz adierazten dituztenetatik hasita, zeintzuk agerikoenak izan daitezkeen, naturalizatuenera, ezkutukoenera edo oraindik gure gizartean tabu direnetera, familia-esparruko indarkeria sexuala esate baterako. Indarkeriaren biktimek diren emakumeen seme-alabak ere indarkeria antzemateko faktore erabakigarri izan daitezke. Komenigarria litzateke esparru horretako langileek beste sistema eta esparru batzuetako langileekin arrisku-zantzuei buruzko jakintzak partekatu ahal izatea eta susmoen aurrean zalantzak argitzea.

SUSMOA DAGOENEAN AZTERTZEA:

Baliteke osasun-sistematik pasatzen diren biktimek indarkeria-egoera esplizitu egitea edo ez egitea. Ez badute esplizitu egiten, baina indarkeria-egoera bat dagoela susmarazi dezaketen zantzuak eta sintoma ikusten direnean, beharrezkoa da aztertzea emakumeari galdetuz, bilatzeko jarrerarekin, haren denborak errespetatuz, indarkeria-egoera izan badagoela berresteko edo baztertzeke.

Ez bada indarkeriarik identifikatzen historial klinikoan erregistratuko da eta lehen-arretatik jarraipena egiteko ekintzak aktibatuko dira. Berretsi gabeko susmoa dagoenean interesgarria izan daiteke ahalduz eta erabakiak hartzeko gaitasuna indartu ditzaketen baliabide soziokomunitarioei buruzko informazioa eskaintzea (emakumeen erakundeak, emakumeen etxeak...). Hala ere, ez diete baliabide horiei pertsonari buruzko informaziorik emango, aldez aurretik informazio argia jaso ondoren hark berriaz horretarako baimena ematen ez badu.

HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA INDARKERIA KASUEN AURREAN: Indarkeria-kasu bat antzematen denean (emakumeak berak adierazi duelako, susmoa egon ondoren ondorioztatu delako, bideratu duen beste baliabide batek horren berri eman duelako, etab.), laguntzarako dagoen testuingurua zeinahi dela (larrialdiak, lehen-arreta, kanpoko kontsulta, ospitalizazioa edo besteren bat), gutxienez hasierako kontsulta bat aktibatuko da, kasua antzeman duen osasun-langileak garatuko duena. Adingabeen kasuan prozedura bera jarraituko da, hurrengo pauso hauek dituen:

1. **Entzutea.**

2. **Harrera eta enpatia.**

3. **Arriskuen estimazioa:** Kontuan hartuko dira hil edo biziko egoeren seinaleak eta sintomak, halakorik egon ezker, eta egoerak emakumeari eta seme-alabei dakarkien arrisku psikologikoa, baita gizarte-egoera, segurtasuna, isolamendurako aukera, etab. Egoeraren arabera hautatuko da zein baliabidetara bideratuko den:

- Biktimari larrialdietako laguntza psikosozialaren balioa adieraziko zaio (laguntza emozionala, lehen-sorospen psikologikoak...) eta gizarte larrialdietako zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio ahalik eta azkarren bertaratu daitezzen.
- Indarkeria jasaten duen emakumeak seme-alabak baditu langilea harremanetan jarriko da erreferentziako pediatria, familia-medikuntza edo erizaintza zerbitzuekin, edo erreferentziako erizainarekin edo zentroko gizarte-langilearekin, beti amaren baimenarekin egoera zehatz batzuetan izan ezik (nahasmendu mentalaren adierazle nabarmenak, abandonua...).
- Emakumearen eta seme-alaben segurtasunerako beharrezkoa izatekotan zentroko segurtasun-zerbitzuei horren berri emango zaie (zerbitzu hori dagoenean) edo Ertzaintzari laguntza eskatuko zaio erasotzailea bertan izatea ekiditeko.
- Lesio edo eraso sexual gertatu berriaren kasuan (azken 240 orduetan gertatutakoa, 10 egunetan), biktimek Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzu hurbilenetara bidaliko da larrialdizko balorazio fisikoa eta psikologikoa egin diezaioten.

- Gertatu berriak ez diren lesioen edo eraso sexualen kasuan hurbilen dagoen ospitalera bidaliko da balorazio fisikoa eta psikologikoa egin diezaioten eta egokiak diren kontsultak aktibatuko dira. Hori ez da beharrezkoa izango emakumea zuzenean bere lehen-arretako zentrora joan bada.
- Biktima adingabea bada, harekin konfiantza osoa duen erreferentziatzeko pertsona heldua identifikatuko da eta informazioa emango zaio jarraitu beharreko prozedurari buruz eta eskubide juridikoei eta laguntza jasotzeko eskubideei buruz. Zaindu behar da adingabearen eta heldu arduradunaren artean ez dagoela interes-gatazkarik ikerketaren gaiari dagokionez, eta egotekotan, banatu egin beharko dira eta adingabearen eskubideak bermatzen dituen hirugarren pertsona bat edo erakunde bat aurkitu.
- Biktimak hizkuntza-oztopoak, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk dituenean, itzulpengintza-zerbitzura, zeinu-hizkuntzara interpretazio-zerbitzura edo oztopo horiek gainditzen lagun dezaketen beste zerbitzu batzuetara joko da.

4. **Erregistratzea:** Jarduketa guztiak emakumearen historia klinikoan erregistratuta geratuko dira. Jarduketak erregistratzeari esker errazagoa da laguntzaren jarraitasuna eta esparru ezberdinetako langileen arteko koordinazioa; informazioa ematen die emakumeari edo auzialdiko epaitegiei, benetako prebalentzia ezagutzea ahalbidetzen du, etab.²⁸ Emakumeari era ulergarrian jakinaraziko zaio zein datu jasoko diren, zertarako jasoko diren, nola gordeko diren eta zein den horiek zuzen erabiltzearen arduraduna. Datuak emateren onurei buruzko informazioa eta ez ematearen onura posibleen informazioa emango zaio, baita zuzentzeko eta ezereztatzeko eskubideari buruz ere. Gainera, datuak konfidentzialak direla jakinaraziko zaio eta jaso diren helburuarekin lotutakoek bakarrik tratatuko dituztela. Datu horiek beste zerbitzu batzuei lagatzea aurreikusten bada (hainbat erakunde edo sistematakoak), pertsonak horren berri izan behar du eta baimena emateko edo ez emateko aukera eman behar zaio²⁹ eta idatziz edo frogatuta geratzeko moduan jaso beharko da.

5. **Ofiziozko jakinarazpen judiziala:** Langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin bat etorritik (259. artikulua eta hurrengoekin bat etorritik), Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezken. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Era berean, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzen den operadore orok Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutzuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimei ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaie.

6. **Altaren txostena:** Kasua larrialdietan, ospitalean, larrialdietako etxez etxeko arretan, etxeko ospitalizazioan edo larrialdi-zerbitzuetan antzeman denean, hasierako oinarritzko jarduna bukatutakoan alta-txosten bat igorriko da.

²⁸ Jarduketa gida osasun arloko profesionalentzat, genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko izeneko gidak <https://www.euskadi.eus/genero-indarkeriaren-eta-sexu-erasoen-aurrean-euskadin-nola-jardun-jakiteko-jarduketa-gida/web01-a2inform/eu/> erregistroari, era egokian kodifikatzeari eta konfidentzialtasunari buruzko informazio zehatza eskaintzen du.

²⁹ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakundek 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

7. **Jarraitasuna eta bideraketa:** Eskaintzen den laguntzaren jarraitasuna bermatu behar da, laguntzeko esku-hartzea eta jarraipena egiteko esku-hartze patxadatsua eta planifikatua egin dezakeen erreferentziatzko langileak emakumea artatzen jarrai dezan. Horretarako, pazienteari erreferentziatzko langilearekin harremanetan jartzea gomendatzen zaio eta, aldi berean, ohiko langileak egoeraren berri izatea eta parte-hartzea errazteko komunikabideak ezartzen dira. Kasua erreferentziatzko langileak antzeman badu, jarraitasuna laguntzeko esku-hartze baterako programatutako hitzordu batekin bermatuko da jarraitasuna.

LESIOEN EDO ERASO SEXUAL BATEN AURREAN:

Biktima batek osasun-laguntza galdatzen duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu edo gertatu berriak ez diren eraso sexualak pairatu baditu, osasun-zentroak edo ospitaleetako larrialdi zerbitzuak artatuko du dagokionaren arabera.

Eraso sexualak gertatu berriak badira (azken 240 orduetan izan badira edo legezko interesa duten laginak lor daitezkeelako susmoa badago), ospitalean baloratu beharko da pazientea eta esango zaio arropaz ez aldatzeko eta felaziorik izan bada, ahal den neurrian, ez jateko ez edateko.

Laguntza ematen den edo emakumea dagoen testuingurua zeinahi dela ere (larrialdietako zerbitzua dela aurreikusten da) ahalik eta giro intimoena sortzen saiatuko da erasoak jasan duen emakumea itxarongelan geratzea ekidinez eta konfiantzazko pertsona batek lagun diezaion erraztasunak jarritz (biktimak hala nahi badu).

- **Koordinazioa epaitegiarekin eta lesioen parteak:**

Eraso sexual gertatu berri zaien (azken 240 orduetan izandakoa) eta salaketa jarrita duten emakumeen kasuan ospitaleak epaitegiari egoeraren berri emango dio, epailearen baimena lortu ondoren, auzitegiko medikua ospitalera joan dadin eta osasun-azterketa egin dezan eta delitu mota hori aztertzeko baliagarriak izaten diren laginak bil dituzan. Ez bada salaketarik jarri eta biktimak delitua salatu nahi duela adierazten badu, ospitaleak Poliziari abisatuko dio beharrezkoa bada ospitalean bertan deklarazioa hartzeko (aldi berean beharrezko beste baliabide edo zerbitzu batzuk aktibatuz, hala nola ofiziozko txanda, etab.).

Nahiz eta biktimak salatzeak asmorik ez izan edo salatu nahi duen oraindik ez erabaki izan, egokia bada, ospitaleak ofiziozko epaitegiari informazioa emango dio eta biktimarekin harremanetan jarriko du, epailearen baimenaren ondoren, auzitegietako medikua osasun-azterketa egitera eta delitu mota horien ikerketarako beharrezko laginak biltzera ospitalera bertaratu ahal izateko izateko. Auzitegiko medikua bertaratzeko irekitako auzi judizial bat egon behar da (aldez aurreko salaketa edo ofiziozko jakinarazpena).

Esku-hartzea emakumeekin eta harentzako lan egite aldera egin behar da, inoiz ez bere kontra. Honela igorriko da lesioen parteak:

- betiere emakumeak eskatzen edo baimentzen badu. Arrisku handirik ez dagoela estimatzen bada, emakumea egitea erabilgarria edo ona izango dela konbentziturik dagoenean bidaliko da, etorkizunari buruzko alderdi zehatzei buruzko erabakiak hartzen ari den momentuan.
- emakumeak laster indarkeria-gertakari larria jasateko arrisku handia duela estimatzen denean.

- **Laguntzeko jarduketa:**

Emakumeak erasoaren ondorengo eragin psikikoak ahalik eta gehien murrizteko, ebaluazio ginekologikoa eta auzitegi-medikuntzakoa batera egingo dira, azterketa aldi berean eta koordinatuta eginez. Pauso horretan egon daitezkeen lesioa fisikoak eta psikikoak artatuko dira eta beharrezko frogak guztiak egingo dira, legezko interesa izan dezaketen laginak hartzea barne. Ginekologoak txosten-klinikoa egingo du, epaitegiko medikuak berriz, epaitegirako medikuaren txostena egingo du (hark jardutea egokia denean).

Gertatu berri ez diren lesioen edo eraso sexualen kasuan, laguntza hainbat kontsulten bidez eman ahalko da eta bukatzean, egokia bada, medikuaren txostena egingo da. Era berean, ospitalean alta eman ondoren

jarraipena egin ahalko da ginekologiako edo STGen kanpo-kontsultetan eta, egokia bada, baita gaixotasun infekziosoen kanpo-kontsultetan ere.

Alta emateak eta ospitalean kasua ixteak ez du lehen-arretan emakumearekin lanean jarraitzea galarazten. Gainera, emakumea behar duen beste edozein baliabidera bideratu ahalko da.

LAGUNTZARAKO ETA JARRAIPENERAKO JARDUNA INDARKERIA KASUETAN: laguntzarako eta jarraipenerako jarduna pazientearen erreferentziazko langileari dagokio, bereziki lehen-arretatik (osasun-mentalaren unitateetan artatzen diren emakume batzuen kasuan, espazio hori jarduketaren erantzule izan daiteke, lehen-arretan erreferentziazko langileekin lankidetzan). Haurren eta nerabeen kasuan prozedura bera jarraituko da.

Jardun hau hainbat pausotan egituratzen da:

1. **Ebaluazioa:** Arriskuak estimatzeko eta objektibatzeko unea da, baita emakumeak dituen laguntzak eta aukerak baloratzeko ere. Emakumearen aldaketa-faseak eta erritmoak ebaluatzen joatea egokia izango da jarduna bizi duen momentura egokitu ahal izateko³⁰.
2. **Ekintza-plana:** Emakumea dagoen aldaketa-fasea kontuan hartuta (begiespenaren aurrekoa, begiespena, prestaketa...) beharren eta dauden mugen arabera jarraitzeko ekintza-plan bat proposatzen da.
3. **Barneko osasun-koordinazioa:** Barneko osasun-koordinazioa funtsezkoa da, bereziki pediatriarekin edo familia-medikuntzarekin (seme-alabak daudenean), osasun-mentalarekin edo, eragina izan dezakeela uste bada, emakumea artatzen ari den beste edozein dispositibo edo langilerekin.
4. **Kanpoko koordinazio soziosanitarioa:** Kanpoko koordinazio soziosanitarioa ere giltzarri da ekintza koordinatuak eta koherenteak gauzatzeko. Baterako erantzun hori arreta soziosanitarioa ematen duten taldeen oinarritik abiatuta antolatuko da. Talde horiek batez ere lehen-arretako esparruko eta udalen gizarte-zerbitzuetako langileez osatuta daude eta batera lan egiten dute kasuak antzemateko, arreta eskaintzeko, aholkatzeko eta emakume eta seme-alaba horientzat eskuragarri dauden baliabideetara orientatzeko.

Aldi berean, emakumea beste sistema eta esparru batzuetako zerbitzuetara bideratu ahalko da, esate baterako polizialera (Ertzaintza) edo judizialera (BLZ) salaketa jarri nahi badu, oinarritzko gizarte-zerbitzuetara laguntzen eta beste baliabide batzuen kudeaketan informazioa eta aholkuak eta laguntza jasotzeko, etab., biktimak alde informatutako baimena eman ondoren.

5. **Erregistratzea:** Jarduketa guztiak emakumearen historia klinikoan erregisratuta geratuko dira. Erregistro honek errazagoa egiten du laguntzaren jarraitasuna eta sistemako langileen arteko koordinazioa, informazioa ematen die emakumeari edo auzialdiko epaitegiei, indarkeriaren prebalentziari buruz gehiago jakitea ahalbideratzen du, etab.
8. **Ofiziotik jakinarazpen judiziala:** Kasua antzematen duen langilearen ardura den moduan, laguntza- eta jarraipen-jarduketa egiten duen erreferentziazko langilearen ardura ere bada Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofiziotik jakinaraztea antzematen dituen emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsoneri lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezten, hori jasotzen baita Prozedura Kriminalaren Legean (259. artikuluan eta hurrengoetan). Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta

³⁰ Jarduketa gida osasun arloko profesionalentzat, genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko izeneko gidak <https://www.euskadi.eus/genero-indarkeriaren-eta-sexu-erasoen-aurrean-euskadin-nola-jardun-jakiteko-jarduketa-gida/web01-a2inform/eu/> Prochaska eta DiClementeren eredutik abiatuta aldaketa-prozesuetan sakontzen du.

babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Era berean, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak (15. artikuluan) ezarritakoarekin bat etorriz, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzean Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

2.5.3. Justiziaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pauta orokorrak

Araudia:

Botere Judiziala erregulatzen du **1978ko Espainiako Konstituzioak** VI. tituluan eta hori garatzen duen legeak, hau da, **Botere Judizialaren 2015eko Lege Organikoak** (1985ekoa aldatzen duenak), zeinek konstituzioa, epaitegi eta auzitegien gobernua eta funtzionamendua, eta Botere Judizialaren funtzioak arautzen dituen. Bestalde, **Euskal Herriko Autonomia Estatutuak** I. eta III. tituluetan Euskal Autonomia Erkidegoko justizia antolatzen du.

Konstituzioak justiziaren administrazioa Estatuaren eskumena baizik ez dela jasotzen du (149. artikuluan) eta, hobeto gara dadin, Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide pertsonalak eta materialak eskualdatzen zaizkio. Euskadin justiziaren administrazioa Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren menpe dago eta **urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak haren egitura, osatzen duten organoak eta horien funtzioak ezartzen ditu.**

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, bereizketa bat egiten du indarkeria mota horren eta Zigor Kodean eta Kode Zibilean biltzen diren gainerako delituen artean eta Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko epaitegiekin egitura propioa sortzen du, baita lege-laguntza jasotzeko berariazko txanda bat ere. Horrez gain, hainbat botere publikori eskatzen die koordinatzeko emakumeen aurkako indarkeria saihesten dela bermatzeko eta, kasua denean, erantzuleak era egokian zehartzea. 32. artikuluan ezartzen da botere publikoek emakumeen aurkako indarkeria egintzak saihesteko, artatzeko eta pertsegitzeko jarduketan antolaketa bermatzen duten lankidetzarako planak garatzeko betebeharra dutela, eta jarduketa horiek beste batzuen artean justiziaren administrazioaren parte-hartzea behar dutela.

Aurrerago, 2007an onartu zen **genero indarkeriaren alorreko Estatu Paktuak** araudietan aldaketak eskatzen dituen hainbat neurri bildu zituen, baita arreta eta koordinazioa emateko zerbitzuetan moldaketak ere. Beste gai batzuen artean, arlo horretan lan egiten duten langileak genero-indarkerian eraginkortasunez trebatzerantz eta espezializatzerantz aurrera egitea erabaki zen. Izan ere, elementu hori giltzarri da erantzun judizial egokia emateko eta mandatu hori betearazteko onartu zen **5/2018 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa erreformatzen duena; genero-indarkeriaren alorreko estatu ituna aplikatzeko presako neurriei buruzkoa**. Horrela, itunari erantzunez, esparru horretan genero-indarkeriaren aurkako probintziako koordinazio-batzordeak sortu dira biktimei ematen zaien insituzio-mailako erantzuna hobetzeko eta genero-indarkeriaren aurka borroka egitearen ardura duten agintarien eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.

2019an Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiarekin batera **EAEko Emakumeen genero-indarkeriaren arloko epaitegietarako plan integrala** onartu zuen. Bertan ekintza multzo bat proposatzen da eta horien bidez, eraikin judizialen egokitzapenean eta beste baliabide batzuen hornikuntzan aurrera egitea aurreikusten da itunaren eta **apirilaren 27ko Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legearen aurreikuspenak bermatzeko.**

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak 60. artikuluan ezartzen du autonomia erkidegoko administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoaren menpe dauden epaitegietako langileriaren bidez, lehenetsunezko eta kalitatezko arreta eraginkorra bermatu behar diela biktimei, beste batzuen artean neurri hauen bidez:

- a) Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari, epaitegietako talde psikosozialei eta Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroko taldeei zuzkidura eta prestakuntza egokia ematea.
- b) Itxarote-denborak laburtzea eta biktimen segurtasunerako neurriak hartzea gunee judizialean eta biktima ikertzen den akusatuarekin aurrez aurre ez jartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan eta lege honetan aurreikusten diren emakumeen aurkako indarkeria

matxistakasuak argitzen diren beste jurisdikzio-organo batzuetan ingurumen- eta teknologia- ekipamendu egokiak ezarriz.

- c) Beharrezko baliabide pertsonal eta materialak izatea Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegietako eta auzitegietako osoko balorazio forentseko unitateek haien lana eraginkortasunez egiteko aukera izan zezaten, aditu-froga psikologikoak barne, indarkeria erabili dela eta zein larritasun izan duen frogatzeko beharrezko balioesten direnean.
- d) Delitugilea espetxetik irtetea, bai behin-behinean bai behin betiko, biktimei jakinarazten zaiela bermatzeko behar diren baliabideak antolatzea.

Era berean, ezartzen du autonomia erkidegoko administrazioak hau bermatu behar duela:

- a) Biktimei lege-laguntza emateko guardia-txandak erabilgarri egotea. Ziurtatu behar da eguneko 24 orduetan barruti judizial bakoitzean gutxienez emakumeen aurkako indarkeria matxistan espezializatutako abokatu bat dagoela guardian.
- b) Derrigorrezko hasierako prestakuntza eta prestakuntza jarraitua izan behar duten abokatuek emandako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako berariazko lege-arreta integrala, berehalakoa eta espezializatua jasotzeko eskubidea, prozesu penaletan akusazio-akzioa egikaritzea barne hartzen duena, eta banaketa-, deuseztasun- edo dibortzio-demanda zibilaren aurreko behin-behineko neurriak edo egiteko batasunen kasuan kautelazko neurriak eskatzea.
- c) Jarraipenerako eta kontuak emateko bide eraginkorrak egotea.
- d) Informazio juridikoa jakinarazteko eta irisgarri bihurtzeko sistemak moldatzea edo malgutzea desgaitasunak dituzten pertsonak testuinguru horietan egoera zaurgarrian egotea ekiditeko.

Esku-hartzen duten operadoreak:

- **Botere Nagusiaren Kontseilu Judiziala:** Botere Judiziala osatzen duten epaitegiak eta auzitegiak Botere Nagusiaren Kontseilu Judizialak gobernatzeko dituzten eta haren menpe daude, ondorioz, epaileak ere kontseilu horren menpe daude. Funtzio nagusia epaileek eta magistratuek epaiak era independentean ematen dituztela bermatzea da, inork oztopatu gabe. Hala ere, nahiz eta Botere Judizialaren gobernu-organoa den, ez da jurisdikzio-organo bat, ez du funtzio judizialean parte hartzen, funtzio hori epaileena eta auzitegiarena da. Epaitezko funtzioaren arloko Estatuko organo nagusia Auzitegi Gorena da.

Beste batzuen artean, nabarmentzekoak dira:

- **Justizia Auzitegi Nagusia:** Euskadiko justiziaren administrazioaren antolakuntzan maila gorena duen auzitegia da. EAE osoan eskumena du eta bertan agortzen dira errekurtsio guztiak, hargatik Auzitegi Gorenean aurkeztu behar diren errekurtsioei kalte egin gabe.
- **Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak (EAIE):** Zehazki genero-indarkeriatik eratorritako delituak bideratzen dituzten jurisdikzio-organoak dira (1/2004 Lege Organikoaren arabera) biktimei espezializatutako erantzun judizial bat bermatzeko. Osatzen dituzten epaileak arloan espezializatuta daude. Epaitegi horrek adostasuna izan duten presako eginbidetzat hartzen diren gaietan epaia emateko eskumena du.
- **Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko eskumena ere baduten Lehen Auzialdiko Epaitegiak (EAI Erik ez dagoen barruti judizialean):** Botere Nagusiaren Kontseilu Judizialak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko auzigaien arduraren Lehen Auzialdiko Epaitegi bati ematea erabaki dezake, zeinek beste gai batzuekin batera horien arduraren hartuko lukeen. Instrukzioko epaitegi horiek eskumenen artean delitu-egitateak izan daitezkeenak ikertzea dago eta kautelazko neurriak ere eman ditzakete.
- **Lehen Auzialdiko Epaitegiak eta Guardiako Instrukzioa:** Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek ez dituzte eguneko 24 orduetan guardiarik egiten, haien ordutegitik kanpo kasuak guardian dagoen epaitegian artatzen dira eta ondoren eskumendun instrukzioko epaitegira bidaltzen dira (Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia edo mistoa).
- **Espezializatutako zigor-arloko epaitegia:** Zigor-arloko epaitegiek, beste batzuen artean, 5 urte arteko zigor askatasun-gabetzaileak dituzten delituak epaitzearen eskumena dute. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan bideratzen diren auzigaien ezagutza errazteko, eta

dauden auzigaien kopurua kontuan hartuta, probintzia bakoitzeko epaitegi bat edo hainbat epaitegi espezializatu beharko dira.

- **Probintzia-auzitegia:** Probintzia-auzitegiak delitu larriak epaitzeko eskumena du.
- **Fiskaltza:** Justiziarekin lankidetzan aritzen den organo bat da eta, nahiz eta Botere Judizialaren barnean egon, era hierarkikoan antolatutako organo propioen bidez betetzen ditu bere funtzioak; bertako langileak ez dira epaileak eta organikoki ez daude haien menpe, fiskalak Estatuko Fiskaltza Nagusiaren menpe daude. Arlo horretan genero-indarkerian espezializatutako Fiskaltza bat dago eta aretoko ordezkari bat horren buru da Estatu osoaren mailan.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko auziak delitu publikoak direnez Fiskaltzak ofizios jarduten du beti, nahiz eta emakumeak prozeduratik aldentzea erabaki. Fiskaltzaren funtzio nagusia, orokorrean gizartearen alde, arauak betetzen direla zaintzea da.

Euskadiko hiru lurraldeetako bakoitzean probintziako Fiskaltza bat dago. Horietako bakoitzak fiskalburu bat du agintean eta egoitzak ditu probintzia-auzitegiaren egoitzak dauden tokietan (Bilbon, Donostian eta Gasteizen). Probintziako Fiskaltza horietako bakoitza sailetan banatuta dago eta horietako bat genero-indarkeriarako da. Gainera, maila altuago batean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia dago.

- **Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Sailburuordetza:** Sailburuordetza horrek eraikin judizialak kudeatzeaz gain, justizia administrazioarentzako baliabide ekonomiko eta pertsonalak ere kudeatzen ditu. Zehazki, euskal erakundearen menpe daude kudeaketako, izapidetze eta laguntza judizialeko, auzitegiako medikuntzako, psikologiako, itzulpengintzako, peritutzako, normalizazio linguistikoko eta abarreko kidegoetako funtzionarioak.

Sailburuordetza horren ardura diren zerbitzu nagusien artean aipagarriak dira:


- **Biktimari Laguntzako Zerbitzua (BLZ):** Zigor-sistemari lotuta delitu baten biktima izan diren pertsonen laguntzea du helburu, "Zigor-arloko prozesuan biktimaren estatutua" izenekoan biltzen diren berme guztiak betetzen direla ziurtatuz. Laguntza juridikoa, psikologikoa eta soziala ematen die delituen biktimei prozedura polizialen eta judizialen esparruan eta, gainera, Delituen Biktimaren Estatutuan ezartzen diren funtzioak garatzen ditu.
- **Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua:** EAEko epaitegiei, auzitegiei eta Fiskaltzari laguntza ematen dion organoa da eta bere funtzioen oinarria auzitegiako medikuen peritu-txostenak egitea da (gorpua altxatzea, erasoaren biktimak aztertzea, indarkeriak eragindako edo kriminalitatearen susmoa eragiten duten heriotzen autopsiak, trafik-istripu baten ondorengo lesioen balorazioa...). **Osoko Balorazio Forentseko Unitateak (OBFUak)** institutu barneko auzitegiako psikiatria-sailaren menpeko diziiplina anitzeko taldeak dira eta genero-indarkeriako eta familia-indarkeriako kasuen txosten osoa egitea dute helburu.
- **Lantalde psikosozial judiziala:** justizia administrazioaren organo tekniko laguntzailea da eta psikologiaren, gizarte-lanaren eta gizarte-hezkuntzaren arloetako administrazio-langileek osatzen dute. Taldearen funtzioa epaitegiei, auzitegiei eta Fiskaltzari familiako jurisdikzioan eta adingabeen zigor-arloko jurisdikzioan berariaz laguntza orokorra eta teknikoa ematea da. Era independentean, baina sistema juridikoaren barnean, peritu-txostenak igortzeaz edo kidego judizial eta fiskalek eskatutako laguntza emateaz arduratzen da. Horren jarduna auzitegi-tako esparrura mugatzen da eta gai psikologikoei, soziofamiliarrei edo edukatiboiei erantzuten die, eta ikerketaren helburuaren arabera erantzun horiek erabaki judiziala hartzeko erabilgarriak izan daitezke.
- **Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroa:** neurriren batean genero-indarkeriaren lotutako gaiak dituzten ebazpen judizial guztiak telematikoki bidaltzen dituzten EAEko koordinazio-puntua da (babes-aginduak, kautelazko urrutze-neurriak, epaiak eta espetxe-neurriak).

- **Bideraketa judizialeko familia-elkarguneak:** disziplina anitzeko teknikari baten laguntzaz eta segurtasunerako eta ongizaterako berme guztiekin krisi-egoeran dauden —edo egoera horretan egon gabe jarraipena egiteko eta laguntza sozioedukatiboa jasotzeko zerbitzuaren beharra duten— familiako kideekin topaketak egiten diren gune neutro eta egokia da, betiere ebazpen judizialaren bidez ezartzen da horren erabilera.
 - **Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua:** Alde batetik, gizartearentzat lan egiteko zigorrak behar bezala betetzen diren baloratzeaz arduratzen da, baita hala izan dadin planak egiteaz eta jarduteaz ere; bestetik, zigor askatasun garbitzaileak eta epaitegiek eta EAeko auzitegiek ezarritako segurtasun-neurriak eteteaz arduratzen da. Zigortuak gure erkidegoan bizitokia dutenean ere jarduten du, nahiz eta epaia beste erkidego bateko epaitegi edo auzitegi batetik etorri.
 - **Interpretazio eta itzulpengintza-zerbitzua:** Zigor-arloko epaiketetan eta pertsona doako justiziaren onuradun den kasu zibiletan, justiziaren administrazioak ofizioz zerbitzu hau eska dezake eta administrazio hori arduratuko da kostuz.
- **Abokatuak elkargoa:** Hiru elkargo daude, Euskadiko lurralde bakoitzean bana eta hirurek Legelarien Euskal Kontseilua osatzen dute. Elkargo bakoitzak Orientazio Juridikoko Zerbitzu bat izan behar du doako laguntza juridikoa eskatzen duten pertsonen alde aurretik eskubide horretara iristeko bete behar dituzten baldintzei buruzko aholkularitza emateko eta doako justizia izapeidetzeko. Hala ere, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak erabakitzen du pertsona bati doako justizia eskaintzen zaion ala ez. Ondoren, abokatu elkargoei antolatzen eta kudeatzen dute zerbitzu hori, elkargokideen artean ofiziozko txanda bat ezarriz. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean abokatuaren berehalako laguntza oso eta espezializatua ematea helburu duen berariazko ofiziozko txanda bat dute: berehalakoa da kasu larrietarako abokatuak eguneko 24 orduetan daudelako eskuragarri; osoa da laguntzaren fase guztietan abokatu bakar batek esku-hartzea aurreikusten delako bai prozesu zibiletan bai penaletan; eta espezializatua ofiziozko txandan parte hartu eta jarraitu ahal izateko abokatuak gaian gutxiengo prestakuntza bat izatea eskatzen zaielako.

Prozedurak eta pautak:

Epaileek eta auzitegiek Konstituzioaren eta legeen esparruan beren eginkizunak gauzatzeko duten independentzia osoaren aitortzea errespetatuz, justiziaren arloko hainbat operadorek delitu bat izan dela ondorioztatzeko behar bezala oinarritutako zantzuak egonda emakumearen aurkako indarkeria-egoera bat antzematen edo sumatzen dutenean kontuan hartu beharreko prozedura eta pautak planteatzen dira.

PAUTA ETA PROZEDURA OROKORREN MAPA:



SARBIDEA: Sistema judizialera sarbidea salaketa bat jartzearen bidezkoa da, edozein polizia-etxetan (egitateak EAEn gertatzen badira ahal bada hurbilen dagoen ertzain-etxean jarri beharko da) edo gardian dagoen epaitegian.

Biktima batek salaketa bat jartzeko edo laguntza legala jasotzeko interesa adierazten duenean, bai polizia-etxean bai epaitegi batean, deklarazioa hartu aurretik bi zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio: BLZarekin, bere eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazio eta orientazio egokia jaso ahal izateko, eta dagokion ofiziozko txanda espezializatuarekin prozedura judizialari buruzko informazio zehatzagoa eskaini diezaion eta aholkularitza legala eman diezaion.

Gainera, sistemara sarbidea izaten da beste sistema bateko zerbitzuren batetik Poliziari, epaitegi bati edo Fiskaltzari ofiziozko jakinarazpen bat egiten zaionean. Edozein sistematik ofiziozko jakinarazpen bat egiten denean, Fiskaltzak dagokion ikerketa-prozedura irekiko du eta bereziki zainduko du indarkeria mota horren biktimek informazioa era argi eta irisgarrian jasotzea.

Biktimaren bikotekideak, bikotekide ohiak edo beste senide batek indarkeria matxista erabili duen kasuetan, Ertzaintzak epaitegiari bidaliko dio irekitako txosten bakoitzean poliziak egin duen arriskuaren estimazioa. Justiziaren esparrura sartzeko bide nagusietako beste bat BLZ da.

LESIOEN EDO ERASO SEXUALEN AURREAN: biktima batek osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu edo izan ditzakeela susmatzen bada, nahiz eta begi-bistakoak ez izan, BLZa telefonoz jarriko da harremanetan dagokion mediku-zerbitzuarekin egokia den arretarako sarbidea koordinatzeko, emakumeak baimena eman ondoren. Biktimari laguntza fisikoa eskainiko zaio behar badu eta lesioen parte ofiziala ematearen garrantziaren berri emango zaio.

Indarkeria sexual gertatu berriaren kasuan (azken 240 orduetan gertatutakoa, 10 egunetan) biktimari ospitale hurbileneko larrialdi-zerbitzura laguntzea eskainiko zaio. BLZa arduratu ahalko da laguntza fisiko hori emateaz, ohiko ordutegian, edo Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak (gizarte-zerbitzuetako sistemakoa) edo Polizia. Azken kasu horretan biktimak nolabaiteko arriskuan egoten jarraitzen badu.

Biktimari esan behar zaio egon daitezkeen frogak ezabatzea ekiditeko helburuarekin, ahal den neurrian garbitzea edo arropaz aldatzea saihesteko, baita jatea eta edatea ere aho bidezko erasorik izan bada. Osasun-sistemak abisua emango du prozedura aktibatzeke eta, egokia bada, epaitegiari egoeraren berri emateko, epailearen baimena lortu ondoren, zaintzan dagoen auzitegiko medikua bertaratu dadin eta biktimari osasun-azterketa bat egin diezaion delitu mota horietako ikerketarako baliagarriak izan daitezkeen laginak jasotzeko (larrialdietako parte).

Auzitegiko medikua bertaratzeko irekitako auzi judizial bat egon behar da. Osasun-zentroak epaitegiari (salaketa batetik aurrera edo ofizioz) gertatu berri den eraso-sexual kasu bat (azken 240 orduetan gertatutakoa) jakinarazten badiu, auzitegi-mediku bat bertaratzeko eskatuz, berehala epailetza edo Fiskaltza prozedura (eginbideak hastekoa) irekitzen hasiko da. Epaitegiak auzitegiko medikuari prozedura-zenbakia emango dio medikua ospitalera joan dadin eta, biktimaren baimenarekin, auzitegiko osasun-azterketari ekin diezaion, lagin biologikoak har ditzan eta Toxikologia Institutura bidal ditzan, horiek jaso, ikertu eta biltegitartzeko, biktimak momentu horretan salaketarik ez jartzea erabakitzen badu ere. Ondoren, jarduketak artxibatuko dira.

INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA: BLZak biktima guztiei bere eskubideei buruzko eta dauden baliabideei buruzko informazioa emango die. Hau da, hain zuzen:

- Estatuko eta autonomia erkidegoko legediak ematen dizkien eskubideei buruzko informazioa emango zaie.
- EAEn eskuragarri dituzten baliabideei, zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa emango zaie, bereziki haiek bizi diren udalerrikoena.
- Emakumeak adingabeekin bizi badira, indarkeriak adingabeen bizitzan duen eraginari buruko informazioa emango zaie eta administrazio publikoek haiek babesteko dituzten betebeharrei buruzkoa.
- Bizi duten egoera justiziarik jakinarazteko duten eskubideari buruzko informazioa emango zaie. Horretarako, pairatu dituzten indarkeria-egoerak salatzeke eskubideari buruzko informazioa emango zaie, baita salatzeak dakartzan prozedurei, izapidetza eta ondorioei buruzkoa. Era berean, jakinaraziko zaie ez dela beharrezkoa salaketa jartzea baliabideetara sarbidea izateko. Horrela, haien egoera berriazko zerbitzu batera bideratzeko aukera eskainiko zaie beharrezko laguntza juridikoa jasotzeko.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeria-kasuetan edo familia-indarkeria kasuetan babes-agindua³¹ eskatzeak dituen ondorioei buruzko informazioa emango zaie eta egoera justiziarik jakinarazita agindu hori eskatzeko duten eskubideari buruzkoa.
- Babes-aginduaren eskaera formalizatu aurretik edo salaketa jarri aurretik doako justiziarako eskubideari buruzko informazioa emango zaie eta etxeko indarkerian eta eraso sexualetan biktimentzako berriazko ofiziozko txandako abokatu baten aholkuak aurrez aurre eta doan jasotzeko eskubideari buruzkoa.

³¹ Babes-agindua eskumena duen organo judizialak ematen duen ebazpen judizial bat da. Ematen da delitu bat izan dela ondorioztatzeke behar bezala oinarritutako zantzuak egonda, organo judizial horrek biktima arrisku-egoera objektibo batean dagoela hautematen duen kasuetan, zeintzuetan zigor-arloko prozesuaren izapidetzean zehar babes-neurriak hartzeko beharra dagoen. Babes-aginduak ebazpen judizial bakar batean emakumearen alde eta, hala badagokio, seme-alaben alde kautela-neurri penal eta zibilak hartzea eta hartzea dakar. Gainera, agindu horrekin haien alde administrazio-publikoek beharrezko laguntza eta babes-soziala eskaintzeko neurriak aktibatzen dira. Informazio gehiago lortzeko ikusi berriazko protokolo hau: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/1ai.protocolo.coordnacion.servicios.sociales.2004.cas.pdf.

- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuetan jakinaraziko zaie eskubide, baliabide eta prestazio batzuez baliatzeko genero-indarkeria biktima-izaeraren egiaztagiria behar dela. Horien artean bereizketa egiten da sarbidea izateko egiaztagiri judiziala (kondena-epaiaren, babes-aginduaren edo biktimaren alde kautela-neurri bat jartzen duen beste edozein ebazpen judizialen bidez, edo salbuespenez, Fiskaltzaren txosten baten bidez) behar denen eta gizarte-zerbitzuen, espezializatutako zerbitzuen, edo eskumena duen administrazio publikoaren genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako harrera-zerbitzuen txosten bat, edo egiaztagiria administratiboa bezalako beste titulu bat behar denen artean.
- Administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeen kasuetan, jakinaraziko zaie salatzeak ez duela era irregularrean egoteagatik zeharpen prozedurarik irekiko edo, lehendik irekita egonez gero, zeharpen prozedura hori bertan behera utziko dela. Gainera, jakinaraziko zaie emakumea genero-indarkeriaren biktima dela ondorioztatzen den kondena-epai edo ebazpen judizial batekin, emakumeari salbuespenezko bizileku- eta lan-baimena emango zaiola, eta horrela egoera administratiboa erregular bihurtzeko aukera izango duela. Era berean, esango zaie zein baliabidetarako eta zerbitzutarako den ezinbestekoa errolatuta egotea. Jakinaraziko zaie, halaber, sententzia absolutuzkoa izanez gero, zeharpen administrazio-prozedura irekiko dela.
- Horrela, jasoko diren datuei buruzko informazio ulergarria emango zaie eta esango zaie zertarako bilduko diren, nola gordeko diren eta zein den horien erabilera egokiaren arduraduna. Datuak emateak izan ditzakeen onurei eta ez emateak izan ditzakeen ondorioei buruzko informazioa ere emango zaie, baita datu horiek zuzentzeko edo ezerezatzeko duten eskubideari buruzkoa ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla esango zaie eta jaso diren helburuarekin lotutakoek bakarrik tratatuko dituztela.

Horrela, ofiziozko txanda espezializatuak biktima guztiei eskubideei eta prozedura judizialari buruzko informazio zehatzagoa emango zaie.

Biktimak adingabea badira, haiekin konfiantza osoa duten erreferentziako pertsona heldua identifikatuko da eta informazioa emango zaio jarraitu beharreko prozedurari buruz eta eskubide juridikoei eta laguntza jasotzeko eskubideei buruz. Zaindu behar da adingabearen eta heldu arduradunaren artean ez dagoela interes-gatazkarik ikerketaren gaiari dagokionez, eta egotekotan, banatu egin beharko dira eta adingabearen eskubideak bermatzen dituen hirugarren pertsona bat edo erakunde bat aurkitu.

Biktimak hizkuntza-oztopoak, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk dituenen, itzulpengintza-zerbitzura, zeinu-hizkuntzara interpretazio-zerbitzura edo oztopo horiek gainditzeko lagun dezaketen beste zerbitzu batzuetara joko da, biktimak horretarako baimen informatu eta librea eman ondoren.

Justiziaren esparruan, biktimaren beharrak baloratzea eta haiei eskaini beharreko laguntza-neurriak zehaztea Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoaren funtzioen artean daude (Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 28.2. artikuluekin eta abenduaren 11ko 1109/2015 Errege Dekretuaren 19. artikuluekin bat etorritik).

BAIMENA: Biktimen baimen informatua lortzea³² beharrezkoa izango da, idatziz edo beste zerbitzu batzuetako langileei (beste sistema edo erakunde batzuetakoak) informazioa bidaltzeko frogatuta geratzen den moduren batean.

OFIZIOZKO JAKINARAZPENA: Biktimak salatu nahi ez badu ere, langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorritik, Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak

³² Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakundek 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsoneri lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badieziaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezten. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Era berean, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak (15. artikuluan) ezarritakoarekin bat etorriz, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzean Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Edonola ere, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

Sistema horretako edo beste sistema bateko ofiziozko edozein jakinarazpen iristen zaionean Fiskaltzak ikerketa-prozedura irekiko du eta biktimari egoitza judizialera deituko du horren berri emateko eta akusazio partikular gisa bertaratzeko aukera emango dio. Poliziak du agenda judizialaren eta zitazio horiek esleitzearen ardura.

Biktimari doan etxeko indarkerian eta eraso sexualetan biktimentzako berariazko ofiziozko txandako abokatu baten aholkuak aurrez aurre jasotzeko eskubidea duela jakinaraziko zaio. Biktimak akusazio partikular gisa bertaratzea onartzen badu, prozesuan jarrera aktiboa izango du eta ez duela Fiskaltzaren esku utziko. Ez badu onartzen jakinaraziko zaio prozedurak aurrera jarraituko duela eta ahozko judizioaren fasean testigu izateko deituko zaiola.

LEGEZKO AHOALKULARITZA: Biktima aholkularitza-zerbitzuak jasotzeko prest badago, biktimak ez badu abokatu partikular bat aukeratzen, poliziaren edo epaitegiaren guneetatik dagokion abokatuen elkargoko ofiziozko txanda aktibatzeke beharrezko kudeaketak egingo dira eta biktimari abokatu iristeko falta dela estimatzen den denboraren berri emango zaio.

Abokatuak aurrez aurre emango du laguntza komisaldegian, epaitegian edo antzeko leku batean³³.

Abokatuak hau eskainiko dio biktimari:

- Aholkularitza, egokia bada, salaketa edo babes-aginduaren eskaera jarri aurretik.
- Abokatuaren laguntza salaketa aurkezten duen bitartean, baita babes-aginduaren eskaeran ere.
- Agerraldian abokatuaren laguntza, egokia bada, babes-agindua ematean, baita judizio azkarrean ere, agerraldian bertan edo hurrengo egunetan egiten bada.

Hala badagokio, biktimak beste konfiantzazko abokatu bat esleitzen badu kenduta, esku-hartu duen ofiziozko txanda espezializatuko abokatuak biktima defendatuko du salaketaren ondorioz egiten diren eta indarkeria-egoerarekin lotura duten ondorengo prozedura penal edota zibil guztietan. Biktima guztiei aitortzen zaien doako justiziaren eskubiderek bat etorriz, ez da aitortza egiteko izapiderik egin beharko, hargatik eragotzi gabe dagozkion eranskinak izapidetzea³⁴.

Prozedura zibiletan ofiziozko txanda doakoa izatea, behin behinean biktima-izaera ematen duen irekitako zigor-arloko prozeduraren menpe dago. Hori indargabetzen bada, eskaera bat izapidetu beharko da eta Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legean, urtarrilaren 10ekoan, aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

³³ Salbuespeneko egoeretan, biktimak mugikortasun-arazoak dituenetan eta ezin denean etxebizitzatik irten, gaur egun ofiziozko txandako abokatuaren aholkularitza telefonoz eman daiteke.

³⁴ Biktimaren Estatutua; 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.

SALAKETA: Salaketan ahalik eta informazio gehien jarri behar da salatzen den momentuko egitatei buruz, erasoen aurrekariari buruz, halakorik badago, eta tratatu txarren maiztasunari buruz; gainera, gehituko dira salaketa jarri zen tokia eta data salatu bazituen, seme-alabei zuzendutakoak diren, horiekin batera mehatxurik dagoen eta erasotzaileak armarik duen eta bizitako tratatu txarren historia osoa eratzten laguntzen duten datuak.

Garrantzitsua da adingabeei buruzko informazioa gehitzea, baita haiek ematen dutena ere, izan ere, adingabeak lekuko izatea astungarria da prozesu judizialean.

Beste sistemetako zerbitzuek biktimari fisikoki lagundu ahalko diote salaketa jartzen duen momentuan.

LAGUNTZA: Prozedura judiziala aktibatu ondoren, BLZk biktimei laguntza osoa eskainiko die jardun judizialean zehar (Zurekin programaren bidez edo helburu horretarako diseinatutako antzeko beste edozeinen bidez), eragin emozionala arintzeko eta emakumeari eta seme-alabei haien etorkizunerako hain erabakigarriak diren esperientzia horiei (zitazioei, izapideei, agerraldi judizialei eta abarri) ahalik eta baldintza onenetan aurre egitea ahalbidetzen, sistema ez ezagutzeak sortzen duen estres-maila txikituz.

LAGUNTZA PASIKOLOGIKOA: BLZak laguntza psikologikoa eskaintzen die behar duten biktimei prozesuaren hasierako momentuetan laguntza emozionala emateko (egoera emozionalaren balorazioa eta kasu zehatz bakoitzean gomendagarria den tratamendu terapeutikoari buruzko preskripzioa, psikoterapia laburra edo epe motzekoa eta ahozko judizioaren garapenean zentratutako ardaztutako esku-hartze psikologikoa). Geroago, laguntza edo esku-hartze jarraituagoa behar duten biktimak beste sistema batzuetan horretarako gaitutako zerbitzuetara bideratuko dira.

BESTE LAGUNTZA BATZUK: Egokia denean, biktima-izaeraren administrazio-egiaztagiria eta erroldatzea izapidetuko dira dagozkien baliabideen bidez.

BLZak laguntza ekonomiko zehatzei buruzko aholkularitza emango du (eskatzaile potentzialaren egoera pertsonalaren azterketa barne hartzen duena), bai indarkeria-delituengatik sortzen den biktimizaziotatik ematen direnenak, abenduaren 11ko 35/1995 Legeak, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoak aipatzen dituenak, bai Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurrii buruzko 1/2004 Lege Organikoan, abenduaren 28koan, deskribatzen direnak.

Gainera, BLZk gizarte-arloko gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza ere eskaintzen du. Nahiz eta gai horiek "berriazko laguntzen" sailkapenean ez egon, errekupeazioan lagun dezakete eta dagokien gaikuntza-titulua bidez berme juridikoa duen biktimizazio mota zehatz bati lotuta egon daitezke, edo ez.

BABES-AGINDUAREN AGERRALDIA ETA JUDIZIO AZKARRA: Salaketa jarri eta komisaldegian edo guardiako epaitegian babes-agindu eskatu ondoren, gehienez 72 orduko epean, alderdiei babes-neurriak baloratzeko agerraldi batera deituko zaie Prozedura Kriminalaren Legearen 13., 544 bis. eta 544 ter. artikuluekin bat etorriz. Ertzaintza arduratuko da zitazioetarako agenda judiziala kudeatzeaz.

Agintari judizialek dituzten elementu guztiak baloratu ondoren —hala nola biktimaren, salatuaren deklarazioa eta aurkeztu litezkeen txostenak—, epaileak babes osorako neurria ezartzea egokia den erabakiko du. Babes osoko neurria neurri osoa da barne hartzen dituelako batetik, zigor-arloko neurriak, esate baterako hurbilketa eta harremanetan jartzearen debekua, eta bestetik, neurri zibilak seme-alaba adingabeak daudenean. Autoan aita erasotzailearekin egoteko denboraren inguruko neurri zibilak daudenean, haurrak eta nerabeak babestuago egoteko beharrezkoa bada familia-elkargunea aktibatuko da bideraketa judizialaren bidez. Judizio azkarraren autoan (babes-aginduaren agerraldian) baliabide horren erabilera galdatzen duten adingabeekin lotutako neurri zibilak badaude, epaitegiek familia-elkargune zerbitzuari abisatuko diote.

Babes-aginduak berekin betebeharrak dakartza, genero-indarkeria biktima etengabe inputatuaren egoera prozesalari buruz informatuta mantendu behar da eta haren kautelazko neurrien irispideari eta indarraldiari buruz ere bai. Zentzu horretan, epaitegiek Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentrora bidaliko dituzte helburu horrekin ematen diren ebazpenak. Zentroak biktimari jakinaraziko dizkio (gutun bidez) eta BLZari partekatuko dizkio, eta beharrezkoa bada, bigarren horrek izango du biktima aholkatzeko eta hari laguntzeko ardura.

Epaitegiek Poliziarri ebazpen jakinaraziko dizkiote inputatuaren egoera prozesala kontuan har dezan, baita babes-neurrietako kautela-neurrien irispidea eta indarraldia ere.

Hala badagokio, Fiskaltzak genero-indarkeriaren ziurtagiria igorriko du demandatzailea indarkeria horren biktima dela ondorioztatzeko zantzuak daudela dioten txosten bat eginez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan, abenduaren 28koan, aitortzen diren eskubideak baliatu ahal izateko.

Salatuak ikertzen diren egitateak aitortzen baditu, babes-aginduaren agerraldian bertan prozedura aldatzeko aukera dago salatu epaitzeko eta aurrerago adostasun epaia emateko. Inguruabar horrek prozedura amaitzea eta egokiak diren zigorrak ezartzea dakar.

IKERKETA: Egitateak ikertzeko egiten den instrukzio fasean epaileak biktimari, akusatuari edo akusatuei eta, lekukorik balego, lekukoei deklarazioa hartzen die.

Gainera, abokatuak, epaileak edo fiskalak hala eskatuta, Osoko Balorazio Forentseko Unitateak lesio fisiko edota psikologikoen balorazioa egin ahalko du.

Horrela, egokia denean, familia-harremanak egokitzeko eta guraso-ahalmenak ebaluatzeko beharra dagoen banaketa-prozeduretan, epaileak edo Fiskaltzak aditu baten ebaluazio psikosozial-txostena eskatu ahalko die Lantalde psikosozial judizialei.

Tartean adingabeak, desgaitasuna duten pertsonak, pertsonen salerosketaren biktimak, etab. dauden prozeduretan, egokia denean, epaitegiek lantalde horiei alde aurretik eraturako frogak (aditu baten bidezko deklarazio judizialak) eta horri lotutako txostenak (garapen-txostena eta probaren emaitza; lekukoaren analisiari/sinesgarritasunari buruzko txostena...) egiteko eska diezaiekete.

Txosten horiek guztiak, aurkez daitezkeen beste sistema batzuetako hainbat zerbitzuren beste batzuekin batera, kontuan hartuko dira.

AHOZKO JUDIZIOAREN FASEA: Zigor-arloko epaitegian gertatzen da ahozko judizioaren fasea, zeinetan ikerketa-fasea bukatu ondoren, salatutako egitateak epaitzen diren.

Delitu arinak epaitzeko ez da abokaturik behar, baina agintari judizialak alderdietako bat auzibiderako tresnei dagokienez desabantailan dagoela ikusten badu, beste alderdiak abokatu batengana jo duelako, ofiziozko abokatu bat esleitzea eska dezake.

Ondoren, ahozko judizioa izango da eta bertan berriz ere entzungo zaie alderdiei eta auzirako interesa duten elementuak izan ditzaketen beste operadore batzuei.

Hori guztia baloratu ondoren, zigor-arloko epaitegiak edo probintzia-azitegiak (delituaren larritasunaren arabera) kondenatzailea edo absolbitzekoa izan daitezkeen epai bat emango du. Alderdietako bat epaiarekin ados ez egotekotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, probintzia-azitegian edo Justizia Auzitegi Nagusian helegite bat jarri ahalko du.

Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroari epaiaren emaitzaren berri emango zaio (genero-indarkeria kasuetan 1/2004 Lege Organikoaren arabera) egokiak diren komunikazio-ekintzak aktibatuzko. EAIKZk Euskadin etxebizitza duten biktimen alde Euskaditik kanpo emandako babes-aginduei buruzko beste autonomia erkidego batzuetako beste koordinazio-puntu batzuei buruzko jakinarazpenak ere jasotzen ditu. Gainera, Gobernuaren ordezkariordeek bizilekua Euskadira aldatu duten biktimei buruzko jakinarazpenak jasotzen dituzte (VioGen).

ZIGORREN KUDEAKETA: Epaiaren ondoren, komenigarria da Zigorrek Kudeatzeko Zerbitzuari erasotzailearen kontaktua ematea kasuaren balizko estimaziorako. Era berean, dagokion ebazpen judiziala betez, zigortua erasotzaileen tratamendurako dauden programetara bideratuko da (GAKOA programa edo helburu horretarako diseinatutako beste antzekoren bat).

JAKINARAZPENAK: Epaitegiekin epaiak Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentrori bidaliko dituzte bertatik biktimari jakinarazi diezazkioten (gutun bidez) eta BLZarekin parteka daitezkeen (zeinek biktimak behar badu aholkatuko eta lagunduko duen). Horrela, epaitegiekin Poliziari bidaliko dizkiote epaiak babes-neurrietan kontuan har ditzan.

Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroak biktimaren ziurtagiriarekin lotutako informazioa emango die eskatzen duten operadoreei. Zentro horrek Justizia Administrazioari Laguntzeko Erregistro Administrazioaren Sistemara, JALEASra, sarbidea du informazioa bilatzeko.

Bestalde, Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuak BLZari erasotzailearen prozesu- eta espetxe-egoeraren berri emango dio (espetxetik ateratzea...) erasotzailea EAEEn bizi denean biktimari egoera jakinarazteko. BLZak Ertzaintzari laguntza eska diezaioke biktima lokalizatzeko informazio hori emateko unean ez duenean hura lokalizatzea lortzen.

IRTEERA, BIDERAKETA: Euskadiko justizia-zerbitzutik irteteko unea izango da dagokion prozedura judiziala amaitzen duen epai judizial sendoa eman ondoren, kasu bakoitza baloratzeko jarraipen-epea pasatakoan. Dena den, prozedura izapidetzen den bitartean kasuak beste sistema batzuetako beste baliabide batzuetara bidera daitezke, biktimaren baimen libre eta informatua izan ondoren.

2.5.4. Poliziaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pauta orokorrak

Araudia:

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema **ekainaren 28ko 15/2012 Legeak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeak** arautzen du. Ertzaintzak eta Udaltzaingoko kidegoek osatutako euskal Polizia berriz, **uztailaren 22ko 1/2020 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenak**, arautzen du. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 25. artikuluan udalerrien eskumenak ezartzen ditu eta Udaltzaingoak horien garapenean eginkizun nabarmena du.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemari, Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren eskumena duen sailak eta udalerriek Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko baterako jarduketak egiten dituzte haien eskumen-esparruan dauden gorabehera era eraginkorragoan aurre egiteko, bakoitzak bere eskudantziaren barnean.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak Poliziaren arretari buruzko 59. artikuluan honako hau ezartzen du: "Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Euskadiko udalerrietako toki-administrazioek bermatu behar dute, Euskadiko Segurtasun Sistema Publikoaren bidez, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan ematen duten arreta lehentasunezkoa, eraginkorra eta kalitatekoa dela...".

Zehazki, ezartzen du telefono bidezko larrialdi-zerbitzu bat bermatuko dutela, eguneko 24 orduetan erabilgarri egongo dena; biktimei eskubideei, eskuragarri dauden baliabideei eta salaketa jartzearen ondorioei buruzko informazioa ulertzen duten hizkuntza batean eta era argian emango zaiela; polizia kidegoen arteko eta haien eta gainerako arreta-zerbitzuen arteko lankidetzak bermatuko dutela informazioa partekatzeak; esku-hartzen duten gainerako arretarako zerbitzuek arrisku-maila zein den jakin dezaten arriskua-maila baloratzeko sistemak izango dituztela; Poliziaren guneetan konfidentzialtasuna eta banaketa osoa bermatzen duten espazio fisiko egokiak gaituko dituztela; eta irisgarritasun osoa bermatuko dutela.

Gainera, lege horrek ezartzen du ikerketarako, jardunerako eta genero-indarkeria kasuen arriskua baloratzeko Poliziaren protokoloak aldizka eguneratu beharko direla genero-ikuspegia eta intersektorialitatea kontuan hartuta.

Esku-hartzen duten operadoreak:

- **Ertzaintza:** EAE osoan pertsonak eta ondasunak babestea, eskubideak eta askatasunak libreki baliatzea eta herritarren segurtasuna zaintzea ditu funtsezko eginkizun. Horretarako, ordenamendu juridikoak Segurtasun Kidegoei esleitzen dizkien funtzioak gauzatzen ditu eta komisaldegiekin eta EAE osoan kokatutako bulegoekin arreta eskaintzen du.
- **Udaltzaingoa:** Udaltzaingoaren eginkizunen artean delituak ekiditea haien beharra dagoenean gatazka pribatuak konpontzeko lankidetzan aritzea daude.

Orokorrean, Ertzaintza arduratuko da edozein bidetatik ezagututako eta lehendik Udaltzaingoak artatu ez dituen genero-indarkeria kasuez. Edonola ere, larrialdiak artatzea eta biktimei zaintzeko lanak polizia kidego guztiek partekatzen dituzten eskumenak dira. Horrela, sinatutako koordinazio-protokoloen arabera, Udaltzaingoak Ertzaintzak eskatzen dizkion babes polizialaren eskaerak artatuko ditu biktimari zerbitzu hobea eskaintzeko.

Gaur egun, polizia-sisteman erreferentziazkoa izango den protokolo bat lantzen ari da: Indarkeria matxistaren aurkako jarduera hobetzeko Euskal Herriko Poliziaren arteko koordinaziorako protokoloa eta jarraibideen proposamena, 2021.

Orain arte emakumeen aurkako hainbat indarkeria motarako prozedura bereziak garatu dira. Argi mugatutako prozedura bat aplikatzen da etxeko indarkeria kasuetan eta genero-indarkeria kasuetan (aurrerantzean EI/GI), horrekin batera, izaera desberdina duten eta, ondorioz, beste baliabide batzuk eta prebentziorako eta babeserako beste estrategia batzuk galdatzen dituzten hainbat indarkeria motatara moldatutako beste prozedura batzuk ere aplikatzen dira.

Prozedurak eta pautak:

Delitu izan daitekeen indarkeria matxista-egoera baten edo haren susmoaren aurrean, EAEko polizia-kidegoetako langileek jarraian aipatuko diren prozedurak eta pauta orokorrak jarraituko dituzte, larrialdi-egoeren (berehalako esku-hartzea behar den kasuetan) eta larrialdietako arretarik behar ez duten egoeren artean (ohiko arreta).

SARRERA, TELEFONO BIDEZKO ARRETA EDO AURREZ AURREKO ARRETA KOMISALDEGIAN: Euskal Poliziara sartzeko modua askotan telefono bidezkoa izaten da, baina aurrez aurrekoa ere izan daiteke Udaltzaingoaren edo Ertzaintzaren komisaldegietan. Biktima izan daiteke Poliziarekin zuzenean harremanetan jartzen dena, edo senide bat, sare-sozialeko beste pertsona bat edo beste edozein zerbitzutako eta sistematako edozein langile.


Deia artatzen duten pertsonak jarraibide argiak izango dituzte era egokian entzun ahal izateko eta, egokia bada, gorabehera delitu izan daitekeen indarkeria matxista duen gorabehera bezala sailkatzeko.

Delitu izan daitekeen indarkeria matxista duen gorabehera bezala sailkatzen denean, egiaztatu eta dokumentatuko da. Egiaztatzeak gorabehera mota identifikatzea dakar: familia-harremana dagoen, biktima erasotzailearekin bizi den, gorabehera gertatutako lekua eta pertsona dagoen lekua, bertan adingaberik dagoen edo adingabeak erasotzailearekin bizi diren, beste menpeko pertsonarik dagoen edo gaixotasun mentalak, ezgaitasuna bezalako beste inguruabarririk dagoen, etab. Gainera, bikotekideak edo bikotekide ohiak indarkeria matxista erabiltzen duen kasua bada (1/2004 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera) edo beste senide bat bada indarkeria hori erabiltzen duena, aldeztatik irekitako EBA txostenik (EI/GI) dagoen ziurtatuko da eta babes-neurriak ezartzen dituen ebazpen judizialik dagoen ere bai (JALEASn).

Une horretan deia egiten duen pertsonari gai hauei buruzko jarraibide argiak emango zaizkio: egon daitezken objektu arriskutsuak; halakorik balego, adingabeak (edo menpeko edota desgaitasundun beste pertsona batzuk) babesteko jarduketak; bertaratzen den patruila deitzen duen pertsonarekin elkartuko den lekua.

Lehenengo jakinarazpena jasotzen duen polizia-kidegoak artatuko du deitzen duen pertsona EBAn agertzen dena kontuan hartuz (etxeko indarkeria eta genero-indarkeria delituen txostenak dituen kudeaketa sistema) arriskuaren azken balorazioa kontuan hartzeko.

LARRIALDIETAKO JARDUNERAKO PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA:



GORABEHERA NEUTRALIZATZEA ETA BIKTIMAK ARTATZEA: Telefono-deiaren ondorioz urgentziak delitu izan daitekeen indarkeria matxista duen gorabehera bat artatzeko beharra ikusten bada, beti gorabehera neutralizatzen eta biktima edo biktima laguntza emateko beharrezko baliabideak aktibatuko dira (patruilak esleitu eta bidaliko dira).

LESIOEN EDO ERASO SEXUALAREN AURREAN: biktima batek osasun-arreta behar duten lesioak baditu, edo izan ditzakeela susmatzen bada, nahiz eta begi-bistakoak ez izan, egokiak diren larrialdietako edo osasun-larrialdietako zerbitzuen aktibazioa koordinatuko da. Behar badu, osasun-zentrorra eramatea eskainiko zaio. Horrela, biktima lesioen parte ofiziala eskatzaren garrantziaren berri emango zaio.

Indarkeria sexual gertatu berriaren kasuan (azken 240 orduetan gertatutakoa, 10 egunetan) eta biktima arriskuren batean egoten jarraitzen duenean, ospitale hurbileneko larrialdi-zerbitzura lagunduko zaio. Arriskurik ez badago, laguntza psikosoziala jasotzeko aukera eskainiko zaio eta gizarte-zerbitzuekin koordinatuta kudeatuko da. Edonola, Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuari abisatu behar zaio prozedura aktibatzen eta auzitegi-medikua bertaratzeko beharrezko kudeaketak egin ditzaten. Era berean, biktima esan behar zaio ez garbitzeko eta arropaz ez aldatzeko, eta aho bidezko erasorik izan bada, ez jateko ez edateko frogak ezabatzea ekiditeko.

ADINGABEAK EDO BIKTIMAREN MENPEKO BESTE PERTSONA BATZUK DAUDENEAN: Biktima seme-alaba adingabeak edo menpeko beste pertsona batzuk baditu eta bera komisaldegira, ospitalera edo laguntza emateko guneren batera eramatea beharrezkoa bada eta, noski, emakumea hiltzen badute, aldi baterako menpeko pertsonak zain ditzakeen konfiantzako ingurune pertsonak aurkitzen saiatuko da (biktima aukeratutakoak) amaren adierazpenak eta kontakizunak entzuteak sor dezakeen biktimizazio sekundarioa ekiditeko. Ez bada posible, dagokien gizarte-zerbitzu espezializatuei abisatu behar zaie artapenerako eta babeserako neurri egokiak har ditzaten.

Kontuan hartu behar da indarkeria matxistaren eraginpean egondako haurrak eta nerabeak, erasoen biktima zuzenak izategatik biktima izan, lekuko izategatik edo erasotzailearekin bizitzeagatik, atestaturik gehitu

behar direla, izan ere, indarkeria horren biktimen legeko aitortza dute eta, ondorioz, banakako berariazko trataera independentea jasotzeko eskubidea dute.

LARRIALDIETAKO LAGUNTZA PSIKOSOZIALA: Arreta psikosozialak duen balioa adieraziko zaio biktimari eta larrialdietako laguntza psikosozialeko gizarte-zerbitzuetan harremanetan jartzeko aukera emango zaio zerbitzu horretako langileak bertara daitezen (egitateen gunera edo komisaldegira) informazioa emateko, erabakiak hartzen laguntzeko eta emozionalki eusteko (biktima eta seme-alabak edo beste menpeko pertsona batzuk, halakorik balego) eta, egokia bada, berehalako harrera baliabiderako sarbidea kudea diezaioten. Biktimak berariaz ezezkoa ematen ez badu, ahalik eta azkarren abisatuko zaie zerbitzu horiei.

Biktimaren segurtasuna arriskuan badago, polizia-agenteei biktima eta bere ardurapean dauden seme-alaba adingabeak edo beste menpeko pertsona batzuk harrera-zentrora lekualdatzea kudeatuko dute, segurtasuna bermatuz.

INFORMAZIOA: Biktima guztiek dituzten eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazioa jaso beharko dute. Hau da, hain zuzen:

- Estatuko eta autonomia erkidegoko legediak ematen dizkien eskubideei buruzko informazioa emango zaie.
- EAEn eskuragarri dituzten baliabideei, zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa emango zaie, bereziki haiek bizi diren udalerrikoena.
- Emakumeak adingabeekin bizi badira, indarkeriak adingabeen bizitzan duen eraginari buruko informazioa emango zaie eta administrazio publikoek haiek babesteko dituzten betebeharrak buruzkoa.
- Bizi duten egoera justiziarik jakinarazteko duten eskubideari buruzko informazioa emango zaie. Horretarako, pairatu dituzten indarkeria-egoerak salatzeako eskubideari buruzko informazioa emango zaie, baita salatzeak dakartzan prozedurei, izapideei eta ondorioei buruzkoa. Era berean, jakinaraziko zaie ez dela beharrezkoa salaketa jartzea baliabideetara sarbidea izateko. Horrela, haien egoera berariazko zerbitzu batera bideratzeko aukera eskainiko zaie beharrezko laguntza juridikoa jasotzeko.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeria-kasuetan edo familia-indarkeria kasuetan babes-agindua³⁵ eskatzeak dituen ondorioei buruzko informazioa emango zaie eta egoera justiziarik jakinarazita agindu hori eskatzeko duten eskubideari buruzkoa.
- Babes-aginduaren eskaera formalizatu aurretik edo salaketa jarri aurretik doako justiziarako eskubideari buruzko informazioa emango zaie eta etxeko indarkerian eta eraso sexualetan biktimentzako berariazko ofiziozko txandako abokatu baten aholkuak aurrez aurre eta doan jasotzeko eskubideari buruzkoa.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuetan jakinaraziko zaie eskubide, baliabide eta prestazio batzuek baliatzeko genero-indarkeria biktima-izaeraren egiaztatzea behar dela. Horien artean bereizketa egiten da sarbidea izateko egiaztatze judiziala (kondena-epaiaren, babes-aginduaren edo biktimaren alde kautela-neurri bat jartzen duen beste edozein ebazpen judizialen bidez, edo salbuespenez, Fiskaltzaren txosten baten bidez) behar denen eta gizarte-zerbitzuen, espezializatutako zerbitzuen, edo eskumena duen administrazio publikoaren genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako harrera-zerbitzuen txosten bat, edo egiaztatzea administratiboa bezalako beste titulu bat behar denen artean.

³⁵ Babes-agindua eskumena duen organo judizialak ematen duen ebazpen judizial bat da. Ematen da delitu bat izan dela ondorioztatzeko behar bezala oinarritutako zantzuak egonda, organo judizial horrek biktima arrisku-egoera objektibo batean dagoela hautematen duen kasuetan, zeintzuetan zigor-arloko prozesuaren izapidetzean zehar babes-neurriak hartzeko beharra dagoen. Babes-aginduak ebazpen judizial bakar batean emakumearen alde eta, hala badagokio, seme-alaben alde kautela-neurri penal eta zibilak hartzea eta hartzea dakar. Gainera, agindu horrekin haien alde administrazio-publikoek beharrezko laguntza eta babes-soziala eskaintzeko neurriak aktibatzen dira. Informazio gehiago lortzeko berariazko protokoloa ikus daiteke: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/1ai.protocolo.coordnacion.servicios.sociales.2004.cas.pdf.

- Administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeen kasuetan, jakinaraziko zaie salatzeak ez duela era irregularrean egoteagatik zeharpen prozedurarik irekiko edo, lehendik irekita egonez gero, zeharpen prozedura hori bertan behera utziko dela. Gainera, jakinaraziko zaie emakumea genero-indarkeriaren biktima dela ondorioztatzen den kondena-epai edo ebazpen judizial batekin, emakumeari salbuespeneko bizileku- eta lan-baimena emango zaiola, eta horrela egoera administratiboa erregular bihurtzeko aukera izango duela. Era berean, esango zaie zein baliabidetarako eta zerbitzutarako den ezinbestekoa errolatuta egotea. Jakinaraziko zaie, halaber, sententzia absoluziozkoa izanez gero, zeharpen administrazio-prozedura irekiko dela.
- Horrela, jasoko diren datuei buruzko informazio ulergarria emango zaie eta esango zaie zertarako bilduko diren, nola gordeko diren eta zein den horien erabilera egokiaren arduraduna. Datuak emateak izan ditzakeen onurei eta ez emateak izan ditzakeen ondorioei buruzko informazioa ere emango zaie, baita datu horiek zuzentzeko edo ezereztatzeko duten eskubideari buruzkoa ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla esango zaie eta jaso diren helburuarekin lotutakoek bakarrik tratatuko dituztela.

Biktima adingabeen kasuan, haiekin konfiantza osoa duten erreferentziazko pertsona heldua identifikatuko da eta informazioa emango zaio jarraitu beharreko prozedurari buruz eta eskubide juridikoei eta laguntza jasotzeko eskubideei buruz. Zaindu behar da adingabearen eta heldu arduradunaren artean ez dagoela interes-gatazkarik ikerketaren gaiari dagokionez, eta egotekotan, banatu egin beharko dira eta adingabearen eskubideak bermatzen dituen hirugarren pertsona bat edo erakunde bat aurkitu.

Biktimak hizkuntza-oztopoak, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk dituenean, itzulpengintza-zerbitzura, zeinu-hizkuntzara interpretazio-zerbitzura edo oztopo horiek gainditzen lagun dezaketen beste zerbitzu batzuetara joko da, biktimak horretarako baimen informatua eman ondoren.

Biktimak salaketa jarri nahi duela adierazten badu polizia-etxe batera lagunduko zaio (eta bertatik dagokion ofiziozko txandari abisatuko zaio) edo, emakumeak mugikortasun-arazoak baditu eta ospitalean edo etxean ezindua badago (esate baterako, ezgaitasuna duten emakumeen kasuan) Polizia bertaratzea eskatuko da³⁶.

BAIMENA: Biktimen baimen informatua³⁷ lortzea beharrezkoa izango da, idatziz edo beste zerbitzu batzuetako langileei (beste erakunde edo sistema batzuetakoak) informazioa bidaltzeko frogatuta geratzen den modu batean.


OFIZIOZKO JAKINARAZPEN JUDIZIALA: Biktimak ez badu salaketarik jarri nahi, kasua dokumentatuko da eta ofiziozko eginbideak irekiko dira geroago epaitegiari eta Fiskaltzari jakinaraziko zaion operadore jarduleen agerraldi-aktarekin. Biktimei ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaie.

LARRIALDI-JARDUKETAREN AMAIERA: Larrialdi-jarduketan zehar datuak bilduko dira eta bukatzen denean, kasuaren arduradun polizia-kidegari dagokion txostena igorriko zaio (aldez aurretik EBA txosten bat irekita dagoen kasuetan).

³⁶ Larrialdi-egoerarik ez dagoeneko prozeduraren "deklarazioa hartzea eta salaketa" atalean zehazten da gai hori.

³⁷ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakundek 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA LARRIALDIRIK EZ DAGOENEAN:



ESPEDIENTEA, IKERKETA ETA ATESTATUA: Poliziak ezagutzen duen eta *a priori* emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako arau-hauste penala izan daitekeen gertaera ororekin atestatu bat irekiko da. Indarkeria matxista bikotekideak edo bikotekide ohiak edo beste senide batek erabiltzen duen kasuetan, gainera, EBA espediente bat irekiko da, kasuaren inguruan polizia-kidegoak sortutako informazio guztia era sistematiko eta antolatuan idatziz jasotzeko bide gisa. Espediente horren helburua babes-neurrien jarraipena egitea da. Espedientea irekita mantenduko da eta arrisku-egoera dagoela ulertzen den bitartean betetzen jarraituko da.

Garrantzitsua da kontuan hartzea legeak indarkeria matxistaren eraginpean dauden haurrei eta nerabeei biktima-izaera aitortzen diela eta, beraz atestatuan gehitu beharko direla, biktimaren seme-alabak izan edo bere ardurapean dauden adingabeak izan, biktimarekin bizi edo ez.

Ikerketetan eta prozesu osoan zehar bi gako daude: biktimaren behar mediko eta psikosozialak, eta erabilgarria den informazio guztia eta biktima eta lekukoek aurkeztutako frogak biltzea.

Hasieran biktimari ongizate fisikoari edo psikikoari buruz galdetuko zaio eta, berariaz ezezkoa ematen badu kenduta, biktimak lesioak dituenean, nahiz eta begi-bistakoak ez izan, edo lesioak izan ditzakeela susmatzen denean, biktima osasun-zentro batera eramango da. Gainera, biktimaren eta seme-alaben edo senideen segurtasuna bermatzera daramaten berehalako kudeaketak egin ahal izateko datuak eskatuko zaizkio eta, egokia bada, erasotzailea atxilotuko da.

Atestatuak haurren jarrera jaso behar du, eta zuzenean erasoak jaso dituzten edota indarkeriaren lekuko izan diren. Datu horiek astungarriak izateaz gain, funtsezkoak izan daitezke babeserako eta gizarte-zerbitzuek

haurrei eta nerabeei zuzendutako espezializatutako arreta jasotzeko. Garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria matxista-testuinguruetan bizi diren adingabeek zuzeneko eraso fisikoak, hainbat tratu txar mota edota indarkeria sexuala jasaten aritu daitezkeela, indarkeria mota horiek gehiago estaltzen eta ezkutuan geratzen diren inguruneak baitira.

Desgaitasuna duten biktimekin ikerketak egiten direnean eta atestatua lantzen denean, kontuan hartu behar dira hainbat indarkeria pasibo mota, adibidez abandonu fisikoa, gehiegi medikatzea edo medikazio desegokia ematea eta abandonu emozionala, eta balitekela horiek erabiltzea.

LAGUNTZA PSIKOSOZIALA: Arreta psikosozialak duen balioa adieraziko zaio biktimari eta larrialdietako laguntza psikosozialeko gizarte-zerbitzuetan harremanetan jartzeko aukera emango zaio, zerbitzu horretako indarkeria matxistan espezializatutako langileak komisaldegira joateko eta bertan informazioa emateko, erabakiak hartzen laguntzeko eta emozionalki eusteko (biktima eta seme-alabak edo beste menpeko pertsona batzuk, halakorik balego) eta, egokia bada, berehalako harrera baliabiderako sarbidea kudea diezaioten. Biktimak berariaz ezezkoa ematen ez badu, ahalik eta azkarren abisatuko zaie zerbitzu horiei.

Biktimaren segurtasuna arriskuan badago, polizia-agenteei biktima eta bere ardurapean dauden seme-alaba adingabeak edo beste menpeko pertsona batzuk harrera-zentrora lekualdatzea kudeatuko dute, segurtasuna bermatuz.

OFIZIOZKO JAKINARAZPEN JUDIZIALA: Ikerketa eta atestatua bukatutakoan, biktima helduak salaketarik jarri ez badu ere, polizia-agenteei, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorritik, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badieziaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezken. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbulerako Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak, (15. artikuluan) ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzean ere, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutzen bada, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

INFORMAZIOA ETA LEGEZKO AHOZKULARITZA: Biktima guztiek komisaldegian eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazioa jaso behar dute kapitulu honetako bertako "informazioa" atalean zehazten denaren arabera.

Biktima salaketa bat jarri nahi duela edo legezko aholkularitza jaso nahi duela adierazten badu, biktimari deklarazioa hartu aurretik, eta biktimak ez badu abokatu partikular bat aukeratzen, poliziaren guneetatik dagokion abokatuen elkargoko ofiziozko txanda aktibatze beharrezko kudeaketak egingo dira eta biktimari abokatu iristeko falta dela estimatzen den denboraren berri emango zaio. Abokatuaren legezko laguntza aurrez aurrekoa izango da eta komisaldegian emango da³⁸.

³⁸ Salbuespeneko egoeretan, biktimak mugikortasun-arazoak dituenetan eta ezin denean etxebizitzatik irten, gaur egun ofiziozko txandako abokatuaren aholkularitza telefonoz eman daiteke.

Abokatuak hau eskainiko dio biktimari:

- Aholkularitza, egokia bada, salaketa edo babes-aginduaren eskaera jarri aurretik.
- Abokatuaren laguntza salaketa aurkezten duen bitartean, baita babes-aginduaren eskaeran ere.
- Abokatuaren laguntza babes-agindu erabiltzeko agerraldian, egokia bada, baita judizio azkarrean ere, agerraldian bertan edo hurrengo egunetan egiten bada.

Legezko laguntza funtsezkoa da honengatik:

- Emakumeari entzutea eta bere kontakizuna argitzen laguntzea errazten du, esperientzia pertsonala hizkera juridikora itzuliz.
- Prozesu zibilaren esparruan modu egokiagoan landu daitezkeen jokabide zigorgarriari buruzko informazio gehigarria eman dezake.
- Bereziki garrantzitsua da babes-agindua eskatzerakoan, izan ere, hori emateko arrazoiek, berekin dakartzkien neurri zibil eta penalek, eta batez ere biktimarentzat eta biktimarioarentzat dituen betebeharrak balorazio teknikoago eta objektiboago bat behar dute.

DEKLARAZIOA HARTZEA, SALAKETA: Ahal denean, agertutakoari emakumezko agente batek artatzea eskainiko zaio eta konfiantzazko pertsona batek lagunduta joateko eskubidea duela jakinaraziko zaio.

Emakumeak mugikortasun-arazoak baditu eta ospitalean edo etxean ezindua badago (esate baterako, ezgaitasuna duten emakumeen kasuan) beharrezkoa bada agentea hara bertaratuko da deklarazioa hartzeko.

Biktimari edo biktimei deklarazioa hartzen hasi baino lehen, agertutakoari salaketaren mekanismoa azaldu beharko zaio, hizkera ulergarrian alderdi hauek bezalakoak zehaztuz: konfidentzialtasunaren mugak azaltzea; salaketaren edukira norik izango duen argitzea; elkarrizketaren arauak ezartzea; horren inguruan itxaropen irrealak ekiditea.

Pertsona adingabea beti haren ardura izango duen heldu batek lagunduta egon beharko da, ahal bada biktimak aukeratutakoa. Heldu horrek lagundu egingo du eta elkarrizketan lagunduko dio. Esku-hartzen duen agenteak zaindu behar du ez dagoela interes-gatazkarik ikerketaren gaiari dagokionez, eta halako gatazkarik antzematen badu, adingabea helduarengandik banatu beharko du, azken hori laguntzeko funtzioan ordezkatzeko duen hirugarren pertsona bat bilatuko du.

Adingabeak artatzeko, esku-hartzen duten agenteek komunikatzeko erregistroa haurren edo nerabeen gaitasunetara moldatzen saiatu beharko dira, zuzenean haiei, haien ongizateari, egoeraren pertzepzioari eta egingo diren eta ukitzen dituen jarduketei buruzko desirari zuzenean eragiten dien gaiei buruz galdetuz.

Ikerketaren arduradunak izango du salaketa eta, hala badagokio, babes-agindua epaitegian ahalik eta azkarren, horretarako irekitako eginbideekin batera (bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeria matxistaren arriskuaren balorazioa), izapidetzearen erantzukizuna. Eginbidea bukatzen den orduetik 24 ordu baino gutxiagora egin beharko da.

Ertzaintza arduratuko da judizio azkarretarako zitazioetarako agenda judiziala kudeatzeaz.

ARRISKUAREN BALORAZIOA: Bikotekideak, bikotekide ohiak edo familiako beste gizonezko batek indarkeria matxista erabiltzen duen kasuetan (EI/GI prozedurei dagozkienetan), EBA espedientea irekitzean eta deklarazioa hartzean ahalik eta informazio gehien bilduko da biktimen arriskuaren hasierako balorazioa errazteko (emakumea eta, egotekotan, adingabeak edo indarkeriak eragiten dien beste menpeko pertsona batzuk barne hartuz) eta ondoren informazio hori epaitegiari emango zaio.

Geroago, kasuaren eta inguruabarren arabera arriskuaren balorazioa egingo da, berariazko erreminta bat erabiliz (galdetegia), eraso berriak saihesteko babes pertsonalerako neurri egokiak antolatuz.

Inguruabarrak alda daitezkeenez, kasua jarraitzea ahalbideratuko duen biktimekin gutxi gora beherako elkarrizketa-egutegi bat ezarriko da biktimak bere ekimenez Poliziarekin dituen harremanez gain. Horrek kasuari, bizileku-aldaketei, errutinei, segurtasun-gorabeheren erregistroari eta abarri buruzko informazioa eguneratzea ahalbidetzen du eta arriskuaren balorazioa eguneratzea errazten du.

Era berean, gizarte-zerbitzuak biktimari arreta ematen ari badira, polizia-agenteak haiekin harremanetan jarri ahalko dira Poliziaren esku-hartzearen berri emateko eta ikerketari eta ez-zilegi penala argitzeari buruzko informazioa eta lankidetzak eskatzeko, baita arriskuaren balorazioa osatzeko ere.

BABES-NEURRIAK: Behin arriskuaren balorazioa egin ondoren, kasu bakoitzaren eta inguruabarren arabera babes pertsonalerako neurri polizialak esleituko dira.

Biktimaren edo biktimen inguruabar pertsonal bereziak kontuan hartuko dira (adingabea izatea, edozein motatako desgaitasuna, migratzailea izatea, egoera administratiboa, etab.) haren interesak, era orokorrean ulertuta, kaltetu ez daitezten eta ahal den neurrian haren ingurunean ahalik eta gutxien eraginez. Biktima une oro informatuta mantenduko da eta ahal den heinean neurriak bere beharretara egokituko dira esku-hartzearen arrakastaren oinarrian dagoen lankidetzak dinamika indartzeko.

Hauek dira babesteko neurri polizial batzuk: etengabeko zaintza, errutinen inguruko prebentzio-jarduerak, babes-guneei buruzko prebentzio-jarduerak, babesteko polizia-operatibo bereziak, biktimei bisita aleatorioak, telefono bidezko egiaztatze aleatorioak, teknologia-neurrien eskaintza, lekualdatzeak, laguntzak, formakuntza haien burua babesteko neurrietan eta kontrazaintza neurriak.

Garrantzitsua da biktimei jakinaraztea Poliziaren esku-hartzeak mugak dituela eta biktimaren babeserako estrategia osoan gizarte-zerbitzuek funtsezko eginkizuna dutela beren buruaren eta familiaren ongizaterako eta errekupeziorako eskaintzen duten arretaren bidez.

Epategiek Poliziari ebazpen judizialak jakinaraziko dizkiote inputatuaren egoera prozesala kontuan har dezan, baita babes-neurrietako kautela-neurrien irispidearena eta indarraldiarena ere.

Polizia BLZarekin lankidetzan arituko da BLZak erasotzailea espetxetik ateratzeari buruzko informazioa Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzutik jaso eta biktimei emateko unean lokalizatu ezin dituen biktimak lokalizatzeko.

BESTE LAGUNTZA BATZUK: Egokia denean, biktimen beharrei erantzuteko beste laguntza mota osagarri batzuk eskain ditzaketzen beste sistema batzuetako baliabideetara eta zerbitzuetara bideratuko dira biktimak, haren baimen informatua lortu ondoren. Bereziki kontuan hartu behar dira Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak dauden baliabide eta laguntza guziei buruzko informazio oso eta zehatza eskaini ahalko dietelako.

Garrantzitsua da nabarmentzea gizarte-zerbitzuen zirkuituan sartzea edo ez sartzea epe luzean zigor-arloko prozesuan arrakasta izatean edo ez izatean (adibidez, frogatzen zailak diren tratu txar psikologikoen salaketan kasuan) erabakigarria izan daiteken inguruabarra dela.

2.5.5. Hezkuntzaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pauta orokorrak

Araudia:

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak 31. artikuluan ezartzen duenez, "Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman beharko diete emakumeen eta haurren aurka nabaritzen duten indarkeria matxistaren zantzu oro". Gainera, bertan ezartzen da lanean genero-ikuspegia txertatzeko, ebaluazioaren, ikerketaren, berrikuntzaren eta hezkuntzako ikuskaritzaren ardura duten dagokien organoek, baita irakasleei laguntzeko zerbitzu guztiek ere, hezkidetzan prestakuntza espezializatua duten langileak izango dituztela. Hau ere ezartzen du: "Hezkuntza Administrazioak ikastetxe guztietan bermatuko du ikastetxeetan hezkidetzako irakasle arduradunak izendatuko direla, eta irakasle horiei asteko ordutegian dagozkien orduak esleituko zaizkiela hezkidetzaren arloko lanerako eta prestakuntzarako. Halaber, bermatuko du emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiaz arduratzen diren batzordeak egongo direla; batzorde horietan hezkuntza-komunitateak parte hartuko duela, eta, hala badagokio, dagokion toki-administrazioiko berdintasun-organo edo -unitateekin koordinatuko direla. Era berean, bermatuko du ikastetxe horietako ordezkari-organoren gorenetan dauden berdintasun-ordezkariek prestakuntza egokia izatea, eta hori sustatuko du eskola-kontseiluetan, hala udalerrien nola autonomia-erkidegoaren mailan, hezkuntza-eremuan berdintasuna sustatzeko neurriak bultzatzen".

58.5. artikuluan, berriz, honako hau ezartzen du: "Hezkuntza Administrazioak bermatu behar du emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek lehentasunezko tratua izango dutela, aldi baterako bada ere, erabat edo partzialki euskal administrazio publikoetako funtsekin finantzatuta dauden haur-eskoletan sartzeko eta hezkuntzaren eremuan dauden beka eta bestelako laguntza eta zerbitzu batzuk lortzeko". Horrela, 58.6. artikulua dioenez Hezkuntza Administrazioak "bermatu behar du trantsizioa behar bezala egiten dela eta umeak behar bezala eskolatzen direla, biktimen seme-alabak indarkeria-ingurunea utzita beste norabait eraman behar direnean eta beste ikastetxe batean eskolatu behar direnean".

Genero-indarkeriaren ondorioz bizilekuz aldatzen diren adingabeei dagokienez, **Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriak buruzko 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak**, 5. artikuluan hau ezartzen du: "Administrazio eskudunek berehalako eskolatzea ezarri beharko dute, genero-indarkeriazko egitateen ondorioz bizilekua aldatu behar denean, eta horrek seme-alabengan ondorioak dituenean".

Gainera, **maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatzen duenak**, hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez: "Genero-indarkeriako ekintzen edo eskola-jazarpenaren ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleen berehalako eskolatzea ziurtatuko dute hezkuntza-administrazioek. Halaber, ikastetxeek ikasle horiei arreta berezia eskaintzeko aukera erraztuko dute".

Azkenik, nabarmendu behar da **ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, Indarkeriaren aurrean Haurrak eta Nerabeak Babestekoa**. Lege horrek esparru guztietarako betebeharrak ezartze ditu eta, bereziki, hezkuntzaren esparrurako indarkeriaren detekzio goiztiarrerako hainbat prebentzio-neurri garatzen ditu. Neurri horiek ezinbestekotzat jotzen dira kontuan hartzen bada haurrentzako eta nerabeentzako funtsezko sozializazio-ingurunea dela.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrak buruzkoaren, 19.4. artikuluan ezartzen denez, "Ikastetxeek babes-neurriak hartu beharko dituzte berdinen arteko tratua txarren kasuetan eta bereziki eskola-jazarpenen eta emakumeen aurkako eraso kasuetan. Beharrezkotzat jotzen badute, jazarleak ikastetxez aldatzea berehala proposatu dezakete edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzakete. Nolanahi ere, behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea izango dute jazarpenaren biktimek".

Bestalde, Hezkuntza Sailak urtero beka eta unibertsitate-maila ez duten ikasleak eskolatzeko ikasteko laguntzak ematen ditu³⁹, baita unibertsitate-mailako ikasketak eta beste goi-mailako ikasketa batzuetarako ere⁴⁰. Arazten dituzten dekretuetan, baldintzen betekizunaren inguruan, berariaz aipatzen dira ikasketarako laguntzak eta genero-indarkeria baldintza duten emakumeentzako (1/2004 Lege Organikoaren arabera) edota haien seme-alabentzako salbuespen akademikoak (21. eta 31. artikulua hurrenez hurren).

EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023) zortzigarren zutabeak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa eta horren aurre egiteko jarduna aipatzen ditu, hiru jarduketa motatan oinarrituta: ikasleak sentsibilizatzea bideratutakoak, eskolak ikastetxeetan errepikatzen ari diren matxismo- eta indarkeria-egoerak antzematera bideratutakoak eta, azkenik, ikastetxean indarkeria kasuak antzeman ondoren esku-hartze zuzena egitera zuzendutakoak.

Indarkeria matxistaren biktimei diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jardunbideak testuak jarraitu behar den zuzeneko esku-hartzea finkatzen du. Bertan emakumeen aurkako indarkeria matxista-kasu bat antzeman ondoren jarraitu beharreko pausoak ezartzen dira indarkeria erabiltzen duen operadorearen arabera.

Gainera, eraso sexual- edota jazarpen sexista-kasu baten aurrean hezkuntza-komunitatearen jarduketa zehazten duen erreferentziazko prozedura orokorra biltzen du 2006ko testu honek: **Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabatasun-egoerak eta tratu txarrak, sexu-abusua eta -jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten operadoreen arteko lankidetzaren eta koordinazioa**. Protokolo hori jarraituz idatzi dira **Indarkeria matxistaren biktimei diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jardunbideak**.

Esku-hartzen duten operadoreak:

- **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Sailburuordetza:** Sailburuordetza horrek hezkuntza-sistema antolatzea, eraldatzea eta berritzeko ekintzak planifikatzea ditu helburu, baita hezkuntzako ikuskaritza eta laguntza zerbitzua koordinatzea ere. Sailburuordetzaren barruan, ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza biktimei diren emakumeen edota bere seme-alaben ikasketak espedienteen lekualdaketa jaso eta kudeatzeaz arduratzen da.
- **Lanbide Heziketako Sailburuordetza:** Sailburuordetza hori hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide heziketa antolatzearen, eraldatzearen eta berritzearen inguruko ekintzak planifikatzeaz arduratzen da.
- **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza:** Sailburuordetza hori aukera-berdintasuna lortzeko helburuarekin ikasketarako laguntza- eta beka-politika planifikatzeaz, aztertzeaz eta proposatzeaz arduratzen da. Sailburuordetza horren barruan Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak biktimei diren emakume eta seme-alabentzako unibertsitate-ikasketen ordainketa-salbuespenak arautzen ditu. Geroago Sailak hartzen du ordainketa horiek egiteko ardura.
- **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza:** Sailburuordetza horrek beka- eta laguntza- politika bultzatzeko funtzioa du, baita ekonomia- eta

³⁹ 2021eko ekainaren 1eko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako, eta desgaitasun fisiko edo psikikoa eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleek garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzetarako, 21. artikulua.

⁴⁰ 2021eko ekainaren 1eko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako, eta desgaitasun fisiko edo psikikoa eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleek garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzetarako, 30. artikulua.

administrazio-kudeaketa koordinatzekoa ere. Sailburordetza horren barnean, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza emakumeei eta haien seme-alabei zuzendutako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzarako beka eta laguntza orokorrak aztertzeaz, proposatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da.

- **Ikastetxeak:** Ikastetxeen ardura da hezkuntza-arloko jarduketa-prozesua eta prebentziorako eta esku-hartzeko protokoloa koordinatzea haur eta nerabeen babesgabetasun eta tratu txar-egoeren aurrean, sexu-jazarpen eta -abuso egoeren aurrean. Koordinazio hori zentroaren irakasleen esku utz dezakete.
- **Hezkuntzako ikuskaritza:** Ikastetxeei eta irakasleei aholkularitza eta laguntza emateko funtzioa du haurrei eta nerabeei eragindako tratu txar- eta babesgabetasun-egoerak, sexu-jazarpen eta -abuso egoerak prebenitzeko eta horien aurrean ekiteko protokoloaren inguruan eta egoera horien jarraipenaren eta ebaluazioaren inguruan.
- **Ikastetxeari laguntzeko kanpoko zerbitzuak (Beritzeguneak):** Ikastetxearen zuzendaritzari zein jarduketa jarraitu behar diren ezartzeko aholkularitza eta laguntza emateko funtzioa dute. Jarduketa horiek ikastetxeak martxan jarriko dituen hezkuntzako esku-hartzeak zehaztuko dituen ekintza plan batean bilduko dira.


Prozedurak eta pautak:

Esparru horretan bereizketa egin behar da, alde batetik, emakumeen, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria matxista egoerak daudenean edo haien susmoa dagoenean EAeko hezkuntza-esparruan atxikitako langileentzako jarduketa-prozedura eta, bestetik, esparru horretatik kudeatzen diren biktima horiei eta seme-alabei zuzendutako laguntzetara eta prestazioetara sarbidea izateko prozedura.

Lehenengo prozedurari dagokionez, lau egoera bereizi behar dira egoera erabiltzen duenaren arabera:

1. Ikastetxeko **ikasle mutil batek** beste **ikasle baten** kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.
2. **Ikastetxeko langile batek ikasle baten** kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.
3. **Senideren batek** edo **ikastetxeko langilea ez den beste pertsona batek ikasle baten** kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.
4. Ikastetxeko emakume **langileren** baten edo ikasle baten **amaren** kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen den kasuak edo indarkeria horren susmoa.

PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA: EMAKUMEEN ETA UME NESKEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA EGOERA BAT EDO HAREN SUSMOA



SARBIDEA: Emakumeen, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren berri duen edo oinarritun susmoa duen hezkuntza-komunitateko edozein pertsona helduk, indarkeria fisikoa, psikikoa zein sexuala izan, jazarpena eta intimidazioa barne, ikastetxeko zuzendaritzari idatziz jakinaraziko dio. Egoera horien berri eman dezakete, halaber, beste zerbitzu edo sistema batzuetako langileek (gizarte-zerbitzuek, Poliziak eta osasun langileek... horretarako biktimaren eta familiaren baimena jaso ondoren), hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen senideek edo haren sare-sozialeko pertsonak edo, salaketa jarri bada, operadore juridikoek.

LARRALDIETAKO ARRETA: Ikastetxeak emakumearen, haurren edo nerabearen osotasuna arrisku larrian dagoela balioesten dutenean larraldietako 112 zenbakira deitu beharko da berehala. Ondoren, haur nesken eta nerabe nesken kasuan, gurasoari, gurasoei edo tutoreari jakinaraziko zaio.

KOMUNIKAZIOA ETA JARDUNA⁴¹: Komunikazioa eta jarduna kasu motaren arabera izango dira. Gehienez lau agertoki aurreikusten dira:

1. Ikastetxeko langile batek ikasle baten kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuan edo indarkeria horren susmoa dagoenean, zentroko zuzendaritzak berehala jakinaraziko dio hezkuntzako ikuskaritzari, aldi berean horrek lurralde-ordezkaritzari emango dio informazioa eta egokia dela estimatzen bada diziplinazko neurriak hartu ahaliko dira. Aldi berean,

⁴¹ Egoera horiek zehaztasun handiagoz garatzen dira Hezkuntza Sailaren webgunean eskuragarri dagoen "Indarkeria matxistaren biktima diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jardunbideak" dokumentuan.

haurren edo nerabearen babesa bermatzen duten zaintza- eta antolaketa-neurriak martxan jarriko dira (larrialdietako esku-hartzea).

Bestalde, familia edo adingabearen legezko tutorea jakinaren gainean jarriko da eta biktimari eta familiari edo legezko tutoreari/tutoreei erreferentziatzeko pertsona heldu bat esleituko zaie.

2. Senideren batek edo ikastetxeko langilea ez den beste pertsona batek ikasle baten kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzak zuzenen jakinaraziko dio hezkuntzako ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko du.

Bestalde, adingabearen familiari edo tutoreari abisatuko zaio. Familiari edo tutore legalei egiten zaien jakinarazpena indarkeria erabili duenaren arabera aldatuko da:

- Aita bada: amari edo tutore neskei egin beharreko esku-hartzeen berri emango zaie.
- Familia-inguruneko beste pertsona bat bada eta ez badago biktimarekin lotuta: familiari edo tutore neskei egin beharreko esku-hartzeen berri emango zaie.

Informazio hori eman ondoren, biktimari eta familiari eta legezko tutoreei/tutoreari erreferentziatzeko pertsona heldu bat esleituko zaie.

3. Ikastetxeko emakume langileren baten edo ikasle baten amaren kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen den kasuetan edo indarkeria horren susmoa dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzak berehala jakinaraziko dio hezkuntzako ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko du.

Ikastetxean biktimari babesa edota laguntza emango zaio, erreferentziatzeko pertsona bat eskainiz eta eskolan dauden seme-alabei arreta berezia eskainiko zaie ikastetxeko tutorearen bidez.

Amari tratu txarrak ematen dizkiona ikastetxeko ikaslea bada: zuzendaritzari horren berri emango zaio eta hark hezkuntzako ikuskaritzari emango dio informazioa. Ondoren, zuzendaritzako taldeak ikastetxeko tutoreari jakinaraziko dio eta zuzendaritzaren eta tutorearen artean banakako plan bat garatuko da eta plan horren jarraipena egingo da.

4. Ikastetxeko ikasle mutil batek beste ikasle baten kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuetan edo indarkeria horren susmoa dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzak jarduketa- eta koordinazio-prozesuaren erantzukizuna hartuko du, eskola-jazarpen egoeren aurrean EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan esku-hartzeko protokoloa jarraituz.

- A) **Informazio-bilketa:** Zuzendaritzak, familiei jakinarazpena egin aurretik, gertatutako egitateei buruzko datuak eta ebidentziak bilduko ditu⁴²

Eskuragarri dagoen informazioa ahalik eta modu diskretuenean eta eraginkorrean osatu eta alderatuko da. Behatutakoa eta entzundako ahalik eta era objektiboenean eta zehatzenean erregistratuko da. Erantzuna baldintza dezaketen (edo baldintzatu dela pentsaraz dezaketen) eta ustezko lekuko-frogak baliogabetu ditzaketen galderak egitea ekidingo da.

- B) **Aldez aurreko analisia eta larrialdietako esku-hartzeak:** Jasotako informazioa analizatu ondoren, eraso jaso duen biktimaren segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira berehala. Neurri horiek biktimaren adina eta testuingurua kontuan hartuta hartu beharko dira. Hauek izan daitezke neurriak: erreferentziatzeko pertsona heldu bat aukeratzea; biktimarekin

⁴² Araubide bereziko Lanbide Heziketa ikastetxeak hezkuntzako ikuskaritzarekin harremanetan jarri beharko dira, baina laguntza-zerbitzuekin ez (Berritzeguneak) ez baitagokie kasu horietan gai horri buruzko informazioa ematea.

harreman zuzena duten langileei jakinaraztea edozein gorabehera gertatu ezkerera koordinatuan jarduteko; zaintza-neurri diskretuak ezartzea; etab.

- C) Familiei edota legezko tutoreei egiten zaien lehenengo jakinarazpena:** Bereizitako elkarrizketak egingo dira, alde batetik, biktima den ikasleari eta bere familiari deituko zaio eta, bestetik, ikasle erasotzaileari eta bere familiari, helburu honekin: egitateei buruzko informazioa jakinaraztea eta jasotzea, familiak ezagutzen dituen eta zein neurri hartu dituen jakitea, hartu diren edo hartuko diren larrialdietako neurriei buruzko informazioa ematea, haien iritzia edota gehitu dezaketena jasoz, eta egitateak delitu diren jakinaraziko zaie.
- D) Informazioa osatzea eta aztertzea:** Informazioa osatu ondoren (galdetegien, elkarrizketen eta abarren bidez) indarkeriarik ez dagoela ondorioztatzen bada, ikastetxeak esku-hartze plan bat egingo du eta horretarako hezkuntzako ikuskaritzaren laguntza-zerbitzuaren aholkularitza eskatu beharko du. Planak idatziz jaso behar ditu ikastetxeak ikasleei, familiei, ukitutako gainerako ikasleei eta irakasleei aplikatuko dizkien neurriak, baita larritasunaren arabera erakunde sozial sanitario edo judizialei egingo zaizkien jakinarazpenak. Familiei ekintza-planeko neurrien berri emango zaie.

Indarkeria egon daitekeela ondorioztatzen bada ustezko biktima babesten jarraitzeko eta txosten bat egiteko ebidentziak biltzen jarraitzeko neurriak hartuko dira.

Bertan indarkeriarik egon ez dela ondorioztatzen bada, bizikidetzaren ona bultzatzera bideratutako erantzun hezigarri bat proposatuko da. Laguntza-zerbitzuak erantzun horrekin lagunduko du. Aitzitik, indarkeria dagoela ondorioztatzen bada, ikastetxeak martxan jarriko dituen neurriak jasoko dituen bigarren txosten bat egingo da.

Nahiz indarkeria matxista dagoela ondorioztatu, nahiz halako indarkeriarik ez dagoela ondorioztatu, kasuak hezkuntzako ikuskaritzari jakinaraziko zaizkio egitateei ematen zaien kalifikazioa eta, egokia bada, hartuko diren neurriak.

- E) Jarraipena eta ebaluazioa.** Ikastetxeko zuzendaritzak Jarduketa Planean aurreikusten diren neurriak betetzearen ardura hartuko du, ikastetxeko erreferentziazko ikuskariari aldi-aldi neurri horien betetze-mailari buruzko eta ukitutako ikasleen egoera sozio-erakunde buruzko informazioa emango dio.

OFIZIOZKO JAKINARAZPENEA: Langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorritik, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larri arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badieziaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezken. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).


Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak (15. artikuluan) ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzean, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

BALIABIDEI BURUZKO INFORMAZIOA: Emakumeen aurkako indarkeria matxista-egoera bat antzematen denean, edo haren susmoa dagoenean, lehenago aipatutako lau egoeretako edozeinetan, biktimei edo, hala badagokio, familiei laguntza emango zaie eta hezkuntzaren arloan eskubidea izan dezaketen zerbitzu eta prestazioei buruzko informazioa emango zaie edo behar bezala informazioa jasotzeko bideratuko dituzte horretarako gaitasuna duen zerbitzura.

Horrela, laguntza eman diezaieketen beste sistema batzuetako zerbitzuetara bideratuko dituzte, bereziki oinarrizko gizarte-zerbitzuetara, biktimak horretarako baimen informatua eman ondoren. Zentzu horretan, biktimen baimen⁴³ informatua lortzea beharrezkoa izango da, idatziz edo beste zerbitzu batzuetako langileei (beste sistema edo erakunde batzuetakoak) informazioa bidaltzeko frogatuta geratzen den moduren batean.

PROZEDURA ETA PAUTA OROKORREN MAPA: SARBIDEA LAGUNTZETARA ETA PRESTAZIOETARA



SARBIDEA. Prozesua genero indarkeriaren biktimei (1/2004 Lege Organikoaren arabera bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeria) edota seme-alabei zuzendutako laguntza edo prestazio motaren bat eskatuz hasten da. Hezkuntza-esparruan haiei zuzendutako hiru laguntza eta prestazio mota kudeatzen dira:

1. Biktimen edota seme-alaben ikasketa-espeditentearen lekualdaketa. Amak edo tutorea den pertsonak egin ditzake ikaslea ikastetxez aldatzeko eskaeraren izapideak.
2. Biktimentzat edota harekin bizi diren ardurapeko 25 urtetik beherako seme-alabei zuzendutako unibertsitate-ikasketen ordainketaren salbuespena. Emakumeak eta adin nagusiko seme-alabek aurkez dezakete eskaera unibertsitatean.
3. Emakumeentzako eta seme-alabentzako hezkuntza-bekak. Amak, aitak edo tutoreak aurkez dezake eskaera.

⁴³ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakunde 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daitezke.

1. **IKASKETA-ESPEDIENTEAREN LEKUALDAKETA:**

- a) **Informazio-eskaera eta -bilketa:** Ikasketa-espeditentearen lekualdaketa bat eskatzen denean, gurasoetako batek alde bakarrez seme-alaba ikastetxez aldatzea eskatzeko ahala duen ziurtatuko da. Beraz, egokia da sententzia judiziala edo behin behineko neurrien autoa berrikustea hezkuntza-arloko guraso-ahalaren eginkaritza kontsultatzeko.

Hezkuntza-arloan guraso-ahala partekatzen den kasuetan, adingabearen amak indarkeria matxistaren biktima dela frogatzen duen ziurtagiri judiziala badu, gizarte-zerbitzuen eta bereziki Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen txostenean hori proposatzen denean, ezkontide erasotzailearen baimenik gabe ekin ahalko da. Salbuespenez horrela jardungo da indarkeria matxistaren biktima diren eta foru aldundiko emakumeentzako egoitza-zentroetan dauden emakumeekin.

- b) **Aitari jakinaraztea:** Emakumeak ez badu genero indarkeriaren ziurtagiririk indarrean eta ez bada bere egoera justifikatzeko gizarte-txostena aurkezten, sailak ikastetxe aldaketa eskatu ez duen gurasoari eskaeraren berri emateko betebeharra du bere baimena eskuratzeko⁴⁴. Informazioa eman zaion alderdiak, egokia denean, baiezkoa ematen badu edo ez badu erantzuten ez aldaketa kontrako inongo dokumenturik aurkezten, informazioa jasotzen den egonaren hurrengotik hasita 10 lan-egunen epean, beste alderdia ados dagoela suposatzen da eta ikastetxe-aldaketa gauzatuko da.
- c) **Eskaera judiziala:** Aitak ez badu onartzen dagokion organo judizialaren baimena eskatuko da. Organo horrek baiezkoa ematen badu ikastetxe aldaketa egingo da eta prozesua bukatuko da.

2. **UNIBERTSITATE-TASEN ORDAINKETA-SABUESPENA:** Genero-indarkeriaren biktima-izaera duten emakumeek edota genero indarkeriaren biktima diren haien seme-alabek unibertsitate-ikasketetan ordainketaren salbuespena eskatzen dutenean, indarrean dagoen araudiko gainerako baldintzak betetzen diren ziurtatuko da eta, hala badagokio, laguntza emango da.

3. **HEZKUNTZA-BEKAK:** Hezkuntza-beken eskaeraren kasuan, ikaslearen bizikidetz-unitateko kideren batek genero-indarkeria pairatu badu eta inguruabar hori urruntze-agindu judizial batekin, kondena-epai judizial batekin edo oinarrizko gizarte-zerbitzuen txosten batekin frogatzen bada, laguntzak eman egingo dira, nahiz eta baldintza akademikoak ez bete. Dokumentazioa ziurtatzen eta baliozkotzen denean laguntza emango da.

⁴⁴ 2011ko jarraibide hauetan ezartzen denarekin bat etorriz: Jarraibideak, guraso banatuek edo dibortziatuek edo elkarbizitza eten duten izatezko bikoteek informazioa eskatzeko eta ikastetxea aldatzeko eskatzen duten kasuetarako.

2.5.6. Enpleguaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pauta orokorrak

Araudia:

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, enpleguaren arloan genero-indarkeriaren biktimei babesteko neurriak ezartzen ditu lanpostuko absentziak justifikatzeko, lanaldia murrizteko edo berrantolatzeke, mugikortasun geografikoa ahalbideratzeko, lanpostua gordez lan-harremana eteteko eta lan-kontratua azkeneratzeko. Ildo honetatik, Enplegu Zerbitzu Publikoen beharrezko koordinazioa eskatzen du, mugikortasun geografikorako eskubidea baliatze aldera. Bestalde, babesteko edo gizarte-laguntza osorako eskubidea baliatzeko jardunari uzten dioten norberaren konturako langileei dagokionez, sei hilabetez kotizatzeke betebeharra eteta ezartzen du.

Gainera, legeak 22. artikuluan ezartzen duenez, "Espainiako Erresumaren Enplegu-planaren esparrura bilduko da genero-indarkeriaren biktimentzako ekintzen programa espezifikoak, betiere, biktime horiek enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta badaude."

Horri dagokionez, **Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak** ere indarkeria matxista pairatu duten emakumeei lehentasunak ematen dizkie orientabide soziolaboralerako, enplegurako edo kontratatzea bultzatzeko formakuntzarako eta langile autonomo gisa bultzatzeko. "Erregelamenduz zehaztuko diren baldintzetan, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek lehentasuna izango dute orientazio soziolaboralerako baliabide publikoetan. Lehentasunezko eskubidea izango dute, halaber, beren profiletara egokitzen diren eta erabat edo partzialki euskal administrazio publikoetako funtsekin finantzatuta dauden enplegurako prestakuntza-ikastaroak egiteko; horretarako, kupoak edo beste neurri batzuk ezarriko dira".

"Euskal administrazio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek lanerako kontratatzea eta langile autonomo edo kooperatibako bazkide izatea sustatu behar dute, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan".

Gainera, berariaz aipatzen dira **diru-sarbideak bermatzeko errenta** eta errenta horrek indarkeria matxista-kasuetan dituen onurak ahalduetzeko baldintzei, bizikidetzaren unitateak independizatzeari, laguntza eskuratu ahal izateko gutxiengo adinari eta laguntza finalisten zenbaketari dagokionez: "emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek salbuetsita daude diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko lege ezarritako dagoen gutxiengo adin-mugaren aplikaziotik, eta, bestetik, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren egoera bat dela-eta ohiko etxebizitza utzi behar duten eta beste pertsona batzuen integratzen diren pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea daukate, harrera egin dietenak senitartekoak izan ala ez, baldin eta errenta hori jasotzeko eskatzen diren beste betekizunak betetzen badituzte". "Halaber, eta pertsona horiek ekonomikoki autonomoak izatea eta bizitza normalizatura itzultzea bultzatzearen, aldi baterako harrera-pisuetan edo -zentroetan babestuta dauden emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta errenta hori jasotzeko eskatzen diren beste betekizunak betetzen badituzte, nahiz eta pertsona horien oinarrizko mantenua pisu edo zentro horiek bete".

Horrela, **abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, eta azaroaren 24ko 4/2011 Legeak**, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duenak, zeinetan diru-sarbideak bermatzeko errenta (DSBE) arautzen den, diru-sarbideak bermatzeko errenta eskubidearen titular izateko bete beharreko baldintzak aipatzen dituzte, baita emakume biktime kasuan aplikatzen diren salbuespenak ere.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoari, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoari, erantzunez, azaroaren 21eko 1917/2008 Errege Dekretuak, Genero-indarkeriaren biktimei

diren emakumeentzako laneratze programa onartzen duenak, alde batetik, lege organiko hori indarrean jarri zenetik ezarritik joan diren helburu bera duten laguntzak biltzen ditu eta, bestetik, Enplegu Zerbitzu Publikoetan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden genero-indarkeriaren biktimei enplegarritasuna handitzen lagunduko duten laguntza gehigarriak ezartzen ditu. Horrela, biktime horiek lan-munduan eta gizarte txertatzea bultzatzen eta errazten da, bai besteren konturako enpleguan bai langile autonomo gisa bai enpresak sortuz. Era horretan, berdintasunean eta genero-indarkerian espezializatutako formakuntza duten Enplegu Zerbitzu Publikoetako langileek osatutako genero-indarkeriaren biktimentzako arreta-puntuen bidez, arreta espezializatu eta konfidentziala ematea aurreikusten da.

Gaur egun, erreferentziako barne-protokoloa "Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeekin esku-hartzeko protokoloa" da.

Esku-hartzeko duten operadoreak:

- **Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa:** Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa da, lan-arloko eskumenak dituen sailari atxikitako izaera-administratiboa duen erakunde autonomoa da. Erakunde horrenak dira diru-sarbideak bermatzeko errentaren izapidetzearekin eta ebazpenarekin lotutako eskumenak. Diru-sarbideak bermatzeko errenta izaera ekonomikoko eskubide subjektiboko aldizkako prestazio bat da eta bizikidetzaren unitate batean oinarritutako beharrei lotutako gastuak ordaintzeko edo lan- edo gizarte-inklusioko prozesu baten ondoriozko gastuak ordaintzeko nahikoa diru-sarrerarik ez duten pertsonen zuzentzen zaie. Prestazio horren kudeaketaren esparruan, erakundeak genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeak artatzeko berariazko protokolo bat du.

Bestalde, lan-eskatzaileak diren indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako neurriak ditu. Horrez gain, indarkeria matxistaren biktimei lan-aholkularitza eskaintzean espezializatutako lan-tutoreek lan-merkatuan eta formakuntza-ikastaroetan sartzea errazteko aholkularitza eskaintzen dute.


Lanbide tokiko eta lurraldeko bulego-sarea du eta bulego horiek zerbitzu publikoa eskaintzeko eraginkortasuna eta efizientzia irizpide hartuta ezarri dira EAEko lurralde osoan zehar. Pertsona bakoitzari bulego bat esleitzen zaio posta-kodearen arabera.

- **Zentro laguntzaileak:** Lanbide enplegu-eskaeraren, orientazioaren eta formakuntzaren kudeaketarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde laguntzaileak ditu.

Prozedurak eta pautak:

Delitu izan daitekeen indarkeria matxista-egoera baten edo haren susmoaren aurrean, EAEEn enplegu-esparruan atxikitako administrazioko langileek honako prozedura eta jarduketa-pauta hauek jarraituko dituzte:

PROZEDUREN ETA PAUTA OROKORREN MAPA:



SARBIDEA, LANBIDEN ERREGISTRATZEA: Lanbidetik sartzten da enplegu-sistema publikora eta gerta daiteke biktimak zuzen bulegoetako batera jotzen duenean edo beste sistema batzuetatik (bereziki gizarte-zerbitzuetatik) biktimari informazioa eta orientabidea eskaintzeaz eta laguntzeaz arduratzen diren erreferentziatzko langileek biktimari DSBE edo bitartekotza soziolaborala eskatzera laguntzen diotenean. Beste autonomia erkidego batzuetako Enplegu Zerbitzu Publikoetatik doazen emakumeak ere izan daitezke eta kasu horietan, partekatutako aplikazioek indarkeria-kasua identifikatuta izatea ahalbidetzen dute era automatikoan emakumeari behar duen zerbitzua eskaintzeko. Indarkeria-kasuek lehentasuna dute.

Lehenengo bisitaren unean ez bada emakume-eskatzaillearen biktima-izaera ezagutzen (emakumea beste baliabide batetik hara bideratu ordez, zuzenean Lanbidera joan bada eta lehenago ez badu biktima-izaeraren berri eman), zentroko edozein langilek artatuko du emakumea. Pertsona hori Lanbiden erregistratzeaz arduratuko da, lehendik alta emanda ez egotekotan, eta emakumeak biktima-izaeraren berri ematean (*in situ*, lehenengo bisitan edo hurrengoetan) erregistroan gehitzeaz arduratuko da eta emakumea indarkeria matxistan espezializatutako tutorearengana bideratuko du emakumea.

Sistemara sartzeko unean emakumearen biktima-izaera ezagutzen bada, lehen hitzordua zuzenean indarkeria matxistan espezializatutako tutorearekin izango da eta tutoreak Lanbiden erregistratuko du (alta emanda ez egotekotan).

ESPEZIALIZATUTAKO TUTOREA: Tutore hori emakumearen erreferentziatzko figura bihurtuko da sistema barruan. Emakumearekin izaten duen lehen hitzorduan kasua baloratuko du eta DSBE eskatzeko eskubiderik duen zehaztuko du eta aldi berean bitartekotza soziolaboral prozesua hasiko da.

Era berean, emakumeari era ulergarrian jakinaraziko zaio zein datu jasoko diren, zertarako jasoko diren, nola gordeko diren eta zein den horiek zuzen erabiltzearen arduraduna. Datuak emateak izan ditzakeen onurei eta ez emateak izan ditzakeen ondorioei buruzko informazioa ere emango zaie, baita datu horiek zuzentzeko

edo ezereztatzeko duten eskubideari buruzkoa ere. Gainera, datuak konfidentzialak direla jakinaraziko zaio eta jaso diren helburuarekin lotutakoek bakarrik tratatuko dituztela. Datu horiek beste zerbitzu batzuei lagatzea aurreikusten bada (hainbat erakunde edo sistematakoak), pertsonak horren berri izan behar du eta baimena emateko edo ez emateko aukera eman behar zaio⁴⁵ eta idatziz edo frogatuta geratzeko moduan jaso beharko da.

Emakumeak lehendik DSBE jasotzen bazuen, baina haren titularra ustezko erasotzailea bada, emakumeak berriro diru-sarbideak bermatzeko errenta eskatzeko izapide guztiak hasi beharko ditu.

Erasotzaileari Lanbideren bulego berean arreta ematen bazaio eta urruntzeko agindua badu erasotzailea bulego aldatzea eska daiteke, kontuan hartuta emakumeak nahiago duen bulegoa hauta dezakeela.

In situ indarkeria antzeman bada (zentrora egindako lehen bisitan edo hurrengoetan), espezializatutako tutoreak biktimari eskuragarri dituen baliabideen berri emango dio eta, egokia bada, dagozkion baliabideetara bideratuko du, bereziki oinarrizko gizarte-zerbitzuetara, biktimak horretarako baimena eman ondoren. Zentzu horretan, beharrezkoa izango da biktimen baimen informatua lortzea.

Biktimak salaketarik jarri ez badu ere, langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorriz, Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezten. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzuez jabetzen den operadore orok Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

DSBE IZAPIDETZEA: DSBE eskatzeko eskubidea izanez gero, hitzordua eskatuko da eta eskaerarako prozesua hasiko da: aurkeztutako dokumentuak berrikustea eta betekizunak egiaztatzea, esleitzea, kudeatzea eta berrikustea.

Emakumeak indarkeriaren biktima-egiaztagiria badu, DSBEren aplikazioan erregistratuta geratuko da eta izapideak ahalik eta azkarren egiteko ahalegina egingo da. Behin DSBE esleitu ondoren, eskaerarekin lotutako inguruabarretan izaten diren aldaketak jakinarazi beharko dira (etxebizitza, egoera ekonomikoa...).

Espezializatutako tutoreak ez du prozesuarekin duen lotur etengo neurri onuragarri guztiak era egokian aplikatzen direla ziurtatzeko. Egiten diren berrikuspenetan, eskubidea etetea edo iraungitzea proposatzen denean, gaia tutore espezializatuari eskualdatuko zaio balora dezan.

BITARTEKOTZA SOZIO-LABORALA: Behin DSBE izapidetu ondoren, edo izapidetzen den bitartean, laneko orientazio-prozesua hasiko da indarkeriaren biktimekin hura lan-munduan txertatzeko lan egiteko.

⁴⁵ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakundek 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

Enplegarritasuna baloratuko da eta banakako lanerako plan bat (jarraitu beharreko ibilbideak ezartzen dituen enplegurako akordio pertsonala) garatuko da pertsona bakoitzaren beharren arabera. Aurreikusitako ibilbideak landuko dituzten jarraipenerako elkarrizketak ezarriko dira.

Lanbidek erabaki dezake, emakumearen adostasunarekin, bitartekotza soziorabala zentro laguntzaileetakoren batean edo Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lotutako programa espezializatuetan. Kasu horietan emakumea zentro horietara deribatuko da eta bertan ezaugarri bereko prozesu bat egingo da.

2.5.7. Etxebizitzaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-pauta orokorrak

Araudia:

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, 28. artikuluan zehazten du "Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak lehentasunezko talde moduan hartuko dira, nagusientzako babes-etxebizitzetan eta egoitza publikoetan sartzeari dagokionez".

2006ko urriaren 4ko Aginduak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarenak, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoak ekintza positibo batzuk antolatzen ditu. Aurrerago, agindu hori beste honek aldatu zuen: **2012ko urriaren 15eko Aginduak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarenak, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoak**. Bigarren horrek etxebizitza-eskatzailen erregistroa eta babes publikoko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurak arautzen ditu.

2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2. artikuluan etxebizitzarako behar berezia duten hainbat talde-eskatzaille edo bizikidetzta-unitate jasotzen dira, horien artean genero-indarkeriaren biktimek aipatzen dira. Horrek esan nahi du biktimek baremazio-prozeduran puntuazio altuagoa dutela, lau puntu gehiago, eta gainera lehentasunezko esleipen-kupo bat dutela.

Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeek Etxebiden izena emateko prozesuan lortzen dituzten onuren artean daude:

- Gizarte-alokairua eskatzeko aurreko urtean irabaziak izatearen baldintzaren salbuespena eta gizarte-etxebizitza erosteko eskatzen diren gutxiengo irabaziak 3.000 eurora jeistea.
- Eskaintza batean erroldaketa frogatzea eskatzearen salbuespena. Etxebizitzaren beharraren baldintzari dagokionez, salbuespena ez da autonomia erkidego-mailakoa, salbuespen hori Etxebizitzako sailburuordeari eskatu behar zaio.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak 58. artikuluan ezartzen duenez, "Euskal administrazio publikoek, funts publikoekin finantzaturako etxebizitzetarako sarbidean, bermatu behar dute lehentasuna emango zaiela emakumeen kontrako edonolako indarkeria matxista pairatzen duten biktimei, baldin eta indarkeriaren ondorioz prekaritate ekonomikoan badaude edo etxebizitza bat izatea beharrezkoa badute leheneratzeko. Horretarako, elkarren artean koordinatuko dira, eta baldintzen salbuespenak, erreserbak, zuzeneko esleipenak edo bestelako neurri batzuk ezarriko dituzte, zeinak dagokion erregelamendu-garapenaren bidez zehaztuko baitira; horietan, kontuan hartuko dira desgaitasuna duten biktimeen irisgarritasun-beharrizanak eta 65 urtetik gorako emakumeek etxebizitzak egokitzeke dituzten beharrizanak".

Esku-hartzen duten operadoreak:

- **Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetza:** Eusko Jaurlaritzako sailburuordetza horrek babes publikoko etxebizitza bultzatzen du. Horretarako, eskaintzen kalifikazio-prozesuaren hasieratik parte hartzen du, finantzaketan laguntzen du, ondoren, esleipen-prozedura arautzen du inpartzialtasunez gauza dadin eta, bukatzeko, etxebizitzaren erabilera indarrean dagoen araudiarekin bat datorrela egiaztatzen du.

Sailburuordetza horren barruan, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu operadoreen Zuzendaritza zerbitzu juridiko eta administratiboaren ardura da genero-indarkeriaren biktime zuzenak diren emakumeen balizko zuzeneko esleipenak eta Etxebidaren jabetzan eta gozamenean etxebizitzarik ez izatearen baldintzaren salbuespen izan daitezken espedienteak aztertzea.

- **Etxebide - Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua:** Zerbitzu horrek Euskadin babes publikoko etxebizitzaren arloan dagoen eskari eguneratua atzematen du une bakoitzean gizarteak dituen beharrak asetzeko

sistema batzuetako erreferentziazko langileek izapidetzea erraztu ahal izango dute. Bestalde, gizarte-
alokairuko etxebizitzaren zuzeneko edo ezohiko esleipen baten eskaera Etxebizitza Sailburuordetzaren
aurrean egiten da eta alkatetzari, zinegotzitzari edo foru-aldundiari dagokio eta justifikatzen duen Gizarte
Zerbitzuen Arloko txosten tekniko batekin lagunduko da. Eskaera derrigorrez erregistro elektronikoko
orokorraren bidez egin beharko da.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako etxebizitzaren arloko edozein prestazio
eskuratze biktimak Etxebideren etxebizitza-eskatzaileen erregistroan altan emanda egon behar du. Ez
badago altan emanda edo erasotzailearekin altan emanda badago beste eskaera bat egin beharko da edo
erregistroko inskripzioa aldatu.

Etxebiden izena emateko eskaera aurkezterakoan edo berritzaerakoan, espedientea "Genero Indarkeria"
espedientetzat har dadin honako baldintza hauek frogatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Biktima-izaeraren egiaztatzea (judiziala edo gizarte-zerbitzuetako txostena).
- Biktimak erasotzailearekin bizi izanaren utzi diola egiaztatzen duen agiria.
- Etxebizitza-gabezia.

ONURAK APLIKATZEKO BALDINTZEN EGIAZTAPENA: "Genero Indarkeria" gisa sailkatu daitezken
espedienteen dokumentazio guztia berrikusiko da baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko eta, egokia bada,
edozein dokumenturen falta zuzentzeko beharrezko errekerimenduak egingo dira.

Zehazki jabetzan edo gozamenean etxebizitzarik ez izatearen baldintzaren salbuespenaren balorazioa
Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren zerbitzu juridiko eta administratiboak
egingo du, zeinek aldi berean dagozkion beste sistemetako zerbitzuekin informazioa partekatuko duen (beste
batzuen artean Ogasun Sailarekin, Jabetza-erregistroarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza
Nagusiarekin). Jabetzan etxebizitza izatearen salbuespena ez da automatikoa, emakumeak zuzenean eskatu
behar du (orokorrean gizarte-zerbitzuen bidez) eta etxebizitza hori ez erabiltzea genero-indarkeria
egoerarekin lotuta egon beharko da. Behin berariazko izapide hau egin ondoren, salbuespena emango da.

Betekizun guztiak konplitzen direla egiaztatzen den kasuetan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren
biktima eskatzaileentzako erreferentziazko araudiak biltzen dituen onurak aplikatuko dira. Ez badira
betekizun horiek konplitze ez dira onura horiek aplikatuko, baina espedienteak aurrera jarraitu ahaliko du
ohiko espediente gisa. Ondoren, alokairuko etxebizitza esleitu eta gero, hura mantentzeko baldintzak
betetzen direla ere berrikusiko da.

GIZARTE-ALOKOIRUKO ETXEBIZITZAREN ESLEIPENA (OHIKOA): Gizarte-alokairuko etxebizitzaren ohiko
esleipena Etxebide Esleipenerako Euskal Zerbitzuen bidez egiten da. Alokabidek alokairuko etxebizitza
esleitzen duenean etxebizitzaren bilaketa hasiko da. Oro har, etxebizitza-bilaketak Etxebidek alde aurretik
ezarritako irizpide batzuk jarraituko ditu, ezohiko kasuetan bilaketa kasu bakoitzaren behar zehatzei
erantzunez egiten bada ere. Behar zehatz horiek dagozkien oinarriko gizarte-zerbitzuekin edo, kasua
denean, gizarte-zerbitzu espezializatuekin erkatuta aztertuko dira. Ondoren, Alokabidera bidaliko den
esleipen-ebazpen bat emango da.

Etxebizitza aurkitzen denean biktimari esleitu zaio eta dagokion alokairu-kontratua kudeatuko da
sailburuordetzarekin.

ERRENTAMENDUAREN ONDORIOZKO KUDEAKETAK: Alokabideren Eremu Sozialak birkokapena eskatzen
duen kasuetan biktimaren erreferentziazko langile-sozialarekin harremanetan jarriko da. Azkenean
birkokaketa egiteko beharra dagoela baloratzen bada justifikatzeko gizarte-txosten bat egingo da eta berriz
ere etxebizitza bilatuko da.

Erasotzailea biktimarekin bizi daitekeela susmatzen den kasuetan biktimaren erreferentziazko gizarte-
langileari jakinaraziko zaio egoerari dagozkion neurriak aktiba ditzan.

Bizikidetzaren arazoak edo utzarazpen batera eraman dezaketen ez-ordaintzeak antzematen diren kasuetan, biktimaren erreferentziarako gizarte-langilearekin kontrastatuko da horien iturri den arazoari buruzko ahalik eta informazioa gehien lortzeko eta, kasuaren arabera, zorren ordainketarako hainbat aukera eskaintzeko.

Bizikidetzaren edo ez-ordaintze arazoak antzematen diren edozein kasuren aurrean Alokabidek laguntza orokor eta sozioedukatibo-zerbitzu bat martxan jarriko du pertsonen arazo horiei aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen gaitasunak garatzeko. Hori lehenago esplizitatu gabeko indarkeria matxistako kasuak antzemateko bide bat izan daiteke. Zerbitzu horrek oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bidera ditzake zerbitzu horiek ezagutze ez zituzten edo aurretik sisteman sartu ez ziren pertsonak, horien baimena izan ondoren. Zentzu horretan, biktimen baimen informatua lortzea beharrezkoa izango da⁴⁶, idatziz edo beste zerbitzu batzuetako langileei (beste sistema edo erakunde batzuetakoak) informazioa bidaltzeko frogatuta geratzen den moduren batean.

Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorritik, langileek Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizios jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonen lesio larrien arrisku larria edo hur-hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezten. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua).

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeria-egoeraren zantzez jabetzen den operadore orok Poliziari, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai.

Dena den, ofizios hasten diren prozedura guztiak jakinarazi behar zaizkio biktimari.

GIZARTE ALOKAIKURUKO ETXEBIZITZAREN ZUZENENKO ESLEIPENA (EZOHIKOA): Zuzeneko esleipenaren prozedura alkatetzaren, zinegotzitzaren edo dagokion lurraldeko foru-aldundiak eskaera jaso ondoren hasten den salbuespeneko eta ezohiko prozedura da. Gizarte-zerbitzuek txosten tekniko bat egingo dute eta bertan alde batetik, emakumearekin izandako esku-hartzea deskribatuko da eta bestetik, justifikatuko da emakumeak indarkeria matxistaren biktimezako tarteko egonaldiarentzako edo egonaldi luzearentzako foru-aldundiaren edo udalaren berariazko harrera-zentroan (edo lotutako baliabideetan: logeletan...) egon zitezkeen denbora agortu duela.

Biktima ez badago erasotzailea gabe Etxebiden izena emanda, inskripzioa edo berrinskripzioa aktibatuko da ezarritako prozeduraren arabera.

Etxebizitza Sailburuordetzak, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragilearen Zuzendaritzaren zerbitzu juridiko eta administratiboaren bidez betekizunak egiaztatuko dira eta betetzen badira gizarte-alokairuko etxebizitza bat esleituko da eta Alokabideri etxebizitza bilatzen hasteko eskatuko zaio.

⁴⁶ Puntu honekin lotutako xehetasun gehiago lortzeko, Emakunde 2015ean argitaratutako "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. akordioa" pertsonalen tratamendurako gida"-ren 2022ko azken eguneraketa ikus daiteke.

2.6. Arartekoaren erakundearen zeregina III. Akordioan

Arartekoa Eusko Legebiltzarreko goi-komisarioa da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen jarduera eta politika publikoei dagokienez pertsonen eskubideak defendatzeko. EAEko administrazio publikoen eta haien mendeko erakundearen jarduerak gainbegiratzea eta kontrolatzea, eta EAEko pertsonen oinarrizko eskubideak sustatzea eta defendatzea da haren egitekoa.

Arartekoaren esparru arautzailea, izaera eta egitekoa

Konstituzioan jasotako 54. artikuluaren babesean, **Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 15. artikulua** berariaz jasotzen du erakunde horren existentzia: «Euskal Herriari dagokio, bere Legebiltzarraren Lege bidez, eta Konstituzioaren 54. artikulua ezarritako erakundeari dagokionez, antzeko organo bat sortzea eta antolatzea, artikulua horretan aipatzen diren eginkizunak eta Eusko Legebiltzarrak eman diezazkiokeen beste edozein egiteko betetzeko».

Estatutuaren agindu hori betez, **Legebiltzarrak otsailaren 27ko 3/1985 Legea onartu zuen, “Arartekoa”** erakundea sortu eta arautzen duena. Lege horrek euskal administrazioak kontrolatzeko ahalmena ematen dio Arartekoari, herritarren eskubideak defendatzeko, eta herritarrak babesteko eginkizun nagusia ematen dio, aginte- eta botere-gehiegikerien eta administrazio horien zabarkerien aurrean. Lege horren arabera, bere jarduera, funtsean, gomendioak eta iradokizunak egitera eta ikerketen emaitzak txostenetan azaltzera mugatzen da.

Arartekoa, beraz, **beste kontrol-erakunde** bat da, eta argi eta garbi egokitzen zaio Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikoaren bilakaerari, baita Zuzenbideko Estatu horrek eskubideak eta askatasunak bermatzeko duen asmoari dagokionez erakutsi dituen hutsuneei ere, horiek benetan eta eraginkortasunez gauzatzeak botere publikoen benetako betebeharra dakarrelako. **Erakunde independentea** da, Eusko Legebiltzarretik sortua eta haren aurrean baino erantzuten ez duena. Bere jarduera Legearen eta bere irizpidearen mende baino ez dago.

Bere 11. artikuluan, 3/1985 Legeak ezartzen du Arartekoak ondokoak egin ahal izango dituela: ikerketa bat hasi eta burutu egintzak edo jokabideak argitzeko, gomendioak egin, legeriaren urritasunak adierazi, txostenak egin, edo bere lanaren izaera ezagutzera eman. Bestalde, lege horren 14. artikulua bere ahalmenen irismena mugatu egiten du ez lotesle gisa, adierazten duenean ez duela eskumenik izango bere ikerlana zabal dakiekeen organismoen egintzak indargabetu, ezeztatu edo aldatzeko.

Gainera, Arartekoaren oraingo egitekoa **nazioarteko estandarren** arabera ere gidatzen da, eta horien artean bereziki aipatzekoak dira **Veneziako Printzipioak** (Herriaren Defendatzailearen Erakundea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Printzipioak), Demokraziarako Europako Batzordeak Europako Kontseiluaren Zuzenbidearen bidez (Veneziako Batzordea) 2018an onartutakoak, eta **Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen 6. Gomendia (2019), Ombudsmanen erakundearen garapenari buruzkoa**.

Estandar horiek nabarmendu egiten dute horrelako erakundeek betetzen duten garrantzi handiko zeregina demokrazia sendotzen, Zuzenbideko Estatuan, administrazio on batean eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babesean eta sustapenean, eta eskatu egiten dute herriaren defentsa-erakundearen aginduak, Arartekoak kasu, **administrazio txarraren prebentzioa eta zuzenketa, eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babesa eta sustapena** barne hartzea. Era berean, ahalmena izan behar du **Parlamentuari edo Gobernuari gomendioak** jendaurrean aurkezteko, **lehendik dagoen legeria aldatzea, legeria berria onartzea edo nazioarteko hitzarmenak berrestea** dakartenak barne, baldin eta uste bada horiek bat datozela oinarrizko balioekin eta haiek babesteko izendatu den araudiarekin, Estatuak berretsitako giza eskubideen nazioarteko itunak barne.

Arartekoaren eginkizunak III. Akordioan

Deskribatutako esparruan, III. Akordio honetan Arartekoak duen zereginak **bere agintalditik eratorritako eginkizun bikoitz horri** erantzuten dio:

1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko baliabide edo zerbitzu publikoekin edo akordio honetan ezarritakoa ez betetzearekin lotutako jarduerak gainbegiratzea

Alde batetik, euskal administrazio publikoen lana ikuskatzen duen erakundea den aldetik, **herritarren kexak eta kontsultak** artatzeaz eta izapidetzeaz arduratzen da. Kexa eta kontsulta horiek eragina izan dezakete III. Akordioaren aplikazio-eremuan, **emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen dieten baliabide edo zerbitzu publikoei buruzkoak** direnean. Testuinguru horretan, Arartekoak dagozkion prozedurak eta jarduerak aktibatuko ditu eragindako euskal administrazioen aurrean, kexa eta kontsulta horiei erantzun egokia emateko. Gainera, Arartekoak, akordio hau sinatu duten gainerako erakundeekin lankidetzeta eta koordinazio handiagoa ezartze aldera, kexa horietatik eratorritako gai eta auzi garrantzitsuenak partekatu ahal izango ditu, eta akordioa sinatu duten gainerako erakundeekin lankidetzeta eskatu ahal izango du, III. Akordioako organoen esparruan (Adierazleen Lantaldea eta Jarraipen Batzordea), planteatutako gaiak eraginkorragoak izan daitezen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei eskubideak defenda daitezen.

Era berean, **Arartekoak jasotako kexak edo kontsultak III. Akordio honetan ezarritakoa ez betetzeari** buruzkoak badira, III. Akordioaren seigarren e) artikuluan ezarritakoaren babesean, Akordio honetako organoen barruan (Adierazleen Lantaldea eta Jarraipen Batzordea) lankidetzeta eskatuko die Arartekoak gainerako erakunde sinatzaileei, izapidetzea arintzeko eta erantzun eraginkorragoa eta aurreratuagoa emateko, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta hobetzeko.

Era berean, III. Akordioaren seigarren e) artikulua horren babesean, **akordio honen Jarraipen Batzordeak bere betearazpenari buruzko kexak jasotzen baditu**, Arartekoa, bere iritziz horrek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei eskubideak hobeto defendatzea ekar badezake, gainerako erakunde sinatzaileen esku jarri ahal izango da kexa horiek izapidetzen laguntzeko, bere prozedura eta baliabide propioen bidez.

Gainera, III. Akordio honen seigarren artikulua g) atalean ezarritakoaren babesean **jarraipen-txostenari** dagokionez eta erakunde sinatzaileek urtero akordio hau betetzeko abian jarritako ekintzen berri emateko duten betebeharrari dagokionez, Arartekoak Jarraipen Batzordeari jakinaraziko dizkio atal honetan aipatzen diren herritarren kexa eta kontsulten inguruan burutu diren auzi eta jarduera garrantzitsuenak.

2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei eskubideak sustatzeko eta defendatzeko eginkizuna

Bestalde, eginkizun honen esparruan, Arartekoak **ofiziozko jarduerak hasi, txostenak eta gomendioak egingo ditu** emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei eskubideak defendatzeko, indarkeria matxistaren prebentzioa hobetzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko.

Arartekoak, hitzarmen honen esparruan, **gainerako erakunde sinatzaileen lankidetzeta** eskatu ahal izango du, **eginkizun hau** eraginkortasun handiagoaz **burutzeko**, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei eskubideak defendatzeko helburuaren mesedetan.

Arartekoak, III. Akordioko organoen barruan, akordioaren gainerako erakunde sinatzaileekin **partekatuko** ditu **hausnarketa eta ondorio nagusiak**, ekimen horien ondorioz ikuspegi aurreratuago bat eman dezaketenak Euskadin emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen egoera hobetzeko.

Gainera, III. Akordio honen seigarren g) artikuluan ezarritakoaren babesean, Arartekoak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen eskubideak defendatzeko eta sustatzeko **ekimen horien berri emango du urtero**, baita, hala badagokio, emaitzen berri ere, akordioaren urteko jarraipen-txostena egin ahal izateko erakunde sinatzaile bakoitzak Jarraipen Batzordearen aurrean aurkeztu beharko duen urteko jarraipen-txostenean.